Zu hemen zaude.
goiena"

2018-09-28 EGUBAKOITZA / 786. ZENBAKIA / 18. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM




+ Eneko Bidegain idazle eta kazetariari elkarrizketa

Mugiment: bi urte Debagoiena ere mugiarazten



# AZKEN JAI NAGUSIAK OÑATIN

Bi asteburutan, San Migel eta Errosario jaiak ospatuko dituzte, gaurtik hasita / 21

Oñatiko jaietan modu batera edo bestera protagonista izango diren herritarrak.

SANMIGELAK OÑATIN / 21
SANMIGELAK ARETXABALETAN / 35

XABIER URZELAI

# Gazteen droga kontsumoaz kezkatuta

Aretxabaletan eta Eskoriatzan 13 eta 16 urte arteko biztanleen %32k marihuana kontsumitzen dute; hori dela eta, prebentzio plana abiarazi dute / 3

**Hamabi hizkuntza komunitatetako aktibista indigenak, hizkuntza berritzeko gradua ikastera** / 4

**Pabiloiz eta bulegoz osatutako 8.415 metro koadroko eraikin berria gertu Larramendin** / 47

**Martin Perezek Europako saskibaloi txapelketan brontzezkoa lortu du Espainiarekin** / 54

**RIP taldearen ibilbidea jasotzen duen fanzinea eta diskoa aurkeztuko dituzte zapatuan** / 56

SINADURAK


RUFINA OLASAGASTI / 8

LUKENE IGARTUA / 53

AITOR OROBENGOA / 10

AINTZANE OIARBIDE / 64


Anibal Rincon doktorea, ebakuntza-gelan, laser berde bidezko operazio batean.

# Prostatako hiperplasia onbera: zer da eta zelan trata daiteke?

QUIRONSALUD VITORIA OSPITALEKO **ANIBAL RINCON** UROLOGOA

Anibal Rincon urologoak azaldu digu zer den patologia hori eta zeintzuk diren teknika aurreratuenak hari aurre egiteko.

**Zer da prostatako hiperplasia onbera?**
Gaixotasuna baino gehiago, prostatako hiperplasia onbera prostataren hazkunde naturala da eta, hain zuzen, hainbat sintoma eragiten ditu.

**Ohikoa da?**
Bai. Prostata handitzea zerbait naturala da eta gizonezko guztiek izaten dute bizitzan zehar. Edozelan ere, 55 eta 65 urte artean hazkunde esponentziala gertatzen da. Alegia, azkenean, gizonezko guztiek izaten dituzte HBPrekin lotutako sintomak.

**Zeintzuk dira sintomak?**
Bi mota daude. Alde batetik, sintoma buxatzaileak daude: gauean hainbat aldiz joatea txiza egitera, zailtasuna txiza egiten hasteko, gernu-emari gutxitua edo gernu-zurrusta etena.
Beste sintoma bat da txiza egin beharraren urgentzia-sentsazioa; horrek asko mugatzen du bizimodu normala egin ahal izatea¬ –bidaiak, paseoak...–; are gehiago, inkontinentziarekin lotu daiteke.

**Komeni da azterketa prebentiboak egitea?**
Bai, noski. Esan daiteke tratatzeko zailena urgentziazko sintomak direla. Sintoma horiek agertzen dira, jeneralean, pazienteak denbora luzea daramanean sintoma buxatzaileekin. Egokiena da sintoma mota horiek hasierako fasean tratatzea. Gomendagarria da urtean behin azterketa bat egitea 50 urtetik aurrera, konpontzeko gaitzak izan litezkeen ondorioak saihesteko.

**Zer egiten da azterketa horietan?**
Urologia-azterketa batean hauxe egiten da: historia klinikoa, ekografia eta flujometria, hain zuzen ere. Azken horrek, flujometriak, gernu-emaria neurtzen du.

**Zertan datza tratamendua?**
Hasierako faseetan, hainbat farmako hartuta, sintomak nabarmen arintzen dira.
Tratamendu medikoa eraginkorra ez bada edo ez bada nahikoa, berriz, ebakuntza egin behar da.

**Zeintzuk dira ebakuntza motak?**
Ohiko kirurgiaren barruan, ebakuntza mota bi daude: irekia, prostataren tamaina oso handia denean; eta prostataren erresekzio transuretrala, prostatak 100 gramo baino gutxiago pisatzen duenean.
Edozelan ere, azkeneko urteetan, sekulako iraultza gertatu da, laser berdeari esker; izan ere, oso emaitza onak ematen ditu, arrisku gutxiago ditu eta, gainera, errekuperazioa azkarragoa da.

**Zertan datza ebakuntza hori?**
Tratamendu endoskopiko bat da, eta, oso garrantzitsua dena, ez da inbaditzailea: ehun prostatikoa lurruneztatzen da uretran sartzen diren instrumentu batzuekin, ez dago ireki beharrik. Korronte bikoitzeko zistoskopio baten bidez laserzuntza sartzen da, eta hark igortzen duen argiak txizari irtetea eragozten dion ehuna suntsitzen du. Ebakuntza hori, jeneralean, anestesia epiduralarekin egiten da. Gutxi gorabehera, 30 eta 50 minutu artean irauten du, prostataren tamainaren arabera.
Laser berde bidezko fotolurruneztatze prostatikoak hobetu egin du kirurgia prostatikoaren ebakuntza ostekoa. Nabarmen gutxitzen ditu ospitaleratze-epea –24 eta 48 ordu artean–, odol-jarioa ebakuntzan eta odol-jarioa ebakuntza ostean. Inpotentzia eta gernu-inkontinentzia tasak oso txikiak dira (<%1).
Hamar urte baino gehiago daramagu energia hau aplikatzen prostatako hiperplasia onbera tratatzeko, eta, gure iritziz, ahal den neurrian, beti eskaini beharko litzaioke pazienteari, dituen abantailengatik.

**"LASER BERDE BIDEZKO TEKNIKAK ARRISKU GUTXIAGO DITU ETA ERREKUPERAZIOA AZKARRAGOA DA"**



# "Zergatik kontsumitzen duten jakin gura dugu"

**OLAIA ARRESE** SAN JUAN DE DIOS OSPITALEKO ERIZAINA

San Juan de Dios ospitaleak UDArekin elkarlanean drogen prebentzioaren inguruko proiektua du esku artean. Lehenengo fasearen emaitzak aurkeztu dituzte asteon

**Arantzazu Ezkibel** ARETXABALETA

Aretxabaletan eta Eskoriatzan 13-16 urte bitarteko gazteei drogen kontsumoaren gainean egindako inkesten emaitzak azaldu dituzte proiektuaren arduradunek. Emaitza "zatarrak" direla onartu arren, lan egin behar dela nabarmendu dute.



Olaia Arrese erizaina. MIRARI ALTUBE

**UDArekin elkarlanean hasi duzue proiektua. Zerk bultzatuta?**

Urte batzuk badira *Ospitalea ezagutu* proiektua duguna. Helburua da gazteekin prebentzioa egitea; UDAk horrelako zerbait egin gura zuen eta gurekin harremanetan jarri ziren. Esan genien prebentzioa egiteko, hiru urteko proiektu bat egitea zela eraginkorrena. Lanean hasi aurretik datuak jasotzen ditugu; prebentzioa egin gura baldin bada, datuak jaso behar dira lehenengo.

**Eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazteen artean inkesta batzuk egin dituzue.**

Bai; datu batzuk jaso ditugu. Ez dugu neurtu bakarrik zenbat kontsumitzen duten; neurtu dugu baita arriskuari buruz duten pertzepzioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, autoestimua, asertibitatea eta taldearen presioa. Guk oso argi dugu nerabeek kontsumitu egiten dutela; guretzako, garrantzitsuena da jakitea zergatik kontsumitzen duten. Hori landuz gero, kontsumoa jaitsi egingo da.

**Nolako datuak jaso dituzue?**

Datuak zatarrak dira. Emaitzaren arabera, 13 eta 16 urte bitarteko biztanleriaren %32k marihuana kontsumitzen du. Egia da horietako askok oso gutxi kontsumitzen dutela –hilean 1-5 porro bitartean–. Ez da oraingo arazoa. Aspalditik datorren arazoa da. Emaitza hori zerora ez dugu jaitsiko, baina alde positiboa ikusiko diogu. Zer da positiboa? Kontsumitzen dutenen artean %50ek, behintzat, hilean 1 eta 5 porro bitartean kontsumitzen dute. Horiekin lan egin behar da. Lortzen badugu horiek jaistea, beste guztiak ere jaitsiko dira.

**Leintz bailaran egindako inkesta da; gainerako bailarekin alderatuta, kopurua gainetik dago?**

Ez, datuak berdinak dira hemen, Elgoibarren eta Donostian.

**Datuek erakusten dute marihuanaren kontsumoa normalizatuta dagoela?**

Kontua ez da gazteek normaltzat ikusten dutela; kontua da gizartean normalizatuta dagoela, eta, ondorioz, DBHko ikasleek ez dutela arazo moduan ikusten. Porro bat probatzea ez da arazoa nerabeendako. Gizarteak normaltzat du hori, eta, ondorioz, 13 urterekin ez dute inongo arriskurik ikusten. DBHko 2. mailan 5 porro baino gutxiago erretzen dutenak asko diren moduan; urteak aurrera egin ahala, datu hori jaitsi egiten da eta 10 baino gehiago kontsumitzen duten tartera pasatzen dira.

**Marihuanaren kontsumitzaile handi izatetik beste substantzia batzuk kontsumitzera pasatzen dira?**

Speeda, kokaina, anfetamina... kontsumitzera pasatzen dira marihuanako kontsumitzaile handiak. Inkestetan bakarra zegoen kontsumitzaile txikia izatetik beste substantzia horiek kontsumitzera pasa zena. Lehen pausoa izaten da zigarroa; nahiz eta orain hori aldatu egin den eta baporizadoreak diren lehenengoak. Zigarroa, alkohola eta marihuana izaten dira pausoak.

**Nabarmendu gura duzue normaltasunaren aurrean badagoela eragina eta kaltea.**

Hori da normaltasunean pasatzen dena. Guk ikusten baldin badugu pertsona bat fisikoki gaizki dagoena, konturatu egiten gara; baina nola ikusten dugu burmuina gaizki dagoela? Hori ez dugu ikusten. Nerabe batek bere aita edo anaia ikusten baldin badu kontsumitzen, inoiz ez du pentsatuko marihuanak ondorioak dituenik. Hitzaldiak ematen ditugunean gure helburua ez da izaten marihuana txarra dela esatea; ez, guk datuak ematen ditugu. Burmuinen irudiak erakusten ditugu, zein ondorio dauzkan... datuak ematen ditugu. Guk datuak ematen dizkiegu gazteei, eta gero, nerabeek eurek erabaki dezatela zer egiten duten.

**Gaixoak ere joaten dira hitzaldietara?**

Gurekin beti etortzen dira gaixoak, oso garrantzitsuak dira. Nerabeak gaixoekin geratzen dira, euren esperientziarekin: gaixoek esaten diete: "Ni hor nengoen orain dela 10 urte, eta ikusi non nagoen orain". Garrantzitsua da eurek lehenengo eskutik ikustea ondorioak zeintzuk diren. Horregatik egin behar da gizarteko lana. Normalizazioak nahi du esan ez dagoela arazorik; eta bai, badago arazoa eta, gainera, ondorioak ditu.

**Nola egin daiteke lan?**

Guk badakigu DBHko 2. mailan kontsumitzaileak daudela. Horregatik jakin gura dugu aurretik zer dagoen. Eskatu dugu DBHko 1. eta LHko 6. mailetako ikasleek ere inkestak pasatzea ikusteko nondik datorren eta zelakoa den arazoa. Laguntza behar duen kontsumitzaileak laguntza eskatu beharko du. Zer pasatzen da orain kontsumitzen dutenekin? Horietan da zailena kontsumoa jaistea. Guk lan egin behar dugu atzetik datozenekin, prebentzio lana. Emaitzak ez ditugu orain ikusiko, ikusiko ditugu 3 edo 4 urte barru.

**Proiektuaren lehenengo fasea eginda, zer egingo duzue orain?**

Orain, gurasoen txanda da. Eurek ere inkesta pasa beharko dute, gurasoen profil bat egiteko. Hirugarren urtean, gizartera zabalduko dugu proiektua.

**"DATUAK EMATEN DITUGU, GERO NERABEEK ERABAKI DEZATEN ZER EGIN GURA DUTEN"**

## Kontsumoaren Ibilbidea

Marihuanaren kontsumoaren ibilbidea:

- **DBH-2** Datuen arabera, normalizatuta dago eta bilatu egiten dute.
- **DBH-3** Egonkortu egin da kontsumoa.
- **DBH-4** Ibilbidea egituratuta dute.

## Marihuanaren kontsumoa %32

13 eta 16 urte bitarteko 326 ikaslek bete dituzte inkestak. Horietatik 104 kontsumitzaileak dira. Adin tarte horretako biztanleria kontuan hartuta, %32k kontsumitzen dutela ondorioztatu dute; %29, aldiz, inkesta bete dutenen arteko ehunekoa.

## Gurasoen jarrera

Martitzenean Aretxabaletan aurkeztu zituzten lehen faseko datuak gurasoen aurrean, eta eguaztenean Eskoriatzan. Gurasoen partetik "kezka" nabaritu zen aretoetan. "Jendea harrituta geratu zen datuekin", dio Arresek. "Pentsatzen dugu edo badakigu kontsumoa egon badagoela, baina ez da berdina uste izatea edo kontsumoaren datu zehatzak jakitea", gaineratu du erizainak. Gurasoen aldetik entzun zen aldarrikapen bat izan zen poliziaren presentzia handiagoarena. Horren aurrean, San Juan de Dios ospitaleko psikologo Emilio Martinek esan zuen poliziaren presentzia handia izan arren nerabeek berdin-berdin jarraituko dutela erretzen. Bestalde, Aretxabaletako guraso batek herriko kaleetan dagoen "marihuana usaina" nabarmendu zuen, esanez usain hori hartzen ez duena ez dela Aretxabaletan bizi. Horren harira, hainbat balkoitan ikusten diren marihuana landareak aipatu zituzten. Martin psikologoak adierazi zuen holako ikerketak egiten direnean eta emaitzak argitara ematen direnean, herrietako balkoietan ikusten diren marihuana landare kopurua nabarmen jaisten dela.



Ikastaroan parte hartuko duten kideak. ARANTZAZU EZKIBEL

# Euskararen biziberritzea, beste batzuendako eredu

Garabidek antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu ikastaroa hasi dute, astean, 12 hizkuntza gutxiagotutako 20 kidek. Euskararen biziberritzearen gakoak ezagutuko dituzte ikasleek, gero euren hizkuntzaren garapenean erabiltzeko

**Miren Arregi** ARETXABALETA

Astelehenean hasi zuten, Aretxabaletako Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultatean, Garabide Elkarteak eskainitako Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu ikastaroa. Munduko 12 hizkuntza gutxiagotutako 20 kidek egingo dute aurten formakuntza saioa. Guatemalako kitxeak eta ketxiak, Mexikoko maiak eta nahuathak, Kolonbiako nasak, Ekuadorko kitxuak, Bolibiako guaraniak, Brasilgo kashinawak, wallmapuko maputxeak, Kurdistango kurduak eta Afrika iparraldeko amazighak; hizkuntza komunitate horiek egongo dira ordezkatuta.

Abenduaren 14ra arte iraungo duen ikastaroaren aurkezpen ekitaldia eguaztenean egin zuten Aretxabaletan. Bertan, Aretxabaletako alkate Unai Elkorok, Huheziko dekano Begoña Pedrosak eta Garabideko lehendakari Andoni Barreñak egin zieten harrera ikastaroan parte hartuko duten kideei. Begoña Pedrosa dekanoaren hitzetan, proiektua oso garrantzitsua da, "orain arte metatutako jakintza guztia konpartitzeak inportantzia handia duelako". Etorritako indigenen ordezkariak, Suna Altun kurduak, berriz, eskerrak eman zituen eman zaien aukeragatik, eta kurtsoarekin bete nahi dituzten espektatibak azaldu zituen. "Herri bakoitzak bere errealitatea eta testuingurua du, baina Euskal herriko esperientzia eta estrategiak aprobetxatzeko modukoak dira. Horregatik gaude hemen, biziberritzeaz ikasteko eta gurera ekartzeko".

### Emakumeen ahalduntzea

Garabidek emakumezkoak ahalduntzeko pauso sendoa eman du eta aktibistei zuzendutako formakuntza saioan parte hartuko dutenetatik 14 dira emakumezkoak, eta 6 gizonezkoak.

**GARABIDEK EMAKUMEZKOAK AHALDUNTZEKO PAUSU SENDOA EMAN DU AURTEN**

500 ordu baino gehiagoko formakuntza jasoko dute partehartzaileek eta euskalgintzaren zein erakundeen hainbat entitate bisitatuko dituzte ikasleek.

### Bisita didaktikoak ere bai

Hala, eskola orduez gain, 20 bisita didaktiko egingo dituzte euskararen biziberritzean protagonista izan diren erakundeetara. Izan ere, esperientzia horiek bertatik bertara ezagutzea ere bada helburua. Gainera, herriz herriko biran sentsibilizazio ekintzak ere egingo dituzte; ez hori bakarrik, genero zapalkuntzaren inguruan urriaren 19rako Bilbon antolatu duten *Ahalduntzen: hizkuntza eta generoa* jardunaldian ere hartuko dute-eta parte. Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak ikastaroa Garabidek bultzatzen duen proiektu nagusia da.

## Bularra ematea onuragarria dela gogorarazteko, hainbat ekintza

Urriaren 2an, martitzena, jarduera batzuk egingo dituzte Aretxabaletan, amek bularra ematea sustatzeko

**M. A** ARRASATE

Urriaren 1etik 7ra, Bularra Ematearen Astea ospatuko da Europan. Hori horrela, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) antolatuta, jardunaldia egingo dute, *Amak bularra ematea - 0 km-ko elikadura* izenpean. Aukeratutako eguna urriaren 2a izango da, eta jarduera gauzatuko den herria, Aretxabaleta.

Ekintzak goizeko hamarretan hasiko dira, horma-irudi bat egiteari hasiera emanda. Aretxabaletako edoskitze tailerrera joaten diren hainbat emakumek egingo dute horma-irudi hori. La Caixa sukurtsal ondoan dagoen horma bat margotuko dute. Edoskitzea umearen lehen hilabeteetan elikadura modua izan dadin bultzatzeko margotuko den horma-irudi horrez gain, haren onurez kontzientziatzeko beste ekintza bat ere egingo da arratsaldez. Hain justu ere, edoskitzearen inguruko argazkiz osatutako panel bat egin gura dute antolatzaileek. Argazki horiek egunean zehar egingo dituzte, baina dei egin dute, etxetik, edozein formatutan dela ere, argazkiak eroateko. Han egin eta jasotzen dituzten argazkiekin panel bat osatuko dute eta ondoren, erakusgai ipiniko dute Debagoieneko osasun zentroetan. Urriaren 2tik 8ra bitartean, Aretxabaletan egongo da ikusgai; urriaren 9tik 15era, Arrasaten; urriaren 16tik 22ra Bergaran; urriaren 23tik 29ra, Oñatin, eta urriaren 30etik aurrera, Debagoieneko ospitalean.

### Edoskitzearen onurak

Debagoienean Bularra Ematearen Astea ospatuko den bigarren aldia izango da honako hau. Ospakizunarekin, edoskitzea bultzatzea da helburua. "Poliki-poliki, geroz eta gehiago dira bularra ematearen aldeko apustua egiten duten amak. Baina gezurra dirudi zientifikoki horrenbeste onura dituela frogatuta dagoen zerbait horren gutxi promozionatzea", dio Leintz bailarako emagin Rebeca Garciak. Gaineratu du Debagoieneko osasun zentro guztietan egiten direla astero edoskitze-tailerrak eta horietan parte hartzera bultzatu ditu bai haurdun dauden emakumeak, bai eta interesa duten gainontzeko herritarrak.



NAFARROAKO SUHILTZAILEAK

## Bi arrasatear hil dira istripuan

Arrasaten bizi ziren 70 urteko senar-emazteak dira hildakoak. Consuelo E.P eta Antonio V.O dira, Albaceten eta Extremaduran jaioak. Araban gertatu zen istripua, eguaztenean, Asparrenean, A-1 autobidean, Gasteizeko noranzkoan. Senar-emazteak zihoazen autoak bide bazterrean geldirik zegoen kamioi baten aurka jo zuen. Momentuan bertan hil ziren.

59 EGUN FALTA DIRA

EUSKARALDIA, GERTU!

# "Hizkuntza ohiturak aldatzea dugu helburu"

**ARRATE ILLARO** EUSKARALDIAKO KOORDINATZAILEA

Pasa den astean jarri zuten martxan Euskaraldian parte hartzeko izen-ematea, eta, koordinatzailearen esanetan, oraingoz, "erantzun ona" izaten ari da ekimena

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo dute hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen Euskaraldia ekimena, eta herriz herri motorrak berotzen hasiak daude dagoeneko.

**Pasa den astean ireki zenuten izen-ematea. Zer moduz doa kontua?**

Harrera ona izan du ekimenak orain arte. Ez dugu datu errealik, izena emateko bide ezberdinak ditugulako, baina erantzuna ona izaten ari da.

**Euskaraldia ariketa sozial bat izango dela diozue.**

Bai. 11 egun hartuko ditugu gure hizkuntza ohiturak aldatzen hasteko eta ahalik eta modu erosoenean urratsak egiteko.



Arrate Illaro, eguaztenean, Bilbon. MIKEL EZKERRO

**Zein da Euskaraldiaren helburua?**

Gure egunerokoan ditugun hizkuntza inertzia batzuk apurtu, eta euskara gehiago erabiltzea, ohiturak aldatzen hastea, batez ere, hamabigarren egunetik aurrera. Badakigu hamaika egunetan ez dela ohitura bat aldatzen, baina gura duguna da ahalik eta modu kolektiboenean eta kontzienteenean ariketa egitea, hamabigarren egunetik aurrera aldaketa errazagoa izan dadin.

**Zergatik hamaika egun?**

Iruditzen zitzaigun garrantzitsua zela ekimenak batzea herritarron astean zeharreko eta asteburuko bizimoduak. Astean zehar lankideekin egoten gara gehiago, eta asteburuetan, berriz, familiarekin edota lagunekin. Beraz, hamaika egunetan bi asteburu eta zazpi lanegun hartuko ditugu.

**Zeintzuk izango dira *ahobizi*-en eta *belarriprest*-en funtzioak?**

*Ahobizi* denak euskaraz egingo du ulertzen duten guztiekin, ondokoak euskaraz zein erdaraz erantzun. Ezezagunei ere lehenengo hitza beti euskaraz egingo die. *Belarriprest* denak, berriz, gonbidapena egingo die inguruko guztiei berarekin euskaraz aritzeko, berak euskaraz zein erdaraz egin.

**Biek ala biek txapa bat eramango dute, identifikatzeko.**

Ohitura aldaketa hori ahalik eta modu erosoenean planteatu gura dugu. Txapak balio du gainontzekoei adierazteko ekimenean parte hartzen ari garela eta betetzen ari garen rola bata edo bestea den. Era berean, balioko du erakusteko ez gaudela bakarrik, eta kolektibotasun horrek eman dezakeen babesa eta indarra baliatuko dugu horretarako. Bestalde, ingurukoentzat ere baliagarria da jakiteko bat Euskaraldian parte hartzen ari dela, eta bere rola zein den.

**Herrietako hamaikakoen funtzioa zein izango da?**

Herrietako batzordeen aliatu izango dira enbaxadoreak, eta egin beharko dutena da herritarrei ekimenaren berri eman, eta hauek aktibatu.




Bergarak 750 urte.
*Izan garelako izango gara. Gure balioekin aurrera!*

Irailak 28, ostirala.
Bergarako 750. urteurreneko kontzertu-ikuskizun berezia San Martin Agirre plazan, 22:30ean.

Bergarako Udala
750 urte

www.bergara.eus/750

# Amaia antzokia

Musika
Dantza
Antzerkia
Haur antzerkia
Zarzuela
Antzerki musikala

## Iraila-Abendua 2018



ANTZERKIA

Irailak 30

**Txarriboda / Hika**



DANTZA

Urriak 13

**Iu + Female + Trip / Lasala**



DANTZA

Urriak 27

**Biopiracy / Ziomara Hormaetxe**



HAUR ANTZERKIA

Azaroak 3

**Pinotxo / Glu Glu**



ANTZERKIA

Azaroak 11

**Como un viento helado / Tanttaka**




ZARZUELA

Azaroak 17, 18, 23 eta 24

**Luisa Fernanda / Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa**



ANTZERKIA

Abenduak 2

**Hamaika amarren seme (alaba) / Doke Antzerki taldea**



MUSIKA

Abenduaren 6tik 9ra

**XXVI. "Arrasateko Hiria" Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa / Hauspoz**




ANTZERKI MUSIKALA

Abenduak 16

**Goazen 5.0**



ANTZERKIA

Abenduak 23

**Erlauntza / Vaiven**



MUSIKA

Abenduak 31

**Arrasate Musikaleko Banda**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

ORAIN KULTURA

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Sarrerak: www.arrasate.eus

## Udalaitzen aurpegiak, alderdiak

**IÑAKI IDIGORAS IGARTUA**

OÑATI

Oñatitik piramide itxura hartzen diogu Udalaitzi. Herritik sekula irten gabea izanik, jokatu dut piramidala dela. Eta aramaioar batek apustua ez dit, ba, online eutsi! Tontolapiko halakoa! Garbi-garbi dago-eta piramidala dela! Ba ote daki piramidala izatea zer den? Puztu egin naiz, hura gutxietsiz.

Sakelakoaren bidez kontua eskatu diot, jokatutakoa, eta berak, ia txoratuta nagoen erantzun; Udalaitz hiru tontorreko haitz zabal bat dela ez dit, ba, esan! Neuk zor diodala jokatutakoa berari! Adostasun aukerarik gabeko eztabaidan kateatu gara, elkarri geziak boteaz, lehendik hotza zen harremana izoztuz.

Gertatutakoa lagunartean kontatu dut, haren kontu barre egiteko, umorearen gerran, eta hari kontu hartzeko lagun bila. Kuadrillako batek ere aferaren bat izan omen zuen beste aramaioar batekin. Estentsioz, aramaioar guztiak jo ditugu ezjakin, gezurti eta autoritariotzat. Aramaioar *klasea* sortu dugu, klasifikatu dugu, gure herriaren etsaitzat joz. Abantaila izugarria eman digu ariketa honek. Interes ezkutuko asko batu zaizkigu kausara. Gure egitekoa, aramaioarrak borrokatzea. Klase borroka. Sormenezkoa baino, suntsitzailea. Kontra borroka.

Hainbesterainoko indarra metatu dugu lelo honekin, ezen Aramaiori su ematea ere otu zaigun, haiek gabe, klase hura gabe, gu eta *herria* hobeto biziko garelakoan. Arrakastaren mozkorraldian, sinetsita.

Ez dakit aramaioarrak antzeko pentsamendurik izan eta horrelakoetan ari ote diren, baina usaina hartzen diot baietz, haiek ere gu xaxatu gaituen indar berak mugitu dituela.

Horrela ikusten ditut sarri alderdi politikoak, nor bere trintxeratik, anaia arteko kontra borrokan.

## PNV: iruzurra, inposizioa eta, gainera, errepresioa

**EÑAUT URIBESALGO, EKIÑE ARKAUZ, GARAZI GOITIA ETA XABIER ETXEBARRIA**

OÑATI

Irailaren 23rako, Zubietako erraustegiko obretara martxa bat antolatu zuen Gipuzkoa Zutik mugimenduak, soilik gutxi batzuen interesei erantzuten dien makroproiektu hori beste behin salatzeko. Oñatiar talde bat ere bertan izan ginen, Gipuzkoako txoko desberdinetako herritar gehiagorekin batera.

Obretara iritsi ginenerako, Ertzaintzaren dispositibo itzela genuen zain, sarrera blokeatzen. Eta hortxe gelditu ginen zain, gure aldarrikapenak oihukatuz. Horrelako batean, ez dakigu zergatik –inork ez baitzuen beraiek markaturiko perimetroa pasatu–, zoroaren pare hasi ziren jendea jipoitzen eta bertatik joateko esaten. Adin guztietako jendea –kazetariak barne– kolpatu zuten inongo konplexurik gabe, eta karga horrek hainbat zauritu utzi zituen. Tartean, bi oñatiar. Okerragoa ere izan zitekeen, horrelako eremu menditsu batean jendea bultzadaka lurrera botatzen eta porrarekin jotzen hasteak ondorio lazgarriagoak izan zitzakeen eta. Izugarrizko arduragabekeria.

Ikusten da PNVk ez duela nahikoa erraustegia inposatu izanarekin. Orain gure aurkakotasuna adierazten ere ez digu utzi nahi, eta inongo eskrupulurik gabe bidaltzen du bere polizia protesta egiten dutenak jipoitzera. Benetan lotsagarria izan zen egun horretan ikusi genuena. Noraino iristeko gai zarete?

## ... eta segi aurrera!

**IRAIA SOLA ETA GAIZKA AZKARATE**

ARRASATEKO SORTUREN IZENEAN

ARRASATE

Hari batek zeharkatzen du gure historia. Konpromiso izeneko urrezko hari batek, *askatasuna* hitza josten duen urrezko hari batek. Eta konpromiso hori dela kausa, haize iraultzaileek bultzaturik, ehunka, milaka gizon-emakumek haien bizitza utzi zuten, tiranoengandik, zapaltzaileengandik, okupatzaileengandik gure aberria askatzeko saiakeran. Azken hamarkadetan, Txabi Etxebarrietarekin hasi eta Xabier Rey *Antxo-renganaino*, murgilduta dabilen haria, baina erroak ere badituena Gernika suntsitu zuten bonben oihartzunean, Kalamuako mendian, Sabigainen, Intxortan. Baita kronika zaharragoetan ere. Lauaxeta gure poetak hauxe idatzi zuen, aurpegia estalitako faxistek exekutatu baino bi urte lehenago: *Mendi eze, ikurrin eder azke nai zattut axian. Amar gasteren lerdena makila luzez bidian! Mendi-bitxodor berdiok, arin or duaz kantari: "Dana emon bear yako maite dan askatasunari*.

Aturri ibaiaren hegoaldean, Ebro ibaiaren iparraldean, bada herri bat, Euskal Herria, zaharra eta zimela, gaztea eta aktiboa, emakumezkoen eskuek eta amen besoek jasoa, lur zati bati gogoz lotua, milaka urteko hizkuntzan abesten duena.

Gure herrian, Arrasaten ere, izan dugu zapaltzaileen aurka, bidean eroritakoen omenez, garaipen txikien konjuran edota askatasunaren alde, abesteko parada. Batzuetan irribarrez, tarteka amorruz, eta beste batzuetan saminez; malkoek ere ureztatu dute gure borroka.

Denbora ez da alferrik pasa, 2018ko iraila da, eta azken urte eta hilabeteotan Euskal Herrian aldaketak eman direnik ezin uka. Baina gure herria eta gure herrikideak aske ikusteko egarriak bizirik dirau: haria ez da eten. Gure konpromisoa helburu horren alde borrokatzen, bidea egiten, jarraitzea da, eta aurretik aipatu ditugun gizon-emakumeez oroitzea, haiekin guztiekin, zor infinitua baitugu.

Maite zaituztegu! Gora gu eta gutarrak!

## Artista

**MARIA OSES**

ARRASATE

Artista: oholtza gainera bakarrik igo eta oholtza bakarrik ez, antzoki oso bat betetzeko gai dena. Horixe eskaini zigun Ines Osinagak igandean, Shot! estudioaren aldeko kontzertuan: espektakulua. Igo zen, beltzez, ezpain gorriz, oholtzaren gainera. Bera, eskusoinua eta sandalia planoak. Mutu zegoen antzokia. Soinuaren maletatxoa hartu, eta gainean eseri zen, mikroak eta makinak ondo kokatu, eta zorrotz begiratu zigun. Kontatu zigun nola guztia aldatzen den, eta nola aldatu den bera ere. Nola suak ez dituen inoiz hitzak erreko, eta, hala ere, nola hitzek beti jarraitzen duten aldatzen. Hitz zehatzak bota zituen, zorrotzak. Bakoitzak bere esanahia, bere pasioa eta bere helmuga: bihotzera, zuzenean, gezi zorrotzenaren gisan.

Isiltasuna. Txalo bat, bi, hiru. Ahoarekin soinu bat, bi, hiru. Melodia bat, bi, hiru, soinuarekin. Bat, bi, hiru kolpe lehor. Dena grabatu, eta bata bestearen atzetik hasi ziren soinuak batak besteekin lotzen, korapilatzen, loratzen. Eta, talentu erakustaldi hark hobera egin ezin zezakeela zirudienean, guztia alde batera utzi, hankak ireki eta ahoa irekitzearekin batera erakutsi zigun zer zen pasioa.

Besterik gabe, plazer bat da magia bertatik bertara ikusi ahal izatea; edonor ez da gai gar xume bat antzoki oso bat erre dezakeen sute bihurtzeko.

## Urriak 1: Pertsona Helduen Nazioarteko Eguna

**ITZIAR USANDIZAGA**

DEBAGOIENEKO DUINTASUNA ELKARTEA

DEBAGOIENA

Bizi itxaropena gora doa eta, haur gutxiago jaiotzearen ondorioz, gizartea gero eta zaharragoa dela jakina da. Honen ondorioetako bat da menpekotasun kasuak gora doazela. Pertsona hauek kalitatezko zaintzak eskatzen dituzte: elikadura, arreta, maitasuna, atsedena, ariketa fisikoa… Zaintzari garrantzia ematea menpekotasuna modu duinean aurrera eramateko tresna da.

Gure gizartean zaintza mota ezberdinak daude eta hauek egoitzetan zein etxean ematen dira. Halere, pertsona hauentzat Zaintza Sistema Publiko bat eskatzen dugu. Pentsio duina izateaz gain, egoitzak, eguneko zentroak, etxez etxeko zerbitzuak beharrezkoak dira, eta, horregatik, bermatuak egon behar dira.

Argi dago helduek zaintza behar dutela, baina beraiek bakarrik? Ez! Zaintzaileak ere zaindu egin behar dira, baina fisikoki zein psikologikoki. Eguneroko zaintza lanegatik ez balitz, nola egongo ginateke?

Horregatik, etxez etxeko zaintzako profesionalen lana balioan jarri behar dela uste dugu. Guztion ongizaterako ezinbestekoa eta behar-beharrezkoak direlako.

Halere, hau horrela ez dela ikusi dugu azken hilabeteetan. Horren adibide dira Arrasateko etxez etxeko langileak. Hainbat gunetan entzun eta ikusi dugu beraien aldarria, greba eginaz, elkarretaratzeak burutuz… borroka etengabean dabiltza.

Horregatik, Arrasateko etxez etxeko zerbitzuetako langileei gure babes eta elkartasun osoa eskaini nahi diegu. Eta beraien aldarria gure egiten dugu.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI

# Euskaraz aukerarik bai?

Euskaraldiaren eskuorriak dio kanpainaren helburuen artean hau lortu nahi dela: *Hizkuntza ohiturak aldatzea norberaren erabakia eta ariketa izan arren, bidea taldean eta batera, erosoago eta lagunduago egitea*.

Batzuetan, norbaitekin erdaraz hitz egiten hasi eta euskalduna dela konturatzen gara, baina zenbatetan gertatzen da alderantzizkoa?

Euskaraz zuzendu eta erdaldun elebakarra izatea tabernaria, dendaria, ertzaina, medikua... Lan munduko harremanetan edota zerbitzuetan ere gauza berbera gertatu ohi da, film bat ikusterakoan, antzerkian, musika emanaldietan...

Beste egoera mingarri batzuk ere ikusten dira: Urkullu lehendakaria gazteleraz mintzatu zen iaz Quebecen egindako ekitaldi publikoetan. Nor ordezkatzen du lehendakariak? Zein herri edo kultura?

**NORBERAK EUSKARAZ BIZITZEKO ERABAKIA ETA BALDINTZA SOZIAL EGOKIAK INGURUAN BEHAR DIRA**

Izan Arrasaten, Bilbon, Baionan edo Iruñean, euskaraz bizitzeko aukera izan nahi dugu, Parisen frantsesez eta Madrilen espainolez bizitzeko duten moduan.

Zer da beharrezko euskaraz bizi ahal izateko? Bi gauza: alde batetik, norberak euskaraz bizitzeko erabakia; eta, bestetik, baldintza sozial egokiak inguruan.

Baldintza sozial horiek euskaraz funtzionatzen duten lan munduak, komunikabideek, ingurune digitalak, aisialdi jarduerek... osatzen dituzte. Hauek gauzatzeko, beharrezkoak dira gizarte ekimen antolatua eta bultzada instituzionala. Babes sozial iraunkorra eta bultzada politikoaren bitartez ez dakitenek ikasi eta erabilera handiagotzeko neurriak hartu behar dira, presio jasangarri eta eragingarria sortuz.

Erakunde guztiei dagokie euskaraz funtzionatzeko baldintzak jartzea; erakunde publikoen kasuan, gainera, hauek bideratzeko baliabideak jarriz.

Orduan izango da norberarena hizkuntza ohiturak aldatu eta euskaraz mintzatzeko erabakia, orduan bakarrik. Azken pauso horretan lagunduko du Euskaraldiak.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

## Zenbakiak

**MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN**

HTTPS://LABUR.EUS/QUYYL

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Uda guztia etorkinei buruzko datuak entzuten eta irakurtzen pasatu eta gero, errealitate dosi batekin tupust egin nuen joan den astean, Irungo Lakaxita gaztetxera errefuxiatuei buruzko erreportajea filmatzera joan ginenean. Gaztetxera hurbildu bezala arraro sentitu nintzen, nire arrazakeria inkontzientean, zuriak eta emakumeak gutxiengoan baikeunden bat-batean.

Sabela bueltaka hasi zitzaidan gero, haiekin agurrak gurutzatu, gosaria eta begiradak partekatu, eta gaztetxeko kideak haien egoeraren berri ematen hasi zitzaizkigunean. Konturatu bainintzen ordura arte entzunak nituen zenbaki eta datuei ez niela ordura arte aurpegirik jarri. Eta han zeuden: irri eta negar, kezka eta itxaropen, haragi eta azal, izen eta abizen, nire begien aurrean; ez ziren zenbakiak. [...]

Lakaxita eta Txantxarreka gaztetxeetako kideak egiten ari diren lana, berriz, txalogarria iruditu zitzaidan. Nola ia baliabiderik gabe harrera egiteko gune tamalez prekario baina aldi berean goxoak prestatu dituzten, auzolanean, eta inolako babes instituzionalik gabe. Haiek ere nabarmentzen zuten, ordea, elkartasun osoz emanagatik horiek ez direla bizitzeko baldintza egokiak, eta instituzioek eskuak garbitu baino ez dituztela egin sasikonponbide autogestionatua ikusita. Kontrara, kontrolak gogortu eta errepresioa areagotu, besterik ez dutela egin. [...]

Agian, arazoa ezberdina litzateke agintariak ere gaztetxera hurbildu, han dauden pertsonekin kafe bat hartu eta minutu batzuez entzun eta ikustera animatuko balira. Agian, horrela, haiek ere konturatuko lirateke ez direla zenbakiak.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria** Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea** Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala** Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria** Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa** Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea** Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Administrazioa** Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Nazioartera zabaldu da Arteman enpresekin batera"

**ARANTZAZU LAGUNILLA** ARTEMAN KOMUNIKAZIOKO ZUZENDARIA

**Eneko Azkarate** ARETXABALETA

15 urte bete ditu Goienak sortutako Arteman komunikazio agentziak. Eguaztenean egin du ospakizun ekitaldia Aretxabaletan, MUren campusean.

**Nola ospatu duzue?**

Bezero, hornitzaile, kolaboratzaile eta lagunekin ospatu genuen lankideok. *Artemaneroak* jarri diogu leloa ospakizunari eta kamiseta bereziak atera ditugu. Talde-lana da Artemanen indarra eta hori nabarmendu nahi izan dugu. Ondo joan zen ekitaldia; xumea, baina, era berean, ustekabez betea eta magikoa guretzako. 15 urte hauen errepasoa egin genuen, mugarrien bidez.

**Gaur egungo komunikazioaren iraultzan murgilduta gaudelarik, zerk bereizten zaituztete?**

Sorreratik gara euskarazko komunikazio agentzia bat, nahiz eta gaztelaniaz ere lan egiten dugun. Bestetik, komunikazioa modu integralean lantzen dugu: ez bakarrik diseinu grafikoa edo ikus-entzunezkoak. Estrategia osoa lantzen dugu. *Komunikazioaren artisauak* da gure leloa. Gauzak modu zainduan egiten saiatzen gara. Eta kooperatiba gara.




Arantzazu Lagunilla, Artemanen egoitzan, Aretxabaletan. ARTEMAN

**Asko aldatu da Arteman 15 urte hauetan?**

Goienako lau lagun hasi ginen eta, une honetan, 15 lagun gara. Bereziki, diseinu grafikoan eta tokiko hedabideentzako publizitatearen kudeaketa lanekin hasi ginen. Gaur egun, alor asko lantzen ditugu. Ikus-entzunezkoak bai, baina baita estrategia, diseinua, ekitaldien antolaketa, webgintza…

**Zerbaitekin bazaudete bereziki harro?**

Pertsona askoren garapenerako proiektua izan da. Ikasle asko ere pasa dira bertatik… eta 15 lankide proiektu baten bueltan aritzea ere pozteko modukoa da. Bestetik, hasierako esentziari eusten diogu: gizartearekiko eta euskararekiko konpromisoa. Azkenik, Arteman Debagoienetik harago zabaldu da.

**Zein alorretan dituzue bezero nagusiak?**

Enpresekin lan asko egiten dugu eta horrek eman digu aukera nazioartera zabaltzeko. Gero, euskararen alorrean, baita kirol, hezkuntza eta erakunde publikoen esparruan ere.

**Zelan irudikatzen duzu 15 urte barru Arteman?**

Etorkizuna konplikatua izango denez, pertsona irmo, gaitu eta prestuekin inguratuta egotea nahiko genuke, erronka zailei aurre egiteko.

ITURRI ONETIK

## Kontzertu berezia Euskaltzaindiaren mendeurrenean

Euskaltzaindiaren mendeurrena ospatzeko jardunaldia antolatu dute Arantzazun urriaren 4, 5 eta 6rako: *Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018)*. Horrekin batera, *Mende berria kantuz* kontzertu berezia ere bai, Bilboko koralarena den Euskeria abesbatzarekin eta Donostiako Orfeoi Gaztearekin. Euskal abeslari eta taldeen bertsio koralak abestuko dira: *Aitormena, Azken dantza, Sarri sarri, Ilargia, Euritan dantzan…* Estreinaldia, urriaren 5ean, Arantzazun, 19:30ean.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-09-24

## Erretiro aurreratua, 55 urtera

Mondragon Taldeak 2008ko irailaren 24an egin zuen kongresuan erabaki zuen erretiro aurreratua 55 urtera aurreratzea. Hain justu ere, krisi egoeran zeuden enpresetako langileek hartu ahalko zuten erretiro aurreratua adin horrekin. Egiturazko langabezia zela-eta elkartasun egoera bereziak eskatzen zituzten egoera zailei aurre egiteko neurria izan zen. Azken ekonomia krisi gogor sasoian hartutako neurria.




GOIENA

HAU BE BADOGU!

### Euskal Selekzioa, berriro bueltan



Urriaren 12an Venezuelaren aurka jokatuko du lagunartekoa Euskal Selekzioak, Gasteizeko Mendizorrotza estadioan. Partida iragartzeko iragarkia, gainera, Arrasaten grabatu zuten:

@*MondragonCF*: "Aldagela horiek ezagunak egiten zaizkizu? Hona hemen, Mojategin grabaturiko bideoa *#EuskalSelekzioa #Ofizialtasuna*".

@*asiererrasti*: "Ederra eta hunkigarria *#EuskalSelekzioa*-ren spot berria!"

### Hizkuntzen Europako Egun berezia

Atzo ospatu zen Hizkuntzen Europako Eguna, eta euskarak ere izan zuen tartea sare sozialetan.

@*etxeparEU*: "Hizkuntzen Europako Egunean *#euskara* Europako Batzordearen eraikinean. *@EU_Commission #coeEDL #HEE*.

@*slklusterra*: "Hizkuntzen Europako Eguna hizkuntza gutxituen biziberritzerako elkarlana eta ezagutza-trukearen garrantzia gogorarazteko egun egokia da *#EDL2018 #Euskara*".

### Zinemaldiaren arrakasta sarean

Donostiako zinema jaialdiak, aurten ere, sekulako arrakasta lortu du sare sozialetan, Donostia hiria bera eta *#66SSIFF* traola aipatuenetakoak eta erabilienetakoak izan dira-eta aste honetan. Zoramena, Donostiako alfonbra gorrian, Ryan Gosling aktoreak jarri zuen:

@*andreapel*: "Ez dakit nola egon ahal zareten hain lasai, jakinik Ryan Gosling Donostiako Zinemaldian dagoela!" (itzulita).

# Lapurretek gora egin dute azken egunetan

Zortzi euneko tartean, sei kasu izan dira: Salegi harategian, Mesedeetako Amako aparkalekuko zortzi autotan eta Basati, Jai-Zale, Buenuena eta Arrasate tabernetan. Ertzaintzak martxan du ikerketa, baina, oraingoz, ez dago atxiloturik

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

"Uda nahiko lasaia izan da, baina delinkuentzia kasuek gora egin dute azken astean. Asko izan dira oso denbora laburrean". Hitz horiek erabili zituen Arrasateko udaltzain batek, azken asteko lapurreta kasuen gorakadaren harira.

Baina oraindik gehiago falta ziren: astelehen eta domeka gauean beste hiru lapurreta –edo saiakera– izan ziren.



Buenuenako sukaldeko leihoa kolpatuz sartu ziren lapurrak barrura. X.G.

**Kasu gehien, astelehen gauean**

Domeka gauean lapurrak Jai-Zale tabernan sartu ziren. Ateko markoa apurtuz lortu zuten barrura sartzea, eta kaxa erregistratzaileko dirua eta txanponak eraman zituzten.

"Eskularruak erabili arren, atean odol marka txiki bat utzi zuten lapurrek. Hala ere, odol marken emaitza jakin orduko urteak pasa daitezkeela esan digute", azaldu dute tabernako arduradunek.

Astelehen gauean, aldiz, bi kasu izan ziren: Buenuenan lapurreta eta Arrasate tabernan lapurreta saiakera, hain zuzen ere. Buenuenan, barrura sartu ostean, dirua eraman zuten kaxa erregistratzaileetik eta makina txanponjaletik. Jabeek adierazi dutenez, Ertzaintzako agenteek ez zuten hatz markarik aurkitu, lapurrek eskularruak erabili zituztelako. Bi hilabeteko epean jasan duten bigarren lapurreta izan da, uztailaren 19an ostu baitzuten bertan azken aldiz. Gau berean, Arrasate tabernan lapurreta saiakera bat izan zen. Atea zabaltzen ahalegindu ziren, baina, norbaiten presentzia sumatu ostean, alde egin zuten lapurrek.

**Basatin eta Salegin**

Zapatu gauean, Ferrerias kaleko Basati tabernan sartu ziren lapurretan. Kanpoaldeko pertsiana indarrez zabaldu ostean, ateko kristal bat hautsita lortu zuten barrualdera sartzea lapurrek. Behin barruan, kaxa erregistratzaileko, makina txanponjaleko eta tabako makinako dirua ostea lortu zuten.

Salegi harategikoa, ordea, irailaren 17an izan zen. Lapurrak Otalora etorbideko atearen gainean dagoen leihotik sartu ziren, baina hura apurtu gabe.

**BUENUENAREN KASUAN, AZKEN BI HILABETEETAN JASAN DUTEN BIGARREN LAPURRETA IZAN DA**



## Zortzi autoren kristalak, apurtuta

Pasa den barikuan, hilak 21, Mesedeetako Amako aparkalekuan hainbat autoren kristalak apurtu zituzten. Udaltzainek zortzi apurketa zenbatu zituzten zapatu goizean bertaratu zirenean. Jakinarazi dutenez, horietako lauk salaketa jarri dute.

NIRE USTEZ



**AITOR OROBENGOA**

## Olof Palme, 30 urte

Aurten 30 urte bete dira Suediako lehen ministroa zen Olof Palme erail zutela. Nahiz eta urrun geratzen zaigun aberri batekoa izan, Olof Palmek izan zuen Euskadirekin bere loturatxoa. Izan ere, 1975eko irailaren 27an Txiki, Otaegi eta FRAP-eko hiru kideren erailketaren kontra agertu izan zena Europako lehen agintaria izan zen. Oraindik ere Youtuberen bitartez aukera dago horren inguruko bere agerpena ikusi eta Francori "deabru erabiltzailea" nola deitu zion entzuteko.

Kontua da 30. urteurren honek Olof Palmek garatu izan zituen politikak gogoratzeko aukera ematen didala. Horietatik bat, niretzat, zinez interesgarria da. Alegia, Olof Palmek Suediako 25 urtetik gorako langileei aukera eman zien unibertsitatean doan ikasteko, horrela bizitzako bigarren aukera eskuratzeko bidea irekiz. Hemen, 30 urte pasa diren arren, oraindik ez gara halako politikarik ezartzeko gai izan, nahiz eta On Jose Maria Arizmendiarrietak garbi azaldu zigun honako hauxe: "Libertatea maite duen herriak bere heziketaz arduratu behar du; izan ere, ezjakintasunak esklabotzara darama".

OHARRAK

### Lore eskaintza

Duela 82 urte faxistak sartu zirela oroitzeko, eguaztenean lore eskaintza egin zuten Laubideko monolitoan.

### Gudari Eguna

Arrasateko Sortuk deituta, urteroko manifestazioa egin zuten atzo.

### Sandinistak

Elkarte horrek Debagoiena Nikaraguarekin-ek egindako elkarretaratzea gaitzetsi du. Oharra *Goiena.eus* atarian dago ikusgai.

### Odol emateak

Urriaren 2an egongo horretarako aukera, 16:30etik 20:00etara, anbulatorioan.




TXOMIN MADINA

## Hiru egunean, bi elkarretaratze

Astelehenean egin zuten lehena, pasa den astean Zigorrola auzoan izandako eraso matxista salatzeko. Baina, tamalez, handik bi egunera asteko bigarren elkarretaratzea egin zuten, Bilbon izandako erailketa gaitzesteko. Emakumeen Mundu Martxak gogorarazi du aurten Euskal Herrian eraila izan den seigarren emakumea dela Maguette Mbeungou.



Etxez etxeko langileak eta Udal Gobernuko kideak maiatzeko osoko bilkuran hizketan. XABI GOROSTIDI

# Bi neurri hartu dira etxez etxeko langileekin lotuta

Udal Gobernuak pleguak atera ditu zerbitzua esleitzeko. Prozesuak lau hilabete iraun dezakeenez, tarte horretan Aurrerantz Kooperatibak emango du zerbitzua Cleceko langileak subrogatuz. Langileen ordezkaritza sindikalari "ongi" iruditu zaio aldaketa

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Etxez etxeko langileek greban jarraitzen dute, baina badirudi euren egoera hobetzetik gertuago dagoela. Urritik aurrera enpresa berri batentzako egingo dute lan –lau hilabeterako–, eta honek euren baldintzak hobetzeko "borondatea" azaldu duela esan du langileen ordezkaritza daraman ELA sindikatuak.

### Udal Gobernuaren bi neurriak

Clece enpresarekin Udalak zeukan kontratua uztailaren 31n agortu zen, eta, horren ostean, zerbitzua kontraturik gabe ematea adostu zuten bi aldeek, irailaren 30era arte. Hortik aurrera, ez zegoen garbi nola emango zuten zerbitzua, baina martitzenean argitu zuen hori Udal Gobernuak, aurrez langileekin elkartu ostean.

Lehenik eta behin, pleguak onartu dituzte hurrengo urteetan zerbitzua esleitzeko lehiaketa publikoa egiteko. Uztailean, pleguen onarpena geldiaraztea eskatu zuten langileek, Clecerekin negoziatzeko denbora izateko, eta Udalak onartu egin zuen. Horrez gain, uztaileko osoko bilkuran, plegu horietan hobekuntza batzuk egitea onartu zuen udalbatzak: hurrengo enpresa kooperatiba –edo antzerakoa– izatea eta erabiltzaileek ordaindu beharreko orduko tarifa merkatzea, besteak beste.

Enpresa berria lortzeko lehiaketak lau hilabete iraun dezakeenez, tarte horretan, Aurrerantz Koopetatibaren bitartez emango du zerbitzua Udalak, urriaren 1etik aurrera. Bilboko kooperatiba honek Cleceko langileak subrogatuko ditu, eta, nahiz eta Cleceren hitzarmen berberarekin hasi, langileen baldintzak hobetzeko konpromisoa azaldu du.

### Grebak jarraitu egingo du

Enpresa aldaketak grebari eragingo dion galdetuta, zera dio ELAk: "Grebarekin jarraitzea aztertzen ari gara, hitzarmen duin bat lortu arte. Enpresaren borondatea ona da, baina hitzarmen batean plasmatu behar da".

# Palentziako gotzaina, bigarren mailako helburu AZEkoentzat

Kanpatorpeko indusketen bigarren fasea dute hastear, eta hiru helburu nagusien artean ez dago gotzainarena

**X. G.** ARRASATE

AZEko kideek herriko historiari buruz argia igortzeko gosez jarraitzen dute, eta, laster, beste indusketa bat egingo dute Kanpatorpean. Iaz ere, sasoi berean, indusketa lan emankorrak egin zituzten bertan. Besteak beste, XIII. mendeko nekropolia aurkitu zuten, non hamabost pertsonaren hezurrak aurkitu zituzten, eta baita Brontze Aroko zeramika batzuk ere. Aipatzekoa da aurkitutako hezurretako baten datazioa 1220. urtekoa zela, Arrasatek hiribildu izaera jaso baino lehenagokoa.

### Hiru helburu garbi

Iaz, asko hitz egin zen inguru horretan egon zitekeen Palentziako gotzain bati buruz. Baina AZEko kideek argi utzi nahi izan dute gotzainarena bigarren mailako helburu bat dela eurentzat. "Guretzako, bigarren mailakoa da. Guk antzinako Arrasateri buruzko jakintzan sakondu nahi dugu, eta hauek dira indusketa berri honen hiru helburuak: Brontze Aroko arrasto gehiago bilatzea, San Juan Bataiatzailearen aurretik zegoen elizaren zantzuak aurkitzea eta gorpu osoak aurkitzea", zehaztu du AZEko Xabier Bengoak.

### Gotzainaren jatorria

San Juan Bataiatzailea parrokia zaharberritu zutenean, langileek sarkofago bat aurkitu zutela ikusi zuen herritar batek. Baina obrako zuzendariak ez zuen horri buruz ezer jakin nahi, eta lanak lehenbailehen amaitzeko eskatu zien langileei, sarkofagoa ikusi ez balute bezala. Hori ikusita, 2009ko uztailean, herritar horrek kexa bat helarazi zion Udalari, sarkofagoaren aurkikuntzarekin ezer egin ez zela ohartaraziz.



AZEko kide Bengoa eta Barrutiabengoa, iazko indusketetan. ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA



# Bertako eredu soziala nazioartean zabaltzera

Urriaren 1etik 3ra bitartean IV. Gizarte Ekonomiaren Mundu Mailako Foroa hartuko du Bilbok. Baina ez Bilbok bakarrik. Urriaren 3an eta 4an, kongresuko 300 partaide inguru Arrasatera etorriko dira, bertako gizarte ekonomia eredua ezagutzeko

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Datozen egunetan, Bilbok hartuko du bi urtean behin egiten den Gizarte Ekonomia Mundu Mailako Foroa, Montrealen testigua hartuta. Kongresua urriaren 1etik 3ra izango da, eta 80 herrialdetako 1.400 pertsonak hartuko dute parte. Baina Bilbon egingo den arren, mundu mailako foro horrek izango du islarik Debagoienean; zehatzago esateko, Arrasaten.

### Ehunka bisitari Arrasatera

Urriaren 3an eta 4an, kongresuko hainbat partaide Arrasatera etorriko dira, bertako gizarte ekonomia ezagutzeko lau bisita edo ibilaldi tematiko egitera. Eguaztenean egindako prentsaurrekoan, zein lau gairi buruzko ibilbideak izango diren azaldu zuen Maria Ubarretxena alkateak: "Lehena, herria eta balio kooperatiboak; bigarrena, kooperatiba industrialak; hirugarrena, hezkuntzako ibilbidea; eta laugarrena, ekonomia solidarioaren ibilbidea".

Bisitari kopurua mugatua izango da –300 pertsona, gehienez jota–, eta, Udaleko ordezkarien esanetan, ibilaldiek interesa piztu dute, plaza gehienak bete dira eta. Bisitarien %90 inguru atzerritarrak izango direla aurreikusten dute. Alkatearen esanetan, nazioarteko foro horretan tokikoari ematen zaio garrantzia, eta gaineratu du Arrasaterentzat aprobetxatu beharreko aukera dela.

"Aukera garrantzitsua da hemen daukaguna indartsua dela erakusteko, gai horri buruzko *kwow-how* [jakintza] handia dugulako eta erreferenteak izan gaitezkeelako. Arrasate mapan jartzeko eta egiten dugunari garrantzia emateko aukera da".

### Egitaraua, elkarlanean

Hainbat erakunde, enpresa eta eragilerekin elkarlanean prestatu du egitaraua Arrasateko Udalak, –tartean, Goiena Komunikazio Taldearekin– eta denei ere eskerrak eman gura izan dizkie alkateak parte-hartzeagatik.

### Erakusketa

Ibilaldiez gain, bestelakorik ere eskainiko zaie parte-hartzaileei: Arrasateko gizarte ekonomiaren ekosistema aurkezteko bideo bat ikusiko dute eta Kulturateko klaustroan erakusketa bat bisitatuko dute. Urriaren 8tik 28ra, gainera, herritar guztiendako zabalik egongo da erakusketa Kulturateko klaustroan. Horrez gain, *Arizmendiarrieta, el hombre cooperativo* dokumentala ere eskainiko diete herritarrei, Kulturaten, doan, urriaren 8an eta 9an.



Arrasateko ibilbideetan parte hartuko duten eragileak, eguaztenean. IMANOL SORIANO

## Buzkantzak, rocka eta aizkolariak izango dira Garagartzako jaietan

Gaurtik domekara, sanmigelak ospatuko dituzte Garagartzan, eta gaurko iluntzea rock-and-roll usainarekin dator, Buzkantza Rock-e barruan joko baitute Tokan2 La Polla, Delirium eta Libertad Condicional taldeek.

Zapatuan, besteak beste, Gorriti eta bere animaliak, primerako aizkora erakustaldia edo AZ Gaubelak-en disko festa izango dira ekintza nagusietakoak. Aizkora erakustaldian, Iker Vicente, Eneko Saralegi eta Ruben Saralegi arituko dira.

Domekan, aldiz, *nordic walking* ibilaldia, meza eta euskal dantzak izango dira. Ostean, vermouthaaren txanda izango da, eta, amaitzeko, auzo bazkaria egingo dute.

## Urriaren 20an Donostiara joateko dei egin du Sarek

Herri mugimenduko lagunek prentsaurrekoa egin zuten martitzen iluntzean. Bertan, Ines Osinagak eta John Anduezak hartu zuten hitza, eta egoera berri bat eraikitzeko herritarren bultzada beharrezkoa dela esan zuten. "Bakerantz eta elkarbizitzarantz" eramango duen aldaketa baten zain daude, baina, horretarako, indarrean dagoen espetxe politika aldatzea beharrezkoa dela adierazi zuten; giza eskubideak errespetatzeko eta presoen senideen sufrimendua amaitzeko.

Manifestaziora joateko autobusak antolatuko dituzte eta txartelak Irati tabernan erosi ahal izango dira.





Martiarena eta Torregarai, *Bakean dagoena, bakean utzi* bakarrizketa egiten. IDOIA TORREGARAI

# Egunerokoak, betaurreko "umoreetatik" ikusita

Emakume Txokoaren ikasturtea hasteko, 'Bakean dagoena, bakean utzi' bakarrizketa antolatu dute gaurko, 19:00etan, Kulturaten. Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena agertokira igoko dira, betaurreko moreak jantzita arrasatearrei barre eginaraztera

**Xabi Gorostidi** ARRASATE
Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena umorezale izatetik umoregile izateko saltoa egitera ausartu ziren duela urtebete. "Umorezalea betidanik izan naiz, txiki-txikitatik. Oraindik erreparoa ematen dit umoregile esate horrek, baina umoregile kontsideratu gaitezke, zer arraio! Batzuetan, emakumezkooi asko kostatzen zaigu horrelako karguak hartzea: 'ez dakit kapaz izango naizen...'. Baina umorean ere ahaldundu egin behar dugu, eta umoregile ere banaiz", azaldu du Idoia Torregaraik.

**Ametsetik erronkara**
Bere kasuan, aspaldiko amets bat erronka bihurtu zuen, 2017ko Euskararen Egunean lehen bakarrizketa egin zutenean Usurbilen. "Mirarik eta nik duela 13 urte ezagutzen dugu elkar, eta hasieratik konturatu ginen umorearen kontuan bat egiten genuela. Umore bikiak gara. Duela bost urte, Mirari Oiartzun irratian zegoenean, *Amapola morea* saiora gonbidatu ninduen elkarrizketa bat egitera. Saio horretan, aurreko gonbidatuak galdera bat uzten zuen hurrengoak erantzuteko. Eta nire kasuan, hau tokatu zitzaidan: 'Zer gelditzen zaizu egiteko?'. Hau izan zen nire erantzuna; 'Mirarirekin bakarrizketa bat egitea".

Lehen harria bota eta betebetean asmatu zutela ikusita, euren ikuskizuna herriz herri eramateko aukera aztertu zuten, eta jada hamabost ekitaldi egin dituzte martxotik hona. Batez ere, Gipuzkoan, baina baita Nafarroan eta Bizkaian ere, eta "harrera ona" izan dute. "Niretzako, opari bat izaten ari da. Energia berezi bat sortzen da saioetan, gure eta ikusleen artean. Azkenean, barrea erabiltzen dugu, bai, baina buruari eragiteko tresna bezala. Jendeak pentsa dezake emakumezkoei zuzendutako saioak direla, baina ez dira horrelakoak. Emakumezkoek eta gizonezkoek gozatzeko saioak dira. Agian, emakumezkoek gertuagoako erreferentzia izan dezakete, baina denentzako ikuskizuna da".

**DUELA BOST URTE EGINDAKO IRRATSAIO BATEAN EREIN ZUTEN BINAKAKO SAIO HORREN HAZIA**

**Betaurreko umoreak**
"Eguneroko bizitzan gertatzen zaizkigunak hartzen ditugu hizpide, baina betaurreko umoreak jantzita. Kasualitatez, biak emakumezkoak gara, eta gure ikuspegitik kontatzen ditugu gauzak. Adibidez, gorpuzkera, amatasuna, depilazioa... egunerokotasuneko gauza arruntekin egiten dugu umorea. Beste zutabe garrantzitsu bat euskara da, gure bizitzetan zentralitatea duen gaia delako. Euskaraz umorea egin eta jolastu egin daitekeela erakusteko beharra ere badugu".

## Kepa Errastik antzezten duen 'Txarriboda', domekan

Hika Teatroaren antzezlanak ezkontza basati bat du ardatz, Mireia eta Imanol ezkontideen artekoa. Eta euskal kantugintzako zenbait abesti darabiltza istorioak –oraingoak zein lehengoak–. Gainera, antzezlaneko aktoreen artean Kepa Errasti aretxabaletarra dago.

Hain zuzen ere, Agurtzane Intxaurraga zuzendariak idatzi du testua, aktoreen inprobisaziotik abiatuta. Eta umorearen, kabaretaren eta musikaren uztarketa da horren emaitza. Izan ere, harrera ona izan du lanak –Oreretan estreinatuta, hainbat herritan ere egon da ikusgai–.

Antzerki obra ikusi gura duenak 10 eurotan eskura dezake sarrera. Hitzordua, Amaia antzokian, domekan, 19:30ean. Antzerkia ekainean zen egitekoa Arrasaten, baina azken orduko arazo batzuengatik bertan behera gelditu zen.

EUSKARALDIA

## Arrasateko udalbatzak bat egin du Euskaraldiarekin

Arrasateko politikariak ekimenaren sustatzaile izango dira. Ekimena zabaltzea izango da euren egiinkizuna, *ahobizi* eta *belarriprest* aktibatzeko urratsak eginez. Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.

## Gaur gauean hiru zuzeneko emankizun gaztetxeko oholtzan

Rock-and-rolla gaztetxeko pareta artera itzuliko da gaur. Jaialdia 22:30ean hasiko da, eta sarrera hiru eurotan ezarri dute.

Shöck bilbotarrek euren lehen lana aurkeztuko dute, No Relax taldeko partaide ohi *Micky* buru dutela. EH Mertxe oiondarrek euren bigarren lana aurkeztuko dute; eta adi egon Txakurrak mondragoetarren zuzenekoari.

## Zigorrolako balkoiko lehen erromeria egingo dute bihar

09:00etan Ziar-ola elkartetik irten eta mendi bueltatxoa egingo dute. Izerdia bota ostean, hamarretakoa egingo dute, trikitilariek eta gaiteroek lagunduta. Horretarako, norberak etxetik zerbait eroatea gomendatzen dute antolatzaileek: ogitartekoa, fruitu lehorrak, fruta... Ostean, herrira jaitsiko dira triki-poteo elegantea egiteko.

## Literatur solasaldiak hiru hizkuntzatan, eta puntako gidariekin

Urrian hasi eta maiatzera arte Arrasateko Liburutegian euskarazko, ingelesezko eta gaztelerazko puntako literatur solasaldi egingo dituzte. Ingelesezkoak Olwen Mearsek koordinatuko ditu, eta lau izango dira. Euskaraz hiru saio izango dira, eta gazteleraz, aldiz, lau. Izen emateak urriaren 1etik aurrera 943 25 10 25 zenbakira deituta.

## Lore Gazteak taldeak parrilada egingo du bihar arratsaldean

Arrasateko Lore Gazteak dantza taldeak parrilada antolatu du Herriko Plazan biharko, zapatua. Saiheski goxoa erreko dute parrilan. 19:00etatik aurrera, pintxoak eta ardoa eskainiko dituzte, bertara doazen herritarren gozamenerako.

Ardoa eta saiheski-pintxoa bi euro eta erdiren truke eskuratu ahalko dira.

## Taillan lehen urratsak egiteko ikastaroa: izen-ematea zabalik

Urtero legez, Arrasateko taillagileen elkarteak hastapen ikastaroa antolatu du. Urriaren 8an hasiko da eta 30 ordu iraungo du. Astean hiru saio egingo dituzte, ordu eta erdiko iraupenarekin. Nafarroa etorbideko 33an duten tailerrean –ospitale parean– emango dituzte saioak. Izena emateko, deitu 620 17 42 55 zenbakira.



100
EUSKARA EHUNTZEN
euskaltzaindia

# MENDE BERRIA KANTUZ

**ARANTZAZU** (OÑATI)
**Urriak 5, 19:30**

KORU EMANALDIA

**Donostiako Orfeoi Gaztea**
**+**
**Bilboko Koral Elkarteko Euskeria korua**
**+**
**Lauko Quartet**

## Lortu bi lagunendako gonbidapenak

*Mende Berria Kantuz* ikuskizunerako 200 gonbidapen ditugu.

**Oñati | Arantzazu | Urriaren 5ean | 19:30ean**

**PARTE HARTZEKO: URRIAREN 3RA ARTE**
**Posta elektronikoz:** *kluba@goiena.eus* **Whatsapp:** KLUBA "*Mende Berria Kantuz*" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Antolatzaileak:

EUSKALTZAINDIA

Bilboko Koral Elkartea
Sociedad Coral de Bilbao

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Autoa plazan aparkatuta. JULEN IRIONDO

# Isunak jarriko dituzte autoa gaizki uzteagatik

Goienako 'Harira' saioan izan da Lierni Altuna, eta azaldu du hartutako neurriak ez direla eraginkorrak izan eta ez zaiela "beste biderik" geratzen. Gainerakoan, eguraldia lagun, ur parkea datozen egunetan estreinatzeko asmoa agertu du

**Julen Iriondo** ARAMAIOI

Agintaldiko azken ikasturtea hasi berritan, maiatzerako bideratuta utzi nahiko lituzketen gauzei buruz galdetuta, musika etxearen proiektua aipatu zuen alkateak; datorren urterako diru laguntza jaso dutela-eta, aurrekontuetan jasota geratzea nahi dute: "Proiektua egiten badabil enpresa bat. Aurkeztutakoan, aztertuko dugu aldaketarik egin behar den edo ez, eta gero, Aldundira eraman behar dugu, ontzat eman eta 2019an egin ahal izateko".

Leku bat egokitu nahi dute musika eskolak, trikitikoak, kantu tailerrak eta abar egiteko: "Batzuk eskolan ibiltzen dira, beste batzuk kultur etxean… Leku egoki baten biltzea nahi dugu, eta aukerak eta hartuemanak ere sor daitezke horrela".

Estreinatzear dagoena beste azpiegitura bat da, ur parkea; alkateak baieztatu zuen aurten bertan erabili ahalko dutela, egun gutxi batzuetan, sikiera, eguraldiaren arabera. Hortik aurrera, egutegi, ordutegi eta gainerakoak erabiltzaileekin adostuko dituzte: "Guraso elkartekoekin eta eskolakoekin-eta hitz egin beharko dugu".

Ur parkearen beste ertzean, parke txikian inbertsioa egitea ere aurtengo dute aurreikusita: "Olgeta eta Hiritik At enpresekin prozesu parte-hartzailea egin genuen, eta azken detaileekin dabiltza, ea datorren astean aurkezten diguten emaitza, herrira aurkeztu ahal izateko gero". Horren araberakoa izango da berritzea; alkateak zioen, dena den, agintaldi honetan ez dutela aldaketa denak egiterik izango, poliki-poliki joango direla.

**ALKATEAK EZ ZUEN ARGITU HURRENGO HAUTESKUNDEETAN HAUTAGAI IZANGO DEN BERRIZ ERE**

### Ertzaintzarekin egotekoak

Autoak gaizki aparkatzearekin dagoen arazoari dagokionez, Altunak zioen marra horiak-eta margotu arren, gaizki aparkatzen zuenak gaizki aparkatzen jarraitzen duela. "Ertzaintzarekin hitz egitea tokatzen zaigu dagoeneko", zioen, "ez dago beste biderik". Isunekin hasi behar dutenean abisatu egingo dutela adierazi zuen, baina agintaldi honetan izango dela baieztatu. Kexa asko iristen dira udaletxera: "Plazan ezin da aparkatu, adibidez, eta, askotan, autoz beteta egoten da".

Urtea amaitu aurretik martxan jarri nahi duten beste bat Ibarrako bigarren auzo konpostgunea izango da.

Eta maiatzean, berriz ere, udal hauteskundeak. EH Bilduren zerrenda buruan atzera ere egongo ote den galdetuta, ez zuen baieztatu Lierni Altunak, baina ezta ezeztatu ere: "Proposamena heltzen bada, proposamenaren arabera pentsatuko dut", adierazi zuen.

## San Migel jaiak ospatuko dituzte asteburuan Etxaguenen

Bertso afaria, musika, puzgarriak, sokamuturra eta erretiratuentzako luntxa izango dira, besteak beste

**J.I.** ARAMAIO

Gaur, barikua, hasiko dira auzoko jaiak. 19:00etan ikurrina igo eta etxafuegoak botako dituzte. Bertso afaria izango da gero, Iker Zubeldia eta Aitor Sarriegirekin, Beñat Ugartetxeak gaiak jarrita. Afalostean, opari ezkutuaren zozketa izango da.

Zapatuan emango diote jarraipena festari. 10:00etan kanpai errepikekin hasi, eta eguerdian meza izango da. 13:00etan ekingo diote DJak alaitutako txikiteoari, eta 17:00etan mus txapelketari. Ume eta gaztetxoentzako ekintzak, gero: 17:30ean, puzgarriak; 18:00etan, umeentzako bolo txapelketa; eta 19:30ean, sokamuturra, Etxango Zezenen eskutik. 22:30etatik aurrerakoak, DJ Landerren kontu: berak jarriko dio musika gauari.

Domekan, zapatuko berdinak jasotzen ditu egitarauak hasteko. 12:30ean, erretiratuentzako luntxa izango da, trikitilariekin; 13:00etan, bolo txapelketa; 17:00etan, briskakoa; eta 17:30ean, umeentzako jolasak eta puzgarriak, eta txokolate-jana ondoren. 19:00etan amaituko dituzte jaiak, sokamuturrarekin.



Trikitilariak eta puzgarriak. XABI GOROSTIDI

## Gluteoak, hankak eta abdominalak lantzeko ikastaroa hastear da

Indarra hartzeko eta giharren erresistentziarako ariketak izango dira, bereziki ipurmasailetara, abdominaletara eta hanketara zuzenduta. Astelehenetan egin daiteke –60 euro–, edo astelehen eta eguaztenetan –120 euro–; biak izango dira 18:15ean. Urriaren 8an hasi eta ekainera arte izango da ikastaroa. Izena, urriaren 4ra arte, udaletxean.

## Martxa onean hasi da Euskaraldirako izen-ematea herrian

Irailaren 20an ireki zuten Euskaraldian izena emateko epea, eta aurreko domekako Sagardo Egunean egon zen apuntatzeko aukera. 50 aramaioarrek eman zuten izena, eta beste 30 pertsonak eskatu zuten informazioa. Liburutegian eta udaletxean daude eskuragarri eskuorriak. Internetez izena emateko: *Izenematea.euskaraldia.eus*.

## Lagun Artean dantza talderako izena eman daiteke egunotan

Astean hasi dute ikasturte berria. Eguenetan eta barikuetan izango dira entseguak, adinka banatuta. Umeen izen-ematea eskolaren bitartez egin dute, eta gainerakoek 687 64 32 77 zenbakira –Izaro– deituta dute aukera. Helduen taldea gaur da hastekoa entseguekin, 18:30ean kiroldegiko aretoan –interesa duena ager dadila bertan–.

## Autobusa dela-eta kexa aurkeztu du Udalak Aldundian

Geltoki inguruan bizi diren zenbait bizilagun kexatu egin ziren, autobusa motorra martxan duela denbora luzez egoten delako, sarri, biribilgunean geldi. Horrez gain, batzuetan Nardeaga kaletik ere pasatzen da autobusa, nahiz eta adostuta egon beti beheko sarrera erabiltzea. Aldundiari eman dio Udalak hobetu beharreko hauen berri.

EUSKARALDIA

# Euskaraldiaren motorrak hasi dira berotzen

Izena emateko epea zabalik dago, eta gaur, mahaia jarriko dute horretarako. Bihar, zapatua, 24 orduko proba egitera gonbidatuko dituzte herritarrak; pegatina paparrean jarri eta 'ahobizi' eta 'belarriprest' izateko aukera dute aretxabaletarrek

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Gainerako herrietan lez, Euskaraldian izena emateko epea irailaren 20a ezkero dago zabalik. Aretxabaletan lau gune zehaztu dituzte horretarako: Arkupe, Ibarra kiroldegia, udaletxea eta Loramendi elkartea. Online ere egin daiteke, eta Loramendi elkarteko kideek jakinarazi dute, hain zuzen, azken bide hori dabiltzala erabiltzen herritar gehienak: "Gure bulegora ere badator jendea; nagusiak, batez ere. Ateak zabalik ditugu, argibideak emateko edonori eta izen-emate orriak hartzeko", dio Lierni Zangituk.

Hori errazteko, gaur, egubakoitza, Durana kalean, herritarrengandik gertuan, mahai bat jarriko dute (19:30-20:30). "Nagusiak eta helduak bakarrik ez, gazteak ere animatu. Euskaraldiak guztiok behar gaitu eta!", adierazi du Zangituk.

**Atxikimenduak jasotzen**

Izen-ematearekin batera atxikimenduak jasotzen dabil Euskaraldia. Hala, UDAko talde gehienek eman diote babesa, baita ikastetxeek ere; Kurtzebarri eskolakoek, esaterako. Lekaixoka bertso eskolako kideek ere bat egin dute. Horien atzetik beste mordoa etorriko direla argi dute horren bueltan dabiltzan antolatzaileek.

Herriko enpresei, merkatariei eta ostalariei ere eskatu diete atxikimendua, eta hori jasotzen dabiltza egunotan. Horrez gain, hainbat bideo ekoiztu dituzte herriko merkatariekin, *ahobizi*-ak eta *belarriprest*-ak zer diren jakin dezaten herritarrek, eta sare sozialen bitartez zabaltzen dabiltza.

**24 orduko probak**

"Herritarrek, orokorrean, harrera ona egin diote Euskaraldiari, baina askok oraindik ez dute garbi zer den hori", dio Zangituk, eta gaineratu du: "Horregatik, 24 orduko proba bat egingo dugu bihar, zapatua". Proba egiteko gertu daudenek Pagaldaixena inguruan jarritako mahaian izena eman eta pegatinak jasoko dituzte: *ahobizi* eta *belarriprest* direla identifikatzeko pegatinak, hain zuzen ere. Eta behin pegatinak paparrean jarrita, rol hori beteko dute 24 orduz: "Azaroaren 24tik abenduaren 3a arte egingo den horren entrenamendua izango da. Geure hizkuntza ohituren gainean hausnarketa egiteko lehenengo probatxoa".

Hau guztia hasiera besterik ez da. Izan ere, azaroaren 24ra bitartean beste ekintza asko egingo dituztela jakinarazi dute Euskaraldiaren bueltan Aretxabaletan lanean dabiltzan Loramendiko kideek.



UDAko zuzendaritza batzordeko kideak. UDA



Kurtzebarri eskolako neska-mutikoak. KURTZEBARRI ESKOLA



Lekaixoka bertso eskolako kideak. LEKAIXOKA


M.A.

## Hasi dituzte ibai alboko lanak

Egunotan hasi dituzte Deba ibaiaren alboko pasealekuaren lanak. Garbitze eta txukuntze lanak egin ondoren helduko diote obrari; hau da, 62 metro luzatu orain dagoen pasealekua Markole auzoarekin bat egin arte eta aireko argindar sarea lurperatu.

Construcciones Legasko SL enpresa dabil horretan eta lau hilabete inguru iraungo dute lanok, ondo bidean. 187.619 euroko kostua dute eta Foru Aldundiaren diru laguntza jaso dute horretarako, 20.000 euro inguru.


MIRARI ALTUBE

## Gazta kontuetan adituak

Felix Ajuria artzain eta gaztagilearen azalpenak adi-adi entzun eta Idiazabalgo gaztak probatu dituzte erretiratuek astean, Kultura Astearen barruan. Gaur, egubakoitza, ibilalditxoa egingo dute Atxabalta Mugiren babesean, eta arratsaldean (17:30) txokolate-jana izango dute elkartean bertan, San Migel jaiei hasiera emateko.

# Balkoietatik ere bota daitezke bertsoak

Sebastian Lizaso eta Jon Maia bertsolariek balkoitik balkoira emanaldia eskainiko dute, San Migel jaien barruan, bihar, zapatua, Durana kalean; Lekaixoka bertso eskolako kideek bertsotan egiteko formatu hori berreskuratu gura izan dute

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Balkoitik balkoirako formatua berreskuratu gura izan du Lekaixoka bertso eskolak sanmigeletan. Eta aurkezpenik behar ez duten bertsolari bi gonbidatu ditu horretarako: Jon Maia (Urretxu, 1972) eta Sebastian Lizaso (Azpeitia, 1958). Durana kale hasieran –Pagaldaixenetik gertu–, azokaren zalaparta baretze aldera, jardungo dute bata besteari bertsotan (12:30).



Sebastian Lizaso bertsotan. BERTSOA.EUS

**Azokaren erdigunean**
"Beste herri batzuetan jarduten dute balkoitik balkoira eta gurean ere, sasoi baten, antolatzen ziren halakoak; nik, behintzat, gogoan dut gaztetxotan ikusi izana", dio Martin Berrizbeitiak, Lekaixoka bertso eskolako kideak. Hala, horren aldeko apustua egin dute aurten, zerbait diferentea eskaintze aldera: "Ez dakigu zelan aterako den. Izan ere, ordu horretan, eguerdian, eta gune horretan, Durana kalean, nahikoa joan-etorri eta zalaparta izango da azoka dela eta. Indar handiko megafonoak eskatu ditugu, ondo entzuteko, baina ikusi egin behar… Proba bat izango da; ondo ateraz gero, datorren urtean errepikatu egingo genuke".

**Jaietan eskarmentudunak**
Jai giroan bertsotan ondo moldatzen diren bi bertsolari hautatu dituztela ere gaineratu du Berrizbeitiak: "Librean kantatuko dute, eta jaien bueltan eskarmentu handia dute biek ala biek. Era berean, ezagunak izan zitezen ere gura genuen, jende gehiago erakartzeko, eta uste dut lortuko dugula. Saio polita izango delakoan gaude". Horregatik, herritarrak gerturatzera gonbidatu gura ditu: "Formatu honen abantaila da ez dagoela zertan osorik ikusi, ez da saio bat, une batean balkoi azpian geratu eta gozatzea da kontua".

## Eskolaren ikasturtea hastear da

Datorren eguaztenean, urriaren 3an, emango dio hasiera ikasturteari Lekaixoka bertso eskolak. Dagoeneko bederatzi bat lagun daude helduen taldean –16 urtetik gorakoak– eta aurten, Ane Zuazubiskar bertsolari arrasatearra izango dute irakasle. Eguaztenetan elkartuko dira horiek, udaletxe zaharrean (19:00), hortaz, gerturatu bertara argibideak gura izanez gero.

Umeen eta gaztetxoen bertso eskolaren deialdirik ez dute egin oraindik. Urrian zehar joango dira proiektuaren berri ematera ikastetxeetara.

Talde batean zein bestean sartu gura izanez gero ateak zabal-zabalik dituzte Lekaixokakoek.

## Jaioberrientzat bertso liburua, aurten ere bai

2017an jaiotako umeei eskainitako bertsoak eta horien argazkiak jasoko dituzte bertso-liburuan Lekaixokako kideek. Liburuan agertzeko epea irailaren 30ean, domekan, bukatuko da; hortaz, interesa izanez gero lehenbailehen jakinarazi. Honako datu hauek eman behar dira: umearen izena, abizenak eta jaioteguna; guraso edo tutoreen izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakiak eta helbidea; umearen bi argazki; eta umearen deskribapen laburra: izaera, berezitasunak, familia-kideak… Datuak posta elektronikoz bidal daitezke, *lekaixoka@gmail.com* helbidera, edo Arkupeko harreran utzi –CDa edo USBa–.



Kurtzebarri eskolaren aurrealdea. MIRARI ALTUBE

# Kurtzebarri eskola margotzeko lehiaketa gaur itxiko dute

Hain zuzen ere, Gu Haziak Gara elkarteak eskolaren lau paretak margotuko ditu irabazlearen irudiarekin

**M.A.** ARETXABALETA
*Inguruko natura* gai izango duten irudiak eskatu ditu Gu Haziak Gara elkarteak Kurtzebarri eskolaren lau hormak margotzeko. Lehiaketa bidez hautatuko dute irudi hori, eta gaur bukatzen da bozetoak aurkezteko epea. "Dagoeneko bi jaso ditugu eta beste bi ere bidaliko dizkigutela jakinarazi digute", adierazi du Paloma Martinezek, elkarteko ordezkariak.

Lehenengo hautaketa epaimahai batek egingo du. Hautatutako horiek ikusgai jarriko dituzte gero, eta irabazlea herritarrek aukeratuko dute boto bidez.

**Edoskitzearen gaineko murala**
Hori baino lehen, Errekabarren kalean dagoen tuneleko horma margotuko dute; datorren martitzenean, hain zuzen ere. Osasun etxean elkartzen den edoskitze taldeko kideen proposamena izan da, urriko lehen astea Bularra Ematearen Mundu Astea dela eta. Goiz partean, zirriborroa egingo dute Izaro Sanchezek artistak gidatuta, eta arratsaldean margotzea da asmoa; herritarrak gonbidatuta daude bertara.

## Literatura solasaldiak, urritik abendura, liburutegiaren eskutik

Literatura solasaldiak antolatu ditu Udal Liburutegiak eta urrian hasi eta abendura bitartean hiru izango dira. Horietan izena emateko epea egubakoitzean, hilaren 28an, bukatuko da. Horretarako, liburutegira bertara jo daiteke, telefonoz deitu Arkupera (943 08 10 01) edo mezu bat bidali: *liburutegia@aretxabaleta.eus*.

Lehenengo solasaldia euskaraz izango da. Urriaren 30ean egingo dute (19:00), udaletxe zaharrean, eta Itziar Gomez idazle eta gidoilariak gidatuko du.

Hurrengo bi solasaldiak Ivan Repila idazleak gidatuko ditu, gazteleraz, eta azaroaren 13an eta abenduaren 11n izango dira (18:00), Arkupen.

## OHARRAK

### Argazki erakusketa
Josune Murgoitio arrasatear idazle eta ikertzailearen *Margotutako Hormak-Paredes Pintadas* argazki erakusketa zabalduko dute urriaren 5ean Arkupe kultura etxean (18:30).

### Odol ateratzeak
Odol ateratzeak egingo dituzte urriko hiru astelehenetan: 15, 22, 29. Durana kalean, Herriko Plaza barrenean, izango da autobusa (16:45-20:00).

### Zirku ikastaroak
Biribil zirku eskolak ikastaroak eskainiko ditu. Bi talde osatuko dira: bata, 6-13 urte bitartekoentzat; bestea, 14 urtetik gorakoentzat. Izena Arkupen eman behar da.


Martitzenean hasi zituzten lanak Apotzagara doan bide ondoan. IMANOL BELOKI

# Apotzagako zubibidearen drainatze obrak, abian

Irailaren 9an, ur asko pilatu zen Intxaurtxuetan, euri asko egin zuen eta. Hala, hemendik aurrera errepidean hainbeste ur ez pilatzeko egingo ditu lanak Bidegik. Martitzenean hasi ziren, eta bi aste iraungo dutela aurreikusten dute

**Imanol Beloki** ESKORIATZA
Bidegi foru elkarteak martitzen honetan hasi ditu Eskoriatzan AP-1eko Apotzaga zubibidearen drainatze sistema egokitzeko eta hobetzeko lanak. Aurrekontua 9.000 euro gehi BEZa da, eta lanek bi aste inguruko iraupena izango dutela aurreikusten dute.

Kanalizazioa egokitu egingo da, honela, ur-isurketaren indarra baretzeko eta euri handiko egunetan gainezka egitea eta lokatza eta harriak errepideraino ailegatzea saihestuz. "Aspaldiko kontua da. Euri asko egitean, Intxaurtxueta eta San Pedrora ur asko iristen da. Hori horrela, Bidegirekin harremanetan jarri ginen, eta, lanak amaitzean, egoera hobetu egingo delakoan gaude. Zehetasun zehatzik ez daukagu, baina asmoa arketa berri bat jartzea da, hala, azkar jaisten den ura sarera bideratzeko", adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Mugikortasun eta Hirigintzako batzordeburuak.

**Aurrekariak saiheste aldera**
Irailaren 9an, ekaitzak euri-jasa gogorrak ekarri zituen ibarreko herrietara, eta, zenbait kasutan, zirkulazioa oztopatu zuten. Eskoriatzan, esaterako, herriko sarbidean, Intxaurtxuetan ur asko pilatu zen, Apotzaga auzotik behera jausi zen urarengatik. Hala, aurrera begira hainbeste ur pilatu ez dadin egingo dituzte lanok. "Domeka hartan, lehenbailehen jarri ginen lanean udal langileak, eta baita Diputazioko langileak ere, eta, zorionez, gertatutakoa segituan konpondu ahal izan genuen, ura kendu, eta errepidea garbituz. Hala, Apotzagako zubibideko lanak amaitzen dituztenean gauzak hobetu egingo direlakoan gaude. Hala ere, ea nolako negua egiten digun", adierazi du Ezkurdiak.

**KANALIZAZIOA EGOKITU EGINGO DUTE, UR ISURKETAREN INDARRA BARETZEKO ASMOZ**

**Bidegorri zatiko puntu beltza**
Apotzagako puntu horrez gain, Eskoriatzatik Aretxabaletarainoko bidean ere hainbat lur-jausi izan dira, euri asko egin izan duenean. Hori horrela, Eskoriatzan egin duten azken lana Intxaurtxuetako zubiaren eta Olazarreko tunelaren arteko bidegorri zatikoa izan da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak horma egonkortzeko lanak egin ditu bertan. Hormigoizko blokeak jarri zituzten, eta ezpondari eusteko horma ere jarrita, bertatik pasatzen direnen segurtasuna bermatzen dute horrela. "Bidegorriko zati horretan, Apotzagan dugun arazo bera genuen. Eskoriatza eta Aretxabaletako eremuan mendia behera erortzen zen euria egitean, eta, lanak amaitzeko pixka bat falta den arren, eremu hori ere oso ondo utzi dute".


Iaz, Joserra Zubizarreta alkatea, Elena San Vicenteri lore sorta ematen. GOIENA

## Erretiratuak omenduko dituzte Eskoriatzako udal ordezkariek

Bazkaria 14:00etan izango dute, Joseba Iñurrategi pilotalekuan, eta nagusienak omenduko dituzte bertan

**I.B** ESKORIATZA
Eskoriatzako Udalak antolatuta, 65 urtetik gorako erretiratuek omenaldia jasoko dute domeka honetan, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Urteroko ohiturari jarraituz, bazkaritarako batuko dira, eta, hain zuzen, udal ordezkariek nagusienei opariak banatuko dizkie.

Goizean, 11:00etan, erretiratuen etxean salda hartuaz hasiko dute eguna. Ondoren, meza izango dute, San Pedro parrokian, 12:30ean, eta 14:00etan, Joseba Iñurrategi pilotalekura joango dira, Udalak eskainitako bazkariarekin gozatzeko. Bazkalostean, udal ordezkariek bazkaritara joango diren nagusienak omenduko dituzte: Elena San Vicente, 96 urteko emakumea; eta Pablo Gamboa, 100 urteko gizonezkoa.

**Zozketa, batzen direnen artean**
Guztira, 171 erretiratu batuko dira bazkarian, Olazar elkarteko sei eta Udaleko bost ordezkarirekin batera. Hala, opari eta oroigarri batzuk zozketatuko dituzte 171 pertsona horien artean, eta, amaitzeko, dantzaldia izango dute.


ALH

## Ibilgailu elektrikoarekin, gustura

Bigarren eskuko bizikleta azoka eta Aretxabaleta Lanbide Eskolakoek eskainitako ibilgailu elektrikoen erakustaldia, Eskoriatza-Arrasate-Eskoriatza bizikleta martxa, patinaje ikastaroak eta bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroa izan dira, besteak beste, Eskoriatzako Mugikortasun Astearen barruan egin diren ekintzak.




Hankamotx bertso-eskolako ikasleek ikasturte amaierako festa egin zuten maiatzean. JAGOBA DOMINGO

# Bertso-eskola prest dago aurtengo ikasturterako

Eskoriatzako Hankamotx bertso-eskolan, bertsolaritza lantzeaz gain, beste hainbat balio lantzeari ematen diote garrantzia: ondo pasatzeari, sormena lantzeari eta, norbanako bakoitzaren erronkak betetzeaz batera, talde-lanean jarduteari

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Hankamotx bertso-eskolak ateak zabalduko ditu, beste urte batez, eta, doinu, errima eta teknika ezberdinak ikasi nahi dituenarentzat, izen-ematea irekita dago.

Hain zuzen ere, 9 urtetik gorako edozeinentzat dira eskolak, bertako irakasle diren Oihana eta Haizea Arana bertsolarien gidaritzapean. Taldeak antolatzeko, egunak eta ordutegiak, ikasleen eta irakasleen artean adostuko dituzte. Horrenbestez, interesa duen edonork eman dezake izena bertso-eskolan, eta, ondoren, taldearen ezaugarrien arabera antolatuko dituzte saioak.

**Bertsoak baino gehiago**

2013an sortu zen Eskoriatzako Hankamotx bertso-eskola, eta urtero osatu ahal izan dute taldea. Bertsotan egiten ikasteko lekua da, baina hori baino gehiago ere bada: gaitasun ugari trebatu eta hitzarekin gozatzeko aukera eskaintzen du, argudioak lantzen ikasten da, esan beharrekoa antolatzen, neurri zehatzean sartzen, doinuari egokitzen eta, gainera, jendarte interesgarria ezagutzeko eta euskaraz bizi eta harekin jolasteko aukera eskaintzen du.

**9 urtetik gorakoentzat**

Nagusien taldeak eman zituen lehenengo pausoak Eskoriatzan, baina, azken urteotan, gaztetxoen taldea bakarrik izan da. Iaz, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako talde bat –11 eta 12 urtekoak– eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako –13 eta 14 urte bitartekoak– beste talde bat izan ziren, eta aurten ere dinamika bera jarraitu nahi dute. Honela adierazi du Haizea Arana irakasleak: "Laugarren mailan hasten dira bertsolaritza lantzen ikastolan, eta horregatik ezarri dugu 9 urtetik gorakoei zuzenduta egongo direla eskolak. Iaz moduan, adin horien bueltako taldeak sortzea aurreikusten dugu, baina helduen taldea ere irtenez gero egingo genuke aurrera... Orain arte, gustura izan ditugu ikasleak, eta, beraz, gonbidapena egiten diegu herritarrei Hankamotx bertso-eskolan izena eman eta ezagutarazteko".

**Aurtengo helburuak**

Hankamotx bertso-eskolaren helburua ez da bertsoak egiten ikastea bakarrik; bertara doazenei beste hainbat balio helaraziko dizkietela adierazi du Haizea Aranak: "Bertsolaritzara gerturatu nahi dugu jendea. Norbanako bakoitzaren helburuak betetzeaz gain, talde lanean jardutea eta, bereziki, ondo pasatzea eta sormena lantzea izango litzateke helburu nagusia".

**Hitzordu finkoak**

Taldea osatu barik eta egutegia oraindik finkatu barik duten arren, urteroko hitzorduak egingo dituzte: kurtso hasierako jaialdia urriaren 26an izango da; ikasturtean zehar, berriz, bailara mailako bertso-merienda egingo dute. Urtero bertso-eskola ezberdin batek antolatzen du, eta mokadutxo bat janez bertso-saioa eskaintzen dute ikasleek eta irakasleek. Horrez gain, ikasturtean zehar bertso-eskolan izan diren ikasleek urte amaierako jaialdia eskainiko dute.

**Izen-ematea eta informazioa**

Bertso-eskolaren gaineko informazio gehiago nahi duenak edo izena eman nahi duenak *hankamotx@gmail.com* helbidera idatzi edo Eskoriatzako kultura etxera 943 71 46 88 telefonora deitu dezake.

**9 URTETIK GORAKOEK EMAN AHAL IZANGO DUTE IZENA, HANKAMOTX BERTSO-ESKOLAN**

GORA ETA BEHERA

## Ermitako maketa berritu egin dute

Nuria Fernandez eta Mikel Isasmendi eskoriatzarrek Atxorrotxeko Gurutze Santuaren ermitako maketa berritu egin dute. Urteetan apurtuta egon da, eta, maketaren teilatua konponduta, nahi duenak bere desioak, ipuinak edo nahi duena bertan sartzeko aukera izango du.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**
*berriak@goiena.eus*



ATXORROTX KULTURA ELKARTEA

EUSKARALDIA

## Euskaraldia merkatariei eta ostalariei gerturatzeko asmoa

'Ahobizi' eta 'belarriprest' jokatzeko mezua helarazteko lau bideo grabatu dituzte Eskoriatza eta Aretxabaletan

**I.B** ESKORIATZA

Euskaraldiaren bueltan, lau bideo grabatu dituzte Eskoriatzako eta Aretxabaletako batzordekideek, Huheziko Ikus-entzunezko Komunikazio ikasleekin batera. Euskaraldia eta merkataritza eta ostalaritza batzen dituzten bideoak dira. Astelehenean, lehenengo bideoa publikatu zuten, eta datozen egunotan esekiko dituzte hurrengoak, sarean.

Bi bideo Aretxabaletan grabatutakoak dira eta beste bi, berriz, Eskoriatzan. Ekainean grabatu zituzten, eta erosketak egiterakoan *ahobizi* eta *belarriprest* izateko mezua helaraztea da hauen asmoa. Lehenengo esketxa Aretxabaletako Hankabeltzen grabatutakoa da.

**Informazio mahaiak, plazan**

Pasa den eguenean, plazan jarri zuten informazio mahaia, eta bertan, Euskaraldian izena emateko aukera izan zen. Gainera, izena eman zutenei giltzatakoak oparitu zizkieten. Hemendik aurrera ere jarriko dituzte mahaiak, ziur aski, hainbat eguenetan, baina aurrez jakinaraziko dute.

# Egia eta justizia eskatu dute EskoZap elkartekoek

2014ko irailaren 26an, 43 ikasle normalista desagertu ziren Ayotzinapan, Mexikon. Ikerketa ez zela behar bezala egin eta frogak ezkutatu egin zituztela adierazi izan dute ikasleen familiarrek, eta, horren bueltan, elkarretaratzea izan da Eskoriatzan



Eguazteneko elkarretaratzea. OIHANA IRAZU

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eguazten honetan bete dira lau urte Ayotzinapako (Mexiko) eskola normalistako 43 ikasle desagertu zirenetik. Gertatutakoa salatzeko, kasua argitzeko eskatzeko, ezkutukeriak alde batera uzteko eta desagertuta daudenen familiei elkartasuna adierazteko, EskoZap taldeko kideek antolatuta elkarretaratzea egin zuten Fernando Eskoriatza plazan.

2014ko irailaren 26an, 43 gazte desagertu ziren Iguala hirian, denak gau berean, Mexikoko hego-mendebaldean dagoen hiri handi baten erdian. Inork ez zuen ezer ikusi, baina frogak ezkutatu zirela eta ez zela behar bezala ikertu adierazten dute desagertutako gazteen familiarrek. Hala, desagertutakoak bizirik ote dauden, hil egin zituzten edota gorpuak erre ote zituzten argitzeke dago. Presio sozial handia izan du kasuak gertatu zenetik, eta mundu osora zabaldu da. Gainera, erakundeek eta alderdiek egoerari erantzuteko erakutsitako gaitasunik eza agerian geratu da. Honela adierazi du Oihana Irazuk, EskoZap elkarteko kideak: "Lau urte pasa dira ikasleen desagerpena gertatu zenetik, egia eta justizia eskatzeko, kalera atera genituen desagertutako 43 ikasleen argazkiak, eguaztenean". *Egia eta justizia nahi dugu* lelopean atera ziren Eskoriatzako plazara EskoZap elkartekoak, hala, ikasleen familiakoei elkartasuna adierazteko asmoz.

**Ayotzinapakoak gogoan**

Iaz egindako elkarretaratzean, 43 aulki jarri zituzten herriko plazan, eta aulki bakoitzean kandela bat eta desagertutako ikasleen argazki bana jarri zuten protesta gisa. Aste Zapatistaren barruan, bestalde, bideo konferentzia egin zuten *skype* bidez, desagertutako ikasle baten guraso batekin, bertan gertatutakoa herritarrei helarazteko asmoz. Aurten ere, Aste Zapatistaren barruan Ayotzinapako ikasleak gogora ekarriko dituztela adierazi dute EskoZap-ekoek.



IMANOL SORIANO

## Apotzagan behera gurutzatuz

Pasa den zapatuan izan zen Eskoriatzako VI. Goitibehera Lasterketa. Aurreko edizio guztietan moduan, Apotzagatik Intxaurtxueta auzoraino kilometro eta 400 metroko jaitsiera egin behar izan zuten 70 parte-hartzaileek.

Eskoitzako Goitibehera Zaleak taldeko antolatzaileak pozik agertu ziren egunak emandakoarekin, eta, sustoren bat izan bazen ere, ez zen istripu larririk izan. Hala, bizkorrenak pneumatika modalitatean jardun zuten Markez anaiak izan ziren.

# LEINTZ GATZAGA



Euskal Selekzioaren aldeko taldea, Gatzagan. MIREN DIAZ DE GEREÑU

## Euskal Selekzioaren aldeko taldea Gatzaga bisitatzen izan da

Gatzagako Gatz Museoa eta Dorletako santutegia bisitatzeko aprobetxatu zuten bertaratu zirenek

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Euskal Selekzioaren aldeko mendi martxako kideak bisitan izan ziren pasa den domekan Gatzagan.

Kirol arlo guztietan Euskal Herriko selekzioen ofizialtasuna aldarrikatu eta nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzeko eskubidea defendatzen duten taldekoek, urtero, abuztuan, mendi martxa egiten dute zortzi egunez. Aurten, Deikaztelutik Agoitzera egin dute, eta ostean, azken 17 urteetan moduan, topaketa bat egiten dute. Hala, aurten, hemezortzigarren edizioan, Eskoriatza izan da topaketa egiteko aukeratu duten herria, baina Gatzaga bisitatzeko ere aprobetxatu dute.

**Eskoriatza eta Gatzaga bisitan**

Domekan, Atxorrotxera joan ziren Eskoriatzatik. Gero, Gatzagako Gatz Museoa bisitatzeaz gainera, Dorletako Santutegian ere izan ziren, Eugenio Otxoaren azalpenak entzuten. Ondoren, Eskoriatzara jaitsi ziren, eta han, Euskal Selekzioaren aldeko mugimenduaren gaur egungo egoeraren informazioa eman zuten, kultura etxean.



GATZ MUSEOA

## Arkamunen postontzia jarri dute

Pasa den domekan, irailaren 23an, postontzia jarri zuten, auzolanean, Arkamuneko mugan. Leintz Gatzaga, Burgelu eta Barrundia udalak batzen dituen puntura udalerri bakoitzeko hainbat herritar joan ziren. 10:00etan, Marietatik irten ziren, eta 12:00etan jarri zuten postontzia. Lanaren ostean, mokadutxoa jan zuten han bertan.

# SANMIGELAK 2018





- Nagusien danborrada
- Egitaraua
- Txosnetako egitaraua
- Jaietan, zer?
- Sanmigeletako bertso saioa
- Herri Eguna
- Abentura parkea
- Trialsina
- Euskaltzaindiaren gaineko antzerkia
- Argazki erakusketa
- Alex Sarduiri elkarrizketa
- The Mani-las



ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO

gelatzu s.l.
ONDO PASAU SANMIGELAK!
Zubillaga auzoa 1 - OÑATI • Tel.: 943 71 63 22 - Faxa: 943 78 15 51



AGURRA

**MIKEL BIAIN** OÑATIKO ALKATEA

## Murgildu gaittezen danok jai betian!

Udabarri inguruan jaixak auzorik auzo hasi ostian, udazkenera arrimauaz goiaz eta herriko jai nagusixekin aurtengo denboraldixari bukaera eder bat emun biharko dostegu! Esku artian dakotzun egitarau hau berau izan bedi gure herriko jai nagusixen aurkezpen eta gonbite!

Jare deigun ordu batzuz alde batera lantegiko nahiz etxeko lanak eta murgildu gaittezen danok jai betian.

Askotarikuak dia aurten be jai egitarauian aurkituko dittuzuen ekitaldixak. Ez da samurra danon gustora josittako egitaraua egittia, baina esku artian dakotzun egitarau honetan eskeintza ahalik eta anitz nahiz zabalena luzaketako saiakeria egin da, eta, alde horretatik, Udalaren izenian esker onik beruena helarazi gura nosteke herriko jaixak gero eta parte hartzailiaguak eta herrikoiaguak izate aldera lan egin dauein danori.

Lerro honein bittartez, arrazoi ezberdinak tarteko, herriko jaixak kalian, gure artian, pasaitteko aukerarik eukiko ez daueinak be gogora ekarri gura nittuke. Besarkada bero bana zuendako.

Gozatu daigun jaixak, eta uxatu gorputzeko kezka neke eta ardurak, bakoitzak beretik jaixari bere ekarpena egiñaz.

Jardun deigun danok neurri egokixan, inguruko pertsonekiko eta ingurumenarekiko errespetuz.

Gora San Migel eta Errosaixo jaixak! Gora Herrixa!

# JAIETAKO EGITARAUA

## EGUBAKOITZA 28

### SAN MIGEL AOZARAZA

'OÑATI BEGI BISTAN' ARGAZKI ERAKUSKETA, plazako arkupeetan. Urriaren 8ra arte. Jaien amaieran lan guztiak zozketatuko dira.

**18:00** FUNBOX FACTORY: dirt jump eta trialsin ikuskizuna, plazan.

**18:00-21:00** BELDUR BARIK GUNEA –eraso sexistarik gabeko gunea–, Unibertsitate etorbidean.

**19:30** Elkarretaratzea ORAIN PRESOAK lelopean.

**20:00** TXANTXIKUAREN JAITSIERA, jaiei hasiera emateko.

**20:05** TXARANGA, txosnagunetik abiatuta.

**20:15** DISKO FESTA, plazan.

**23:00** DANBORRADA NAGUSIA herriko kaleetan zehar. Amaiera plazan izango da.

**Ondoren** DISKO FESTA, plazan.

**00:30-03:30** TESTINGa txosnagunean, Ailaket elkartearekin.

**02:30** KARAOKEA, txosnagunean.

**04:30** DJ + TURBA2, txosnagunean.

## ZAPATUA 29

### SAN MIGEL

**08:00** DJ OSAKAREKIN prozesio gaupaseroa, Txosna Batzordeak antolatuta.

**09:00** Txistulari Taldearen GOIZ-ERESIA.

**11:00** Herri mailako PLATER TIROKETA, Txopekua tiro-zelaian –armak edukitzeko baimena eta Federazioaren lizentzia eskatuko da–.

**12:00** MEZA NAGUSIA, Parrokiako koruak abestuta.

**12:00** Musika Bandaren KALEJIRA.

**13:00** Musika Bandaren KONTZERTUA, Lazarraga jauregiko loratегian. Eguraldi txarra eginez gero, udaletxeko arkupeetan.

**17:00** 'RAMON MARIA AZKUERI OMENALDIA' antzezlanaren ESTREINALDIA, testuak eta abestiak tartekatuz. Euskaltzaindia Oñatin sortu zeneko mendeurrenean. Parrokian, Olaitturri Kultur Elkarteak antolatuta.

**17:00** 36. SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETAKO FINALERDIAK, Euskal Herriko kadete eta gazte mailetako pilotari onenak Zubikoa pilotalekuan, Aloña Mendi KEko Pilota Sailak antolatuta.

**17:30** MAGIA IKUSKIZUNA, Portuko plazatxoan.

**19:00** ORAIN PRESOAK ekimena, plazan.

**19:30** THE MANI-LAS taldearen kontzertua, Atzeko kalean.

**22:00** ROCK KONTZERTUAK, txosnagunean: ARKADA SOCIAL, PERLATA eta BRIGADE LOCO.

**23:00** GATIBU taldearen KONTZERTUA, plazan.

## DOMEKA 30

**11:00-14:30** Haur eta gaztetxoentzako ABENTURA PARKEA –tirolina, rokodromoa, oreka tailerra, eskulanak…–, Errementari plazan.

**12:00-15:00** BELDUR BARIK GUNEA –eraso sexistarik gabeko gunea–.

**12:00-17:00** BAZKARIA eta JOLASAK gazteentzako, Gaztelekuak bideratuta.

**Goiz osoan zehar** Oñatiko TXORIMALOAK BERTATIK BERTARA. Beraiekin argazkiak ateratzeko aukera egongo da.

**12:00** BERAKATZ-ZOPA LEHIAKETA, plazan, eta ondoren sari banaketa.

**12:00** Jotak, VOCES RIBERAS taldearekin, plazan.





**Nagusien danborrada, gaur, egubakoitza, gauean.** GOIENA

**14:30** *Euskal preso eta iheslariak pilotalekuetara* lelopean, BAZKARIA, merkatu plazan.

**17:00-19:30** SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. ARNO ganadutegikoak.

**18:00** PILOTA TXAPELKETAKO FINALA plazako pilotalekuan, Txosna Batzordeak antolatuta.

**19:30** SONIDOS DE MEXICO mariatxiekin kontzertua, plazan.

## EGUBAKOITZA 5

**19:00** ELKARRETARATZEA *Orain presoak* lelopean, plazan.

**20:00** PIZZA-JATEA Labetegiren eskutik, Txosna Batzordeak antolatuta.

**22:00** MAHAI-FUTBOL txapelketa, Txosna Batzordeak antolatuta.

**22:30** BERTSO JAIALDIA, Zubikoa kiroldegian. Bertsolariak: Aitor Mendiluze, Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña, Sustrai Colina, Miren Artetxe eta Unai Iturriaga. Gai-jartzailea: Txinparta Bertso Eskolia / Gai emailea: Egoitz Atxaga. Sarrerak salgai, Txokolateixian. Nagusiak: 10 euro. Gazteak: 8 euro.

## ZAPATUA 6

### HERRI EGUNA

**09:00** Txistulari Taldearen GOIZ-ERESIA. Ondoren, herriko kaleetan zehar ibiliko dira.

**10:30** AZOKA unibertsitate inguruan: herri mailako behi erakusketa; herri mailako ardi, ahari eta bildots lehiaketa; asto erakusketa; behor eta zaldi erakusketa; euskal txerri eta oilo erakusketa; gazta lehiaketa; herri mailako fruitu eta barazki lehiaketa; lore eta landare erakusketa; artisau erakusketa.

**11:00** KALEJIRA, herriko kaleetan. Musika Eskolako TRIKI-PANDERO eta SOINU-JOLEEN TALDEA, TXISTULARIAK ETA TOLOSAKO GAITEROAK.

**11:00-14:00** Beldur Barik Gunea –eraso sexistarik gabeko gunea–, Unibertsitate etorbidean.

**12:00** 32. SAGARDO-DASTAKETA, plazan.

**13:15** Lehiaketetako SARI BANAKETA.

**14:30** BAZKARIA Antixena gaztetxean, Txosna Batzordeak antolatuta.

**14:30** HERRI BAZKARIA, Zubikoa kiroldegian.

**17:00** Herriko GAZTETXOEKIN HERRI KIROLAK, plazan.

**18:00** Profesionalen HERRI KIROLEN JAIALDIA, plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

**18:30** GAITZERDI erromeria taldea, Atzeko kalean.

**19:30** Parrokian F. ESNALEN SALBEA, Parrokiako koruak eta Oñati Abesbatzak abestuta.

**22:30** GOZATEGI taldearen kontzertua, plazan.

**22:00** TRIKIMAILU eta KOBAN taldeen kontzertua, txosnagunean.

**Ondoren** DJ BIG MAC, txosnagunean.

## DOMEKA 7

### ERROSARIXO EGUNA

**09:00** Txistulari Taldearen GOIZ-ERESIA.

**12:00** MEZA NAGUSIA, Parrokiako koruak abestuta.

**12:00** Musika Bandaren KALEJIRA.

**13:00** Musika Bandaren KONTZERTUA, plazan.

**17:00** 36. SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETAKO FINALA, Euskal Herriko kadete eta gazte mailetako pilotari onenak, Zubikoa pilotalekuan. Aloña Mendi KEko Pilota Sailak antolatuta.

**17:00-20:00** HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

**17:30** ERREFUXIATUEN aldeko EKITALDIA –argazki erakusketa, bideo emanaldia eta solasaldia– txosnagunean, Hotz Oñatik antolatuta.

**19:00** NOA VOLLDAMN & THE HELL DRINKERS blues taldeeren KONTZERTUA, Atzeko kalean.

**19:30** Auzoetako Jai Batzordeekin AFARI-MERIENDA, Txosna Batzordeak antolatuta.

**20:00** DANTZALDIA plazan, TARANTELLA ORKESTRAREKIN.

**20:30** BALKOITIK BALKOIRAKO bertso-saioa, IKER ZUBELDIA eta AGIN LABURU bertsolariekin, Kale Zaharrean.

**23:00** Musika, PIROTEKNIA eta argi-ikuskizuna, plazan. Ikus oharrak 40. orrialdean. Ondoren DANTZALDIA plazan, TARANTELLA ORKESTRAREKIN.

## ASTELEHENA 8

### ERROSARIXO BIXAMONA

**09:30** SOKAMUTURRA plazan. ARNO ganadutegiko zezenak.

**12:00** Musika Bandaren KALEJIRA.

**14:30** Euskaraldiaren HERRI BAZKARIA, txosnagunean.

**17:00** JOLASAK, txosnagunean.

**17:00-19:30** SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. ARNO ganadutegikoak.

**18:00** BURUNDA Elektrotxarangaren KALEJIRA IBILTARIA.

**18:30** DI-BERTSIOAK herriko musikarien eskutik, txosnagunean.

**20:00/23:00** DANTZALDIA plazan, GABEZIN TALDEAREKIN.

## ZAPATUA 13

**20:00** IZARO eta bere taldeen kontzertua, Gaztelekuan. Sarrera: 10 euro. Aurre-salmenta, Gaztelekuan.



# Dibertitzeko osagai ugari txosnagunetik irten gabe

Kontzertuak, presoekiko elkartasuna, pizza zaporea, mahai futbol txapelketa... denetik izango du txosna batzordearen eskaintzak, baita sorpresaren bat edo beste. Herriko musika taldeen bertsio jaiak emango dio amaiera, eta parte hartzeko dei egin dute

**Xabi Gorostidi** OÑATI

Oñatiko San Migel jaiak ezin dira txosnarik gabe ulertu, eta aurten ere egitarau zabala eta mamitsua prestatu dute txosna batzordea osatzen duten lagunek.

Atzo, irailak 27, muntatu zuten txosna. "Azken bizpahiru urteetan jarri dugu muntaiarena egitarau barruan. Txosna batzordean hamar eta hamabost lagun artean gaude, eta era honetan beste bost edo hamar lagun gehiago batzen zaizkigu", azaldu du Iñaki Guridik, txosna batzordeko kideak.



Arkada Social boskotea txosnaguneko agertokira igoko da hilaren 29an. INSTAGRAM

## Lehen asteburua, indartsu

"28a egun handienetakoa izaten da, eta aurten egubakoitzean tokatu denez, are handiagoa izango da".

Karaokea urtero bezain jendetsua izatea espero dute, eta jaia 08:00ak arte iraungo du, gutxienez. "Iaz, ordu horretan Villavesako entzierro moduko bat egin genuen, baina oñatiar erara: Indurainen ordez, Markel Irizar izan genuen ibilbidean gidari, txosnetatik Bizipozera. Aurten ere prozesioa egingo dugu, baina sorpresa izango da".

Irailaren 29an, kontzertuek hartuko dute protagonismoa. "22:00etan, Perlata arrasatearrak arituko dira, eta euren ostean Brigade Loco taldekoak. Gatibukin batera joko dute, aldi berean, eta Arkada Socialen kontzertua Gatibukoa amaitzerakoan hasiko da. Gure asmoa da Gatibu amaitzean ahalik eta jende gehien erakartzea txosnagunera. Talde bizkaitarra ikustera jende asko joango da, baina, horietako batzuk txosnetara erakarriz gero, gu pozik".

## Txosna batzordearen egitaraua

Hauxe da txosna batzordeko lagunek osatu duten ekintza sorta, irailaren 27tik urriaren 8ra. Betiko moduan, asko izango du auzolanetik eta elkartasunetik.

**Irailak 27**
- **17:00** Txosnagunearen muntaia.

**Irailak 28**
- **19:30** Elkarretaratzea *Orain presoak* lelopean.
- **20:00** Txantxikuaren jaitsiera.
- **20:05** Urolatarrak txaranga txosnagunetik abiatuta.
- **23:00** Danborrada.
- **20:00** Txantxikuaren jaitsiera.
- **02:30** Karaokea.
- **04:30** DJ +Turba2.
- **08:00** Prozesioa DJ Osakarekin

**Irailak 29**
- **19:00** *Orain presoak* ekimena Herriko Plazan
- **22:00** Kontzertuak: Perlata, Arkada Social eta Brigade Loco.

**Irailak 30**
- **14:30** Pilota txapelketako bazkaria azokan.
- **14:30** Pilota txapelketako finalak.



Perlata taldea. PERLATA

**Urriak 5**
- **19:30** Elkarretaratzea *Orain presoak* lelopean
- **20:00** Pizza-jana
- **22:00** Mahai futbol txapelketa

**Urriak 6**
- **14:30** Bazkaria gaztetxean
- **19:00** RkeR elektrotxaranga, gaztetxetik irtenda
- **00:00** Kontzertuak: Trikumailu, Koban eta DJ Big Mac

**Urriak 7**
- **17:30** Errefuxiatuen aldeko ekitaldia
- **19:30** Auzoetako jai batzordeekin afari-merienda

**Urriak 8**
- **14:30** Euskaraldiaren herri bazkaria
- **17:00** Jolasak
- **19:00** Di-bertsioak




ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:
Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:
Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketa 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA
Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA
Sistema berri honekin, frankizia urtean % 10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...
Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.

ZURICH
Mª del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09
Faxa: 943 78 31 36
Polts.: 620 77 66 20


OÑATI
dabilen herria
Oñatiko Udalak jai zoriontsuak opa dizkizue
GATIBU
HERRI BAZKARIA
ERROMERIAK
GAZTEEN EGUNA
ATSOLORRA
THE MANI-LAS
KALE IKUSKIZUNAK ...
#oñatikojaixak2018

# Nola ospatuko dituzu aurtengo San Migel jaiak?



**FERMIN ETXEGOIEN**

Ohikoa den bezala, Herri Egunean joango naiz Oñatira. Dena den, Bixamon Egunean herrian egotea gustatuko litzaidake, egun paregabea izaten delako.



**ANE IRAZABAL**

Jaiak lagun artean, trikiti erromerietan eta parranda giroan igaroko ditut; giro euskaldun batean jaiek eskaintzen digutenaz gozatzen, batez ere.



**XABI BARRENA**

Jaietako bigarren asteburuan egongo naiz Oñatin. Herri Eguna eta Errosaixo Bixamona kuadrillan pasako ditut, gorputzak uzten digun bitartean.



**ARANTZAZU UGARTE**

Lehenengo asteburuan, umeei zuzendutako ekintzetan parte hartuko dugu. Bigarrenean, kanpora joango gara, plazako barrakei iheska ibiltzeko, egun gehiegi dira eta.



**ARRATE MARKIEGI**

Normalean, jaietan kanpora joateko aprobetxatzen dugu. Dena den, Errosaixo Bixamon Egunerako Oñatira egingo dugu buelta, egun horretaz disfrutatzeko.



**ENDIKA RUIZ**

Urtero egiten dudan bezala, jaiak lagunartean ospatuko ditut. Kalean egoten den giro ona aprobetxatzen ahaleginduko naiz, gauez zein egunez.



**ITZIAR ARKAUZ**

Egun batzuetan lan egin beharko dudan arren, lagunekin egoteko aprobetxatuko dut. Garai ona izaten da kuadrillan elkartzeko eta disfrutatzeko.



**MANEX JUARISTI**

Oñatiko jaiak lagunekin eta familiarekin ospatuko ditut. Oso jai bereziak dira eta giro bikaina egoten da; beraz, topera disfrutatzen saiatuko naiz.



**EUXEBI OSA**

Herrian egongo naizen egunetan, emakumeen pilota txapelketako finala, Olaitturriren antzezlana eta Gatiburen kontzertua ikusiko ditut, besteak beste.

MENDI ZABAL SENDAGILEA
RPS:135/18
Mª Angeles Mendizabal
AHO SENDAGILEA
- Inplantologia konbentzionala
- Gidatutako inplantologia (punturik gabe)
- Odontologia estetikoa
- Periodontzia
- Eskanerra
Ondo pasa jaixak!
Arantzazuko Ama 2C-behea
20560 Oñati
Tel.: 943 71 60 71
mendikorta@outlook.com

Construcciones
UGARTE
Eraikuntzak


Kalegoiena 6 - OÑATI
www.cnes-ugarte.com

# Bertso-saio bikoitza bigarren aste bukaeran

Bertso jaialdia urriaren 5ean egingo da Zubikoa kiroldegian (22:30) eta urriaren 7an, berriz, Kale Zaharrean balkoitik balkoirako saioa (20:30). Bertso jaialdirako sarrerak Txokolateixan daude salgai; 10 euro nagusientzat eta 8 euro gazteentzat

**Maialen Regueiro** OÑATI

Oñatiarrek bertso-saio bikoitzaz gozatzeko aukera izango dute aurten ere San Migel jaietan. Lehenengoa Herri Eguna bezperan, urriaren 5ean, ospatu ohi da eta aurten ere bertso jaialdia ez da faltako. Bigarrena, berriz, Herri Egunaren biharamunean izango da, urriaren 7an, alegia. Kasu honetan, balkoitik balkoirako bertso-saioa izango da; Kale Zaharrean izango da hori.



2016ko bertso jaialdiko protagonistak taula gainean. GOIENA

### Zubikoako bertso jaialdia

Jaialdi hau ez da, normalean, jaietako egitarauan falta izaten. Izan ere, bertsozaleentzat zein hainbat herritarrentzat ezinbesteko hitzordua izaten da, puntako bertsolariak taularatzen dira eta. Aurten, Aitor Mendiluze, Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña, Sustrai Colina, Miren Artetxe eta Unai Iturriaga bertsolariak gonbidatu dituzte.

Oñatiko Bertso Eskola izango da gai-jartzailea eta Bertso Eskolako kide Egoitz Atxaga, gaiemailea. Atxagak adierazi duenez, jaialdiaren aurretik bilera batzuk egiten dituzte bertso-saioa prestatzeko eta bertsolariei emango dizkieten gaiak zeintzuk izango diren erabakitzeko, besteak beste.

Atxagak aipatu du, gainera, bertsolariek gustura hartzen dutela parte jaialdi honetan. Izan ere, bertso-saioa ikustera gerturatzen direnak bertsozaleak izaten dira eta bertsolariek asko eskertzen dute ikusleek izaten duten jarrera.

### Sarrerak salgai

Jaialdirako sarrerak Oñatiko Txokolaixian daude salgai dagoeneko: helduen sarrerak 10 eurotan eta gazteenak, aldiz, 8 eurotan. Gainera, egunean bertan kiroldegian azken sarrerak erosteko aukera egongo da, prezio berean.

### Bertsotan, balkoitik balkoira

Urriaren 7an, 20:30ean hasita, Iker Zubeldia eta Agian Laburu bertsolariak Kale Zaharreko balkoi batetik bestera arituko dira beraien artean bertsoak botatzen. Kasu honetan, bertsolariek ez dute gai-jartzailerik izaten eta, hain zuzen, emanaldiak beraien arteko elkarrizketa bat dirudi.

Atxagak aitortu duenez, bertsolariek saioa hasi aurretik herriko azken gaien berri jakin nahi izaten dute, bertsoetan gai horiek jorratzeko.

### Bertsolaritzaren jatorria

Balkoitik balkoirako bertso-saio honek badu bere xarma eta bertsolaritzaren jatorria mantentzearen helburua. Izan ere, garai bateko bertso-saioak taula gainean egin beharrean, balkoitik balkoira burutzen zituzten. Horrenbestez, hori da urtetik urtera Oñatiko jaietako egitarauan hitzordu hau mantentzearen arrazoia.


JAIAK: SANMIGELAK OÑATIN ETA ARETXABALETAN
GOIENA TELEBISTA
URRIAK 4AN, EGUENA, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
goiena
Zu hemen zaude.





Herriko laborari, gazta ekoizle eta abeltzainen produktuak egongo dira goizeko azokan. IMANOL SORIANO

# Salda beroa hartuta has daiteke Herri Eguna

Egun osoa kalean pasatzeko modukoa da Herri Eguna eta herriko elkarte gastronomikoetako ateak zabalik egongo dira goizean salda beroa, txorizo egosia edo okela gisatua eskaintzeko, eguna indartsu hasteak asko balio du eta

**Oihana Elortza** OÑATI

Nekazarien Elkarteak antolatzen du Herri Egunaren goizeko azoka, Udalaren diru laguntzarekin. Ekainean hasi ziren urriaren 6an egingo den urteroko ekitaldia prestatzeko bilerak egiten. Eta azken orduan lotu behar direnak lotuta, eguna heltzea bakarrik falta da.

Goizeko seietan elkartzen dira soziedade horretako hainbat bazkide gosaldu eta unibertsitate pareko berdegunean egoten diren animalien esparrua prestatzeko. Gazta lehiaketarako beharrezkoak dituzten mahaiak, aulkiak, edalontziak, sagarrak... ere eraman behar dituzte unibertsitate aurrera eta baserritarrak euren fruta eta barazkiekin datozenerako postuak prest dauden ziurtatu behar dute.

### Euskal txerri oñatiarra

Ardiak, ahariak, behorrak, astoak, behiak eta euskal arrazako txerriak egongo dira, besteak beste, animalien erakusketagunean. Aurten, gainera, Oñatin hezitako euskal txerriak ikusiko dira. 10:00etan hasiko dira animaliak heltzen.

Aurten ere, Herri Eguneko azokan egingo diren lehiaketetan zein erakusketetan parte hartuko duten nekazariak, abeltzainak eta gazta ekoizleak, denak izango dira oñatiarrak.

Unibertsitatearen klaustroaren bueltan 31 artisau egongo dira euren produktuak erakusten eta saltzen; horietatik hamar dira oñatiarrak. Eta institutu aurrean egongo den herriko tabernan ere oñatiarrak egongo dira taloak egiten eta txistorrak eta hirugiharra erretzen; herriko ezker abertzaleak hartuko du aurten ere txosna horren ardura. Foruen plazara Gipuzkoako 24 sagardotegik eroaten dute sagardoa.

### Goizaldera arte

Agertoki horiek eta elementu horiek izango ditu aurtengo Herri Egunak ere goiz partean. Zubikoan eta gaztetxean egingo dituzte herri bazkariak; soziedadeetan eta jatetxeetan ere hartuta daude mahaiak lagun artean bazkaltzeko. Arratsaldean, herri kirolak egongo dira aurten ere, gaztetxoen artekoak zein profesional mailakoak. Eta gauean, musika kontzertuak.






# Jendearen gainetik pasako dira bizikletekin

Funbox Factory taldekoak erakustaldi erakargarria egiteko asmoarekin datoz Oñatira. Trialsin probetan bezala, oztopoak gaindituko dituzte bizikletekin, baina arrapala handi bat ere jarriko dute herriko plazan, bizikletarekin akrobaziak egiteko

**Oihana Elortza** OÑATI
Lehen aldiz datoz Funbox Factory taldeko lagunak Oñatira, erakustaldi erakargarria egiteko asmoz. "Uda honetan ikuskizun asko egin ditugu. Horrenbestez, ondo entrenatuta gatoz Oñatira. Erakustaldi polita izango da, edonori gustatzeko modukoa", dio taldeko Martxel Arribillagak.

**Saltoak**

Sei lagun etorriko dira irailaren 28an Oñatira eta Foruen plazan egingo dute ikuskizuna, 18:00etan, txantxikuaren jaitsieraren aurretik. "Gutariko bost bizikletarekin ibiliko gara eta seigarrenak *speaker* lanak egingo ditu. Musika ere jarriko dugu, giroa berotzeko... Ikuskizun borobila ematea da gure asmoa", dio Arribillagak.

Erakustaldia plazan izango da eta espazio zabal hori eurendako oso aproposa dela dio Arribillagak. Bi modalitate desberdinetan jardungo dutela adierazi du: "Batetik, egingo ditugu trialsin probetan egiten dituzten moduko saioak. Hau da, oztopoak, trabak, jarriko ditugu plazan eta horiek bizikletarekin gainditzea izango da gure lana. Bestetik, Dirt Jump izeneko modalitatea ere egingo dugu. Bizikletarekin txilinbueltak eta akrobaziak egitea da hori. Horretarako, arrapala handi bat jarriko dugu plazan. Jendearen gainetik ere pasako gara. Erakustaldia ikustera doazen herritarren laguntza beharko dugu horretarako. Boluntarioak eskatuko ditugu, lurrean etzan daitezen, gu gainetik pasatzeko".


**Erakustaldia egiten.** FUNBOX FACTORY

**Bikoitza**

Duela sei urtetik hona ari dira Funbox Factory taldeko gazteak horrelako erakustaldiak egiten. Duela hiru urte, inbertsio handia egin zuten entrenamenduetarako zirkuitu profesional bat egiten, eta han sartzen dituzten orduek fruituak eman dizkiete: aurtengo udan, hiruzpalau hilabetetan, joan den urteko ikuskizun kopuru bikoitza baino gehiago egin dituzte. Gaurkoa ez galtzeko mezua bidali die Arribillagak oñatiarrei.


**Mutiko bat tirolinan aritzeko gertu, iazko jaietan.** GOIENA

# Abentura-gunea Errementari plazan jarriko dute aurten ere

Tirolina, rokodromoa eta oreka tailerra egongo dira, besteak beste, gaztetxoendako, irailaren 30ean

**O.E.** OÑATI
Tirolinak eta abenturazko antzerako ziburuak gaztetxoen gustukoak direla ikusita antolatuko dute aurtengo jaietan ere abentura parkea.

Errementari plazan jarriko dituzte aurten ere tirolina, rokodromoa eta oreka tailerra, besteak beste. Asmoa plazan bertan jartzea da, plaza erdian, baina eguraldiak hori zailtzen badu, arkupeetan egingo dituzte ekitaldi horiek guztiak, joan den urtean bezala

Abentura parkeko eskaintza herriko gaztetxoei dago zuzenduta, batez ere. Begiraleak izango dira han eta euren laguntza izango dute ekintza batean edo bestean parte hartzeko. Arropa erosoarekin joatea da egokiena. Irailaren 30ean egongo da abentura parkea, 11:00etatik 14:30era.

**Haur parkea**

Ume txikiendako parkea ere egongo da aurtengo jaietan. Urriaren 7an jarriko dituzte eurendako puzgarriak, Etxaluzen, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian muntatuko dituzte.




# "Antzezlanetan, Oñatiko historia kontatzen dugu"

**KARMEN BIAIN** OLAITTURI KULTUR ELKARTEKO KIDEA

Biharko antzezlanean, Resurreccion Maria Azkue omenduko dute; Euskaltzaindiko sustatzaileetako bat izateaz gainera, lehen euskaltzainburu izendatu zuten hura

**Maialen Regueiro** OÑATI

Badira urte batzuk Karmen Biain oñatiarra Olaitturri Kultur Elkarteko kide dela eta egin dituzten antzezlan desberdinetan parte hartu duela. Hala, bihar estreinatuko den *Resurrecion Maria de Azkue eta Euskaltzaindia* antzezlanaren inguruan mintzatu da.



Karmen Biain. GOIENA

**Azken urteetan herri antzerkiak landu dituzue eta aurten Azkue omenduko duzue.**

Duela 100 urte egin zen Oñatin Eusko Ikaskuntzako lehen kongresua eta bertan izan zen Resurreccion Maria Azkue. Euskaltzaindiaren sustatzaileetako bat izateaz gainera, lehen euskaltzainburu izendatu zuten. Beraz, aurten mendeurrena ospatzen denez, ezinbestekoa zen Azkue omentzea.

**Zer ikusiko du ikusleak antzezlanean?**

Ardatza Azkue eta Euskaltzaindia dira, testua eta musika tartekatuz. Testua, esate baterako, Euskaltzaindiaren sorrerako pasarteetan oinarritzen da.

**Zenbat antzezlan egin dituzue orain arte?**

Lehen antzezlana 1977an egin genuen eta antzinako ezkontzak islatu genituen. Gerora, beste hainbat antzezlan egin ditugu; guztiek Oñatirekin edo bere historiarekin harreman zuzena izan dute. Etenaldi bat ere izan genuen, baina, guztira, hamar bat antzezlan egin ditugula esango nuke.

**Zenbat pertsonak osatzen duzue antzerki taldea?**

Aurtengo antzezlana aurrera eramateko, esate baterako, 34 pertsona gaudela uste dut. Batzuk agertokira igotzen gara, baina beste batzuek atzeko lana egiten dute.

**Zeren arabera erabakitzen dituzue antzezlanen gaiak?**

Gaia erabakitzearen ardura ez da taldearena. Proposamenak iristen dira eta Iñazio Irizarrek landu egiten ditu, bera baita elkarteko zuzendaria.

**Herriak eskertu egiten ditu zuen antzezlanak.**

Azken batean, eskolan ez digute gure herriko historia erakutsi eta guk gure antzezlanen bitartez historiaren zati batzuk erakusten saiatzen gara. Horregatik, uste dut jendeak gustura hartzen dituela gure antzezlanak.

**Aurten, antzezlanaz gain, hainbat hitzaldi antolatu dituzue.**

Hitzaldiek harrera ona izan dutela esango nuke. Lehen hitzaldia lehen kongresuaren inguruan izan zen; bigarrena, berriz, Azkue euskaltzainburuari buruz; eta, azkenik, gerraosteko Euskaltzaindiaren kultur historiaren gainean.

**Dena prest estreinaldirako?**

Apirilean hasi ginen antzezlana lantzen eta astean birritan entseatu izan dugu. Azken egun hauetan ez dugu entsegurik egin, baina esan daiteke dena prest dagoela.

**Bihar, sarrerak, leihatilan.**

Bihar leihatilan sarrerak erosteko aukera egongo da, 10 eurotan.

## Antzezlanaren estreinaldia

Olaitturri Kultur Elkarteak atzo arratsaldean egin zuen antzezlanaren aurrestreinaldia, Santa Ana antzokian, eta estreinaldia, berriz, bihar izango da, Mikel Goiangeruaren parrokian, arratsaldeko bostetan.







Iazko erakusketako argazkia. ILUNPETAN


Iazko erakusketako argazkia. ILUNPETAN


Iazko erakusketako argazkia. ILUNPETAN

# Oñati beste ikuspuntu batetik ikusteko aukera

Gaur hasi eta jaiak bukatu bitartean ikusgai egongo da, Foruen plazan, Ilunpetan Argazki Taldearen 'Oñati begi bistan' argazki erakusketa. Argazkien zozketan parte hartzeko, 'ilunpetan@gmail.com' helbidera mezu bat bidali beharko da

**Maialen Regueiro** OÑATI

Dagoeneko badira urte batzuk San Migel jaietan Ilunpetan Argazki Taldekoen *Oñati begi bistan* argazki erakusketa Foruen plazan ikusgai egoten dela. Bada, gaurtik urriaren 8a bitartean Oñati beste ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera egongo da, herriko plazan egongo diren hamahiru obrari esker. Obra horiek Oñatiko Udal Artxiboan egongo dira aurrerantzean.

**Bertso Eskolarekin elkarlana**

Ilunpetan Argazki Taldearen eta Oñatiko Bertso Eskolaren arteko elkarlanaren emaitza da erakusketako argazki bakoitzak bertso bat edukitzea.

**Zozketa**

Jaiak amaitzean egingo den argazkien zozketan parte hartzeko, mezu bat bidali beharko da *ilunpetan@gmail.com* helbide elektronikora.



# "Biharko kontzertua berezia izango da"

**ALEX SARDUI** GATIBU TALDEKO ABESLARIA

Biharkoa 'Aske maitte, aske bizi' birako azken kontzertua izango da eta domekan Ameriketako Estatu Batuetara joango dira zortzigarren lanaren grabazio lanak egitera



Aurten, Bilboko jaietan eskainitako kontzertuan. GAIZKA PEÑAFIEL

**Maialen Regueiro** OÑATI

Gaur hasiko diren San Migel jaietako hitzordu garrantzitsuenetakoa izango da bihar Gatibu talde gernikarrak eskainiko duen kontzertua. Emanaldia Foruen plazan izango da, 23:00etan. Biharko kontzertuaz eta *Aske maitte, aske bizi* biraz mintzatu da Alex Sardui, Gatibu taldeko abeslaria.

**Udan eman dituzuen kontzertuen ostean, zer balorazio egiten duzu?**
Ez ditugu hainbeste kontzertu eskaini, baina talde moduan oso ondo eta gustura ibili gara. Abuztuan eman ditugun hiruzpalau kontzertuetan asko disfrutatzea zen helburu nagusia eta lortu egin dugula esango nuke. Bihar Oñatin emango dugun kontzertua iraileko bakarra izango da.

**Nola erantzun dio jendeak *Aske maitte, aske bizi* lanari?**
Jendearen erantzuna oso ona izan da eta hori eskertzekoa da. Izan ere, lan berri bat kaleratzen denean ez dakizu jendeak nola erantzungo duen, baina, gure kasuan, harrera oso ona izan dugu eta horrek bizia eman digu, bai kontzertuetan eta baita jende berri batera iristeko orduan ere.

**Azaroan Londresen eskainiko duzue kontzertua; ze sentsazio?**
Guretzat, talde moduan, Euskal Herrian edo Londresen kontzertu bat emateak inportantzia bera dauka. Egia da horrelako kontzertu bat daukagunean kanpora bidaiatu behar izaten dugula eta horrek taldearen ideia eta batasuna indartzeko balio izaten duela.

**Telebista saio batean *coach* lanetan ikusi zaitugu. Nolakoa izan da esperientzia?**
Jendeak benetan naizen modukoa ikusteko aukera izan du eta baliteke batzuek nirekiko zuten iritzia aldatu izana. Batzuek esan didate zorrotza naizela, besteak beste. Horrez gain, jende gaztearen ahotsaz eta ilusioaz txundituta geratu naiz, eta, azken batean, gu horiei laguntzen aritu gara. Etorkizunean musika talde edo ordezkari bat eskuratzeko ilusioa izatea oso garrantzitsua da eta horrelako saio batek asko laguntzen duela esango nuke.

**Zer balorazio egiten duzu Bergaran eskainitako kontzertuaz?**
Bergaran ematen genuen lehen kontzertua zen eta balorazio positiboa egin genuen bere garaian. Nik, behintzat, oso ondo pasatu nuen. Plaza jendez bete zen eta jendea gustura egon zela esango nuke, kantak abesten eta dantzatzen.

**Bergaran zuen kontzertuaren aurrekontuarekin sortu zen polemikaz zer iritzi duzu?**
Herrian esaten zen diru kopurua ez zen benetakoa. Plazan pankarta bat zegoen eta aldarrikapena ere egin zuten. Guk, horren aurrean, ez genuen inolako iri-



tzirik adierazi eta errespetuz jokatu genuen. Azken batean, guk talde moduan ezin dugu ezer esan, gauza batzuk ez ditugulako guk erabakitzen. Lotsagarria izango litzateke horrenbeste diru ordaindu eta plaza ez betetzea, baina ez zen horrelakorik gertatu. Ulertu dezakegu herritarrentzat gai polemikoa dela, baina hori Udalarekin konpondu beharreko gai bat da. Guk talde gisa eskaintza bat jaso eta onartu egin genuen.

**Nola uste duzu hartuko zaituztetela Oñatin?**
Oñatiko plaza handia da eta betetzea espero dugu. Hala ere, gure asmoa giro ona sortzea, herria gustura geratzea eta herriko tabernariak pozik egotea da, batez ere. Oñatin kontzertu bat ematea gozamena da eta herri moduan bere xarma badauka. Gainera, bihar larunbata izateak ere asko laguntzen duela uste dut.

**Biharko kontzerturako ezer aurreratzerik baduzu?**
Gure errepertorioaren errepasoa egingo dugu. Gainera, hurrengo egunean Ameriketako Estatu Batuetara goaz grabazio lanak egitera eta kontzertu berezia izango dela uste dut, proiektu baten amaiera eta beste baten hasiera adierazten duelako. Izan ere, biharkoa gure birako azken kontzertua izango da eta egia da horrelako kontzertuak beti izaten direla bereziak.

**Ameriketako Estatu Batuetara zortzigarren lana prestatzera zoazte.**
Domeka goizean irtengo gara eta grabazio lan batzuk egingo ditugu; hau da, zortzigarren lana prestatzen ari gara.

**Lan berriari buruz ezer esaterik baduzu?**
Orain arteko estiloan jarraitzeko asmoa daukagu, baina, behin estudioan sartuta, gauza asko gerta daitezke. Hala ere, beti egongo dira gure estiloaren aldekoak eta hain aldeko ez direnak ere. Guk, hasiera batean, gure lana egingo dugu, sentsazioak ikusi, eta gero gerokoak.

**"OÑATIN KONTZERTU BAT EMATEA GOZAMENA DA ETA HERRI MODUAN BERE XARMA DAUKA"**

# Indie eta rockabilly doinuak taula gainean

Mariana Perezek (bateria), Maika Makovskik (baxua) eta Olaia Bloomek (gitarra) osatzen dute 2017an sortutako The Mani-las taldea. Indie eta rockabilly doinuez gozatzeko aukera egongo da bihar, San Migel eguna, Atzeko kalean, 19:30ean

**Maialen Regueiro** OÑATI
Atzeko kaleko agertokia emakumeena bilakatzen ari da azken urteetako jaietan. Aurten, ez da gutxiago izango eta bihar, The Mani-las hirukoteak kontzertua eskainiko du, 19:30an.

**Manilara bidaia**
Hirukotea Mariana Perezek, Maika Makovskik eta Olaia Bloomek osatzen dute, baina bi azkenak dira taldea sortzearen *errudunak*. Izan ere, iaz, Manilara egindako bidaia batean, kontzertu bat eskaini zuten eta handik bueltatu zirenean erabaki zuten *He's got the power* abestia estudio batean grabatzea.


Perez, Bloom eta Makovski. THE MANI-LAS

Azken hau egiteko, Perezen presentzia ezinbestekoa zela pentsatu zuten eta hark onartu egin zuen gonbidapena.

**Euskal Herrian hainbat hitzordu**
Hirukoteak duela bi aste hasi zuen bira, Tenerifen eskaini zuten lehen zuzeneko kontzertuan. Irailetik azaro hasiera arte, behintzat, hainbat hitzordu lotuta dituzte eta horietako batzuk Euskal Herrian izango dira. Lehena Gasteizen eskaini zuten aurreko astean eta hurrengoa bihar San Migel jaien baitan eskainiko dutena izango da. Aurrerantzean, Donostian, Beasainen eta Bilbon arituko dira.






# SANMIGELAK
# 2018
## OÑATI

---

# ETORRI GUREKIN OSPATZERA!

---

Boga
Olakua
Aker
Urtiagain
Ongi etorri
Garoa
Zotz

# SANMIGELAK 2018



- Egitaraua
- Kantu afaria
- Feria
- Herri kirolak
- Herri mugimenduaren egitaraua
- Aretxabaleta abesbatza

AITOR AGIRIANO

UNAI ITURRIOTZ
ONDO PASAU SANMIGELAK!

- Abokatua
- Bitartekaria
- Aholkulari juridikoa

Errekabarren 18, behea
20550 ARETXABALETA
943.080796
943.080796
696378909
unai@iturriotz.eus
www.iturriotz.eus



AGURRA

**UNAI ELKORO**
ARETXABALETAKO ALKATEA

## Goza ditzagun jaiak euskaraz

Aretxabaletarrok, agur:

Heldu zaizkigu berriz sanmigelak, ahaztuak ditugu dagoeneko oporrak, egunerokotasunera itzuliak gara eta udarari agur esateko garaia da. Laugarren urtez agurtzea suertatu zait, agintaldia badoa aurrera eta ez nuke aukera hau pasatzen utzi nahi, berriz ere festa hauetan euskararen presentzia aldarrikatzeko. Kanta dezagun, dantza dezagun eta, nola ez, baita parranda egin ere, baina beti euskaraz. Jantzi dotorez, musikaz eta alaitasunez bete ditzagun kaleak, elkarrenganako begirunez jokatu, denok disfrutatzeko ezinbestekoa baita; beraz, ondo pasa, baina pasa gabe.

Gora Aretxabaletako sanmigelak!

# EGITARAUA

## EGUBAKOITZA 28

**19:00** BERGARAKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA, Bergarako gaiteroekin batera.

**21:00** KANTU AFARIA. Herriko plazan edo Iturrigorri frontoain, eguraldiaren arabera, Sei Pistols & Trabuko Bat taldearekin. Izen ematea: Kuadrillaka, Arkupen. Plaza mugatuak –500 pertsona–. Eguraldi ona badago, egunean bertan beste 100 txartel gehiago salduko dira. Euro 1 pertsonako.

## ZAPATUA 29

**10:00-14:00** Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren XXIV. FERIA, Durana kalean, eta Bertako Ganaduaren V. Feria, Arlutz kantxan.

**10:00** DIANA, Aretxabaletako txistulariekin.

**10:30** Loramendiko Iristu gazte taldeak antolatutako TONBOLAREN IREKIERA.

**10:30** Loramendiko Tril emakume taldeak antolatuta, TALO TXOSNA. Pagaldai tabernan.

**11:30** Leizarra Musika Eskolako TRIKITILARIAK. Kaleetan zehar.

**12:30** Lekaixoka bertso taldeak antolatuta, BALKOITIK BALKOIRA bertso saioa: Jon Maia eta Sebastian Lizaso. Durana kalean.

**12:45** TXALAPARTA. Durana kalean.

**13:00** Simon Otxandategi taldearen JOALDUNAK. Aretxabaletako kaleetatik zehar.

**14:30** HERRI BAZKARIA, Iturrigorri frontoian.

**18:00** BOLO TXAPELKETA. Bolatokian. Izen-ematea: 10 euro. Sariak: 1. saria: urdaiazpikoa eta batutako diruaren %40. 2. saria: urdaiazpiko-paleta eta batutako diruaren %25. 3. saria: batutako diruaren %20. 4. saria: batutako diruaren %10.

**19:00** Beinke-Loramendi DANTZA EMANALDIA. Herriko Plazan.

**20:00** ALAIKI taldea. Herriko plazan.

## DOMEKA 30

**10:30** Basotxo elkartearen eskutik DOKE TXAPELKETA, Basotxo aurrean.

**11:00** DIANA, Aretxabaletako gaiteroekin.

**13:00** HERRI KIROLAK, Herriko plazan.

**16:00** 26. SAN MIGEL MUS TXAPELKETA. Herriko plazan. Garaikurra, txapela eta dirua emango zaie lehenengo sailkatuei. Izena ematea: 15:15etik 15:45era. 20 euro.

**19:00** SAN MIGELETAKO KONTZERTUA Aretxabaleta Abesbatzaren eskutik, musikariak eta dantzariak lagun dituztela. Iturrigorri frontoian.




Tomateak eta tomate-haziak ere izango dira zapatuko azokan. GOIENA




Gemes
Irudi aholkulariak

Tratu eta zerbitzu pertsonalizatua eskainiko dizugu

Ondo ibili sanmigeletan!

Ilargi plaza 2 • Tel.: 943 79 99 18 • ARETXABALETA

# Kantu herrikoiak abesten hasiko dituzte jaiak

Zazpigarren urtez kantu afaria egingo dute, Sei Pistols & Trabuko Bat taldeak girotuta, eta Herriko Plaza betetzea espero dute aurten ere; festa gosea Euskal Herriko betiko abestiekin asetzea izango dute helburu, kantuan, denak batera, ondo pasatuta

**Amaia Txintxurreta** ARETXABALETA

Aretxabaletako eta Arrasateko musikariz osatutako Sei Pistols & Trabuko Bat taldeak izango du aurten ere jaien lehenengo gaueko kantu afaria girotzeko ardura. Aitor Ziardegi taldekidearen esanetan, "gogoz" daude urteroko hitzordurako: "22:00 edo 22:30 inguruan hasiko gara kantuan, herritarrak afalostean mahaiaren bueltan daudela. Azken urteetan Herriko Plaza bete egin da eta gehiagora joan den zerbait dela esango nuke. Kontzertu batekin konparatuz, gainera, luzea izaten da kantu afarietan egiten duguna, eta errepertorio zabalarekin joango gara aurten ere, ondo pasatzeko helburuarekin".

**Bi kantu berri**

Betiko euskal kantuak abestuko dituzte, errepertorio zabala dute prestatuta eta liburuxkak badituzte dagoeneko kantu afarira joango diren herritarrek.

Aurten, bi kantu estreinatuko dituzte: Ken 7 taldearen *Hemen gaude* eta egubakoitzetako kantu poteoan abesten duten Aitor Ziardegik sortutako abestia. "Hileko azkenengo egubakoitzetan egiten ditugun kantu poteotan ezaguna da dagoeneko duela pare bat urte sortu nuen kantua eta hori ere egingo dugu aurten. Talde horrendako egin nuen abestia eta beste instrumentu batzuendako ere prestatu dugu orain. Kantu herrikoia da, klasikoa", adierazi du Ziardegik. Eta gaineratu du dantzarako abestiak ere sartuko dituztela tarteka, seguruenez, jendea festarako gogoz egoten da eta.

Aurten, nobedade moduan, gainera, *Poto* ezizenez ezaguna den baxu-jolea ere batuko zaio Sei Pistols & Trabuko bat taldeari, eta, ondorioz, zortzi musikari egongo dira agertokian.

Herritarrak abesteko gogoz joatea izango da garrantzitsua, guztien parte-hartzerekin euskal kantuekin disfrutatu dezaten.



Iazko kantu afarian, herritarrak kantu liburuekin abesten. GOIENA





Iaz, Aretxabaletako Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren Azokan. GOIENA

# Sanmigeletako azoka, bertako produktuz betea

Aretxabaletako Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren 24. Azoka izango da zapatuan, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Durana kalean, bertako, sasoiko eta bestelako produktuak ikusi eta erosteko aukera izango dute bertaratzen direnek

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Irailaren 29an, San Migel egunean, Aretxabaletako Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren 24. Azoka egingo da. Urtero moduan, Durana kalean jarriko dira postuak, eta 10:00etatik 14:00etara bitartean bertako produktuak ikusi, erosi eta probatzeko aukera izango da. Horrez gain, bertako Ganaduaren V. Feria Arlutzeko kantxan egingo da, eta animalia guztiak herriko baserritarrek eroandakoak izango dira.

Produktu ekologikoz betetako postuak ez dira faltako San Migel jaietako azokan. Ekoizleak eurak egongo dira postuetan, eta kontsumitzaileek informazio zuzena jasotzeko aukera izango dute. Honela adierazi du Biolur nekazaritza ekologikoaren aldeko Gipuzkoako elkarteko Adrian Sanchez koordinatzaileak: "Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sustatzea da gure helburua, eta, honekin batera, ekoizlearen eta kontsumitzailearen artean informazio zuzena egotea, haien arteko harremana sendotzeko asmoz. Hori horrela, Aretxabaletan denetarik izango da ikusgai, eta, guztira, hogei postu izango dira; ekoizleen produktu ezberdinekin, ikastetxeek jartzen dituztenekin eta Biolurreko informazio-guneareakin barne".

**Bertako produktu ekologikoak**

Euskal Herriko toki ezberdinetako ekoizleak batuko dira azokan, gipuzkoarrak gehienak. Debagoienera etorrita, Bergara, Arrasate eta Gatzagako ekoizleak izango dira, eta, nola ez, Aretxabaletakoek ere ez dute hutsik egingo: Mendibitzuko gazta izango da, eta baita Mariaje Revueltaren eta Kurtzebarri eskolakoen barazkiak. Horrez gain, baratxuriak, eztia, ardi eta ahuntz gazta, ogia, marmelada, haragia, gatza… askotariko produktuekin disfrutatu ahal izango dute azokara doazenek. Horrez gain, jatekoak ez diren beste produktu ekologiko batzuk ere izango dira bertan: arropa ekologikoa izango da. Kotoi organikoarekin egindakoa, artilez egindakoa, tinta ekoizleak berak egiten duena… Bestalde, basalandareekin egindako bixigarriak ere izango dira: krema eta xaboiak.




**Ikastetxeetakoen postuak**

Ikastetxeetako haurrek ere jarriko dituzte postuak, urtero moduan. Kurtzebarri Eskolako Lehen Hezkuntzako hirugarren mailakoek mota askotariko ortuko barazki ekologikoak eramango dituzte: piperrak, letxugak, kalabazinak, kalabazak, patatak... eta marmelada ere izango dute salgai. Almen Ikastolako lehen mailatik laugarren mailara arteko haurrek, berriz, hostore-lazotxoak, krispetak eta sagar-dultzea izango dituzte salgai.

**Artisautza nagusi azokan**

Produktu ekologikoak eroango dituzten ekoizleez gain, artisauak ere izango dira azokan. Guztira, 35 artisau-postu izango dira aurtengo azokan. Euskal Herri osoko artisauak eta bertakoak elkartuko dira, eta produktu hauek ikusi eta erosteko aukera izango da: artilea, bitxiak, xaboia, euskal pastelak, kremak, zilarra, umeentzako arropak, alpargatak, egurra, kandelak... Hala, aurtengo berritasuna hainbat materialekin eguzki-loreak egiten dituen artisaua izango da.

## Talo goxoak Pagaldai tabernan

Azokan, ohikoa da postuak ikusteaz batera talo bat jatea, eta aurtengo edizioan ere aukera izango da horretarako. Izan ere, Loramendi elkarteko Tril emakume taldeak antolatuta, talo-txosna jarriko dute zapatuan Pagaldai tabernan. 10:30ean hasiko dira taloak egiten, eta 14:00ak arte bertan izango dira. Masa freskoarekin egingo dituzte taloak; talo-jotzean, berriz, hainbat lagun batuko dira aurten ere, eta txistor eta hirugihar erre usain bikainak azokara doazenak gerturatuko ditu bertaraino, beti bezala.

Horrez gain, Pagaldi taberna aurrean, 10:30ean, Loramendi elkarteko Iristu gazte taldekoek tonbola irekiko dute, eta txartelak saltzen arituko dira goizean.





## Alberdiren animaliak Arlutzen

Bertako Ganaduaren V. Feria ere izango da zapatuan, Arlutzeko kantxan. Baserritarrek askotariko animaliak eramango dituzte, herritarrek ikusi ditzaten.

Zaloña Aurreko baserriko Luis Mari Alberdik urtero eramaten ditu animaliak, eta aurten ere ez du hutsik egingo: "Guk pottokak, behiak, ahuntzak eta oiloak eramango ditugu. Etxezuri baserrikoek, berriz, ardiak eramango dituzte eta Arientzako Etxeberri baserrikoek astoa ere eramango dute, seguruenik. Asmoa da bertako animaliak kalera atera eta herritarrek hauek ikustera gerturatzea. Normalean, arrakasta izaten du, eta, eguraldia lagun badugu, gerturatuko da jendea".






Harrijasotzaileen erakustaldiko irudi bat, iazko sanmigeletan. GOIENA

# Herri kirol askoren erakustaldiak domekan

Domekan, eta San Migel jaien baitan, herriko plazan egingo diren herri kiroletan, lau aizkolari eta aita-alaba harri jasotzaileak arituko dira, besteak beste. Hitzordua 13:00ean hasiko da: lehenik, erakustaldia eta ondoren, lehiaketa izango da

**Maialen Regueiro** ARETXABALETA
Domekan San Migel jaien barruan egingo diren herri kirol probek denetarik izango dute. Hain zuzen ere, herriko plazan egingo dira, 13:00etan. Lehenik, erakustaldia egingo da eta horren ondoren, lehiaketaren txanda izango da.

### Hasteko, erakustaldia

Alex Txikon, Julen Aranberri, Telletxea eta *Bihurri* aizkolariak arituko dira, lehenik. Iparraldeko jokoak egiten Karlos Aretxabaleta arituko da –lasto fardo altxaketa, ingude jasotzea eta lasto jaurtiketa– eta harri jasotzen Joseba eta Udane Ostolaza aita-alabak arituko dira.

### Aita eta alaba, harria jasotzen

Joseba Ostolaza eta Udane Ostolaza aita-alabak dira eta harria jasotzen arituko dira domekan, Aretxabaletako herriko plazan. Aitak Orion harri eskola bat sortu zuen duela urte batzuk, eta, hamar mutiko inguru egoteaz gain, bere alabari harriak nola jaso erakusten dio. Harria jasotzea zer den ezagutu nahi dutenei zuzenduta dago eskola, batez ere. Udanek 13 urte ditu eta 20 kilo dituen harri bat jasotzeko gai da, eta, hori gutxi balitz, eskubaloian ere jokatzen du. Hala ere, aitarekin erakustaldietara joatea eta harria jasotzea gustatzen zaio.

### Ondoren, lehiaketa

Erakustaldiaren ostean, lehiaketarekin hasiko dira eta bi hirukoteren artean pentatloia jokatuko da; hau da, aizkoran, harria jasotzen, trontzan eta txinga korrika eramaten aritzea. Hori amaituta, motozerra-proba izango dute eta, saioari amaiera emateko, harri jasotzaileek agurra egingo dute.

### Herri kiroletako promesak

Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aritu da domekako hitzordua antolatzen, eta, adierazi duenez, Aretxabaletan egingo den erakustaldian proba asko ikusteko aukera egongo da. Horrez gainera, aitortu du herri kiroletan esperientzia dutenak eta gazte promesak gonbidatu nahi izan dituztela, azken horiek ezagutzen joateko helburuarekin.




# "Musika nagusi aurten udaletxe zaharrean"

Atxabaltako Gazte Ekimenak gaurko eta biharko egitaraua osatu du. Hala, gaur, 18:00etan, tabernaren irekierarekin emango diete hasiera jaiei, udaletxe zaharrean. Aurreko urteetan moduan, musika emanaldiak izango dira protagonista nagusiak

**Maialen Regueiro** ARETXABALETA

Gaur hasiko dituzte San Migel jaiak Aretxabaletan, eta, beste urte batez, Atxabaltako Gazte Ekimenak bi egunerako egitaraua osatu du jaiak ospatzeko.

**Gaurko egitaraua**

Udaletxe zaharrean arratsaldeko seietan irekiko dute taberna, eta, horrekin batera, jaiak hasiko dituzte. Lehenengo musika emanaldia Sara Alonsoren eskutik izango da, 20:00etan hasita. Kontzertu hori amaitzen denean, Jasan taldearen txanda izango da, eta, harekin, jaietako lehenengo egunari amaiera emango diote.



**Jasan musika taldea.** EKAITZ ZILARMENDI

**Sara Alonso musikaria**

Sara Alonso aramaioarra da eta txikitatik gustatzen zaio musika. 8 urterekin, besteak beste, abesbatza batean hasi zen eta, geroztik, musikaren munduan jarraitu du. ETB1eko *Izarrak kalean* musika-saiora aurkeztu, parte hartu, eta, azkenean, bere edizioa irabazi egin zuen. Musika entzuteko, estilo guztiak gustatzen zaizkio; abesteko bada, berriz, pop, rock eta country estiloetan hobeto moldatzen da. Abesteaz gainera, hiru instrumentu jotzen ditu –pianoa, gitarra eta ukelelea–. Gaur egun, Youtube plataformako kanal batera igotzen ditu bere ikusentzunezkoak.

**Jasan taldea**

Lau kidek osatzen duten musika talde eskoriatzarrak 22:00etan emango dio hasiera, gaur, bere kontzertuari. 2015ean sortutako taldeak dagoeneko badauka musika munduan esperientzia. Hasiera batean, hiru pertsonak osatzen zuten taldea, baina 2016ko urrian laugarren pieza bat gehitu zitzaien. Hala, gaur egun, Ixak Sarasuak, Garikoitz Barandiaranek, Asier Mongelosek eta Jokin Uribetxebarriak osatzen dute taldea. Taldea sortu zutenetik hona, hainbat taberna eta txosnatan aritu dira kontzertuak eskaintzen. Hori gutxi balitz, 2017ko uztailean lehen estudioko lana grabatu zuten, beraiek sortutako hiru kantak eta bertsio batek osatuta. *Soloik solo* izeneko lana Aretxabaletako musika eskolan grabatua izan zen, beste estudio batetik eroandako materialarekin.

**Biharko egitaraua**

Bihar, zapatua, San Migel eguna ospatuko dute Aretxabaletan eta eguerdiko hamabietan irekiko dute taberna; egun osoan zabalik egongo da. Gaueko hamaiketan, Pololos DJ Set-en emanaldia hasiko da eta ordubete geroago, eta gaueko ordu bata arte, Happy Our izeneko ekintza antolatu dute. Hori izango da, bada, aurtengo jaiak amaitzeko modua. Urtero legez, herritar guztiak, ume, gazte eta heldu, udaletxe zaharrera gonbidatuta daude Aretxabaletako Gazte Ekimenak prestatu duen egitarauaz gozatzera.

ARETXARGI
aretxargi@aretxargi.com
BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA
☎943 532 628 645 734 032
INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK
Ondo ibili sanmigeletan!
K21 KALITATEA
Empresa Registrada Nº 3 / 06 / 005
Nivel 3



# Habanerekin agurtuko dituzte jaiak aurten

Aretxabaleta Abesbatzak urteroko kontzertu kutuna eskainiko du festen azken egunean eta habanera doinuak abestuko dituzte, bereziki, nahiz eta boleroren batzuk ere entzun ahal izango dituzten Iturrigorri frontoira joaten diren herritarrek



Aretxabaleta Abesbatza, iazko San Migel jaietako kontzertuan. GOIENA

**Amaia Txintxurreta** ARETXABALETA

Beste urte batez, gogotsu prestatu dute Aretxabaleta Abesbatzako kantariek herriko jaiei amaiera emateko ekitaldi bihurtu den kontzertua. Azken asteetan entsegutan murgilduta egon dira hilaren 30ean 19:00etan, Iturrugorri frontoian ordu eta laurden inguruko zuzenekoa eskaintzeko.

**Habanera doinu goxoak**

Inportantzia nabarmena izango dute habanerek aurtengo kontzertuan. Hauxe esan du abesbatzako zuzendari Angel Barandiaranek: "Urtero hartzen dugu gai bereziren bat; Mexikoko kantuak, Benito Lertxundirenak, zarzueletakoak... askotariko emanaldiak egin izan ditugu San Migel jaietako kontzertuetan. Aurten. habanerek hartuko dute garrantzia, bospasei egingo ditugu. Boleroren batzuk entzuteko aukera ere izango dute bertaratutakoek".

Errepertorioa ilusioz prestatu dute abesbatzako kideek, aspaldikoak eta aski ezagunak diren kantuak abestuko dituzte eta. Hauek dira entseatu dituzten abestiak: *La paloma, Blancas como palomas, Salí de Jamaica, Yo te diré* edota *La bella Lola* habanerak kantatuko dituzte lehenengo. Gero, bolero estiloko kantu hauen txanda izango da: *En mi viejo San Juan, Alfonsina y el mar* eta *El reloj*. Horiez gain, Mocedades taldearen *Eres tú* ezaguna eta Nino Bravoren *Un beso y una flor* kantua ere abestuko dituzte.

**Musikariekin eta dantzariekin**

Aurreko urteetan bezala, agertokian ez dira Aretxabaleta Abesbatzako lagunak bakarrik egongo. Hiru musikarik zuzenean joko dituzte pianoa, perkusioa eta akordeoia. Horiek jotzen izango dira, hain justu ere, Jose Luis Franzesena, Unai Franzesena eta Araceli Telletxea musikariak, hurrenez hurren.

Dantzari dagokionez, iaz tangoa dantzatzen izan zen bikotea izango da aurten ere oholtzan dantzan. Loramendi taldeko dantzari talde batek ere hartuko du parte. Eta baita herriko Jaiki dantza elkarteko dantzariek ere. Guztien artean ikuskizun borobila eta "ikusgarria" eskaintzeko asmoz daudela iragarri du abesbatzako zuzendari Barandiaranek.

**Hurrengo geltokia, Madril**

Udan, Pasai Donibanen eta Loiolan eskaini dituzte kontzertuak Aretxabaleta Abesbatzakoek; San Juan jaien inguruan izan ziren Pasai Donibanen eta Loiolan, berriz, San Inazio inguruan. Pilarikako zubian, berriz, Madrilera joango dira, nahiz eta dagoeneko beste pare bat aldiz ere izan diren bertan zuzenekoak eskaintzen.







Mobiliario ARENAZA altzariak

Bizkaia kalea 1 ARETXABATETA
Tel.:/Faxa: 943 79 08 07
mobiliarioarenaza@hotmail.com

Altzariak
Diseinua
Apainketa

*ondo ibili jaixetan!*




Herrikidek, ARLO GUZTIAK landuz, jabeen komunitateen kudeaketan lan egiten du; jabeen lasaitasuna bermatuz eta, betiere, zerbitzuan PRESTUTASUN osoa bilatuz.

Hurbil egoteak ematen duen erosotasunaz baliatuz -Aretxabaletan gaude- zure komunitatea zentzuz eta arduratsu kudeatzen dugu. Horretaz aparte, beste balio bat dugu: eraikuntzan eta lan arloen zuzenketan urte askotako esperientzia (ezbeharrak, dokumentazioa, laguntzak...)

*Ondo pasa sanmigeletan !*

HerriKide
Komunitateen kudeaketa

Basabe,4 - EO-11 20550 Aretxabaleta
Tel./Faxa: 943089875 / Tel.: 679455764
herrikide@outlook.com

# San Migel jaiak

2018

Aretxabaleta

Irailak 28/29/30

Aretxabaletako Udala
KULTURA SAILA



Luque, Berasategi eta Herzog, udaletxearen aurrealdean. MADIER ARREGI

# Antzuola jasangarriagoa nahi dutela erabaki dute

'Antzuola eitten' ekimena landu dute zortzi hilabetez, herritarrekin; ekimenak emandako emaitzak datorren eguenean azalduko dituzte, Olaranen, 18:30ean. Han azalduko dute plana zein ekintzarekin hasiko duten eta nola jarraituko duten

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ANTZUOLA

*Antzuola eitten* ekimenaren bitartez antzuolarrek erabaki dute 2030ean nolako Antzuola gura duten izan. Eta, Antzuola jasangarriagoa, naturarekin harreman estuagoa duena gura dute herritarrek; Antzuola berdeagoa, alegia. Bestetik, herritarren arteko berdintasuna bermatu gura dute; izan ere, 2030ean nagusi asko egongo dira herrian eta eurendako ekintzak antolatzeko beharra egongo dela hausnartu dute. Mugikortasuna, herriko gimnasioa... ekintza ugari jaso dituzte zortzi hilabete iraun duen prozesuan.

**'Antzuola eitten' ekimena**

150 lagun inguruk parte hartu dute ekimenean. Instituzio aldetik etorri den ekimenari "erantzun ona" eman diotela herritarrek azaldu du prozesua aurrera eraman duen Aztiker enpresako teknikari Xabier Luquek: "Kuantitatiboki 150 lagunek parte hartzea emaitza ona da; eta kualitatiboki ere pozik gaude. Instituzioen aldetik etorri den prozesu bati herriak nola erantzun dion ikusteak planarekiko atxikimendua erakusten du. Exekuzioa egin behar denerako, lehenengo harremana eginda dago".

**Udal ordezkarien konpromisoa**

Udan udal ordezkariekin egin dute lanketa, eta horiek "planarekiko konpromisoa" erakutsi dutela nabarmendu du Luquek.

**Talde eragilea, pozik**

Ekimena aurrera eramateko lan egin duen talde eragileko kideak ere pozik daude emaitzarekin: "Proposatutako ekintzak aurrera doazen heinean etorriko dira onurak herriarendako", azaldu du talde eragileko kide Nekane Berasategik. "Oso gai garrantzitsuak landu ditugu; adin guztietako jendearen beharrak kontuan hartuta: bizikidetza, mugikortasuna...", dio.

Ivan Herzog ere talde eragileko kide izan da: "Balorazio positiboa izan da. Hemendik aurrera udal ordezkariei egokituko zaie lan egitea. Hitz eman dute ekimenetik irtendako gidoia jarraituko dutela. Gure lana izango da hori egiten dutela bermatzea".

Talde eragileak prozesua gainbegiratu eta jarraipena egin du; azalpenak eman dituzte eta komunikazioa eraman dute.

**PROPOSATUTAKO EKINTZAK AURRERA DOAZEN HEINEAN IKUSIKO DIRA ONURAK**

**Herritarren aurrean aurkezpena**

Herritarren aurrean urriaren 4an arratsaldeko sei eta erdietan Olaranen aurkeztuko dute plana. Plana zein ekintzarekin hasiko duten eta jarraipena nola egingo duten azalduko dute aurkezpenean.

## Espainiako txapelketa jokatuko du domekan Jon Larreak

Kordobako Rute herrian izango da BTT jaitsieren txapelketa; aurkari "gogorrak" izango ditu antzuolarrak

**A.E.** ANTZUOLA

Denboraldi ona egiten dabil Jon Larrea antzuolarra BTT jaitsieretan. Kadete mailako lehenengo urtea izanda, txapelketetan ofizialki parte hartzen duen lehen aldia da. Bada, gaurtik domekara bitartean Kordobako Rute herrian jokatuko den Espainiako txapelketan Euskadiko Selekzioarekin parte hartzeko hautatua izan da.

**Harri askoko ibilbidea**

Domeka goizean jokatuko dituzte kadete mailako lasterketak. Lehenengo, sailkapen proba jokatuko dute; eta ondoren, finala. "Bi kilometroko jaitsiera egin beharko dugu, lau minutuan", azaldu du Larreak.

Ibilbideari dagokionez zera dio Larreak: "Esan didate mendi aldean dela ibilbidea eta harri askokoa dela; horrek eragingo du salto askoko txapelketa izatea". Txapelketa izango dituen aurkarien gainean Larreak dio maila oneko pilotuak joango direla: "Gainera, nire lehenengo urtea dela kontuan hartuta, ez dakit nola ibiliko naizen".

**Denboraldiaren balorazio ona**

Aurkari "gogorrak" izango dituela dio, baina Larreak berak ere ez du denboraldi makala egin. Euskadiko Openean lehenengo postua lortu du eta Espainiako openean hirugarren postuan sailkatu da. Txapelketetan parte hartzen duen lehenengo urtea dela kontuan hartuta, "balorazio ona" egin du.

Denboraldiko azken aurreko proba izango da domekakoa; urriaren 20an Asturiasen jokatuko duen azken probarekin agurtuko du aurtengo denboraldia Larrea pilotuak.

## Antzuolak Mondra hartuko du bihar, zapatua, 16:30ean

Erregional Preferente mailako taldeak ligako hirugarren jardunaldia jokatuko du bihar, zapatua. Mondra taldea izango du aurrean, liderra.

Partidua arratsaldeko lau eta erdietan izango da, Eztala futbol zelaian. Bi taldeek duten maila erakusten baldin badute, partidu polita ikusteko aukera egongo da Eztalan. Izan ere, Mondra lider dago 6 punturekin eta Antzuola hirugarren postuan dago 4 punturekin.

Denboraldi hasiera polita eman dio Josu Zubikarairen taldeak 18/19 denboraldiari. Ligako lehen partidua Lagun Onak taldearen aurka izan zen eta 4-2 irabazi zuten; joan den astean, aldiz, Soraluzeren aurka jokatu zuten eta banako berdinketa lortu zuten. Bigarren entrenatzaile lanetan ibili ostean, lehenengo taldearen ardura hartu du Zubikaraik denboraldi berrian.

## Zabaldu dute Idolaz aisialdi taldean izena emateko epea

Idolaz aisialdi taldeak hasi ditu ikasturte berria martxan jartzeko lanak. Harpidetza egiteko epea eguaztenean zabaldu zuten; izena emateko aukera egongo da gaur, irailaren 28a, eta urriaren 1ean eta 2an. Izena emateko, Olaran erakusketa aretora joan beharko da 18:00etatik 20:00etara bitartean. Harremanetarako: *idolazantzuola@gmail.com.*

## Gazte txokoko hezitzaileak kontratatzeko deialdia

Gazte txokorako hezitzaileak kontratatzeko deialdia egin du Udalak. Lan eskaintza azarotik apirilera bitartekoa izango da. Baldintzak dira: euskaraz jakitea, 18 urtetik gorakoa izatea, antzuolarra izatea edo bertan bizi izatea eta asteburuetako malgutasuna. Izena emateko, idatzi *gazteantzuola@hotmail.es*-ra urriaren 5a bitartean.




Osoko bilkuraren ostean, Euskaraldiaren sustatzaile izango dela irudikatzeko talde argazkia atera zuen udalbatzak. JOKIN BEREZIARTUA

# Konpromisoa Euskaraldiarekin

Ekimenaren sustatzaile izateko, "erantzukizunez eta eredugarritasunez" jokatzeko eta izen-ematea errazteko konpromisoa hartu du Udalak aho batez; bestalde, etxeko laguntza zerbitzua hobetzeko urrats garrantzitsua egin zen asteleheneko osoko bilkuran

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Bergarako udalbatzak Euskaraldia babestu eta ekimenaren sustatzaile izateko adierazpena onartu zuen asteleheneko osoko bilkuran, aho batez. Udalak Euskaraldiarekin "erantzukizunez eta eredugarritasunez" jokatzeko konpromisoa hartu zuen. Izan ere, Udalak, udal barruan ez ezik udalerrian ere, herritarrak gonbidatuko ditu parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.

**Gune berria, Barrenkalean**

Izen-emate hori errazteko, hain justu, Euskaraldiaren Bergarako batzordeak lokal berria ireki du Barrenkaleko 10. zenbakian. Lokalean hainbat ekitaldi egingo dira abenduaren 3ra bitartean eta, besteak beste, aholku saioak, hitzaldiak, mintzodromoa eta txapen banaketa antolatuko dira. Hala, esaterako, Kike Amonarriz izango da urriaren 10ean eta Ainhoa Lasa urriaren 17an. Urriaren 23an, berriz, mintzodromoa egingo da. Gaur bertan, hilak 28, Euskaraldiaren jolaslekua egongo da Iralan (17:00).

Hainbat bide daude Euskaraldiarekin harremanetan jartzeko: Barrenkaleko lokalean, astelehenetik egubakoitzera 17:30etik 19:30era eta zapatuetan 11:30etik 13:30era; posta elektronikoz, *bergaraeuskaraldia@gmail.com*; telefonoz, 943 76 36 61 edo 605 71 24 69 zenbakietan; eta Facebook *(Euskaraldia Bergara)*, Twitter *(@bergaraeuskaral)* edo Instagram *(Euskaraldia bergara)* bidez. Gainera, Whatsapp-eko perfilean *Nik parte hartuko dot Euskaraldian* dioen irudia jartzeko kanpaina ere abiatu berri dute.

**URRIAREN 10EAN KIKE AMONARRIZ EGONGO DA EUSKARALDIAREN LOKAL BERRIAN (BARRENKALEA 10)**

**Etxez etxeko laguntza zerbitzua**

Bestalde, asteleheneko osoko bilkuran, etxeko laguntza zerbitzua hobetzeko "urrats garrantzitsua" egin zen: "Etxez etxeko laguntza zerbitzua hobetzera goaz. Ordu gehiago eskainiko diogu hirugarren adinari, eta baita estaldura ekonomiko handiagoa ere. Estaldura ekonomiko hori handiagotzeko ordenantza berezi bat behar zen eta hori da gaur [astelehena] onartu duguna", dio Elena Lete alkateak.

EH Bilduk erabakia babestu zuen, baina uste dute finantziazioa Diputaziotik edota Jaurlaritzatik etorriko dela bermatu beharko lukeela hasieratik Udal Gobernuak. "Jaurlaritzari eta Diputazioari eskatu behar zaio Gizarte Zerbitzuetako karteratik konpetentzia berri bat Udalaren esku uzten denean finantziazioarekin etorri behar dela. Datorren urtean 125.000 euroko gainkostua ekarriko dio Udalari eta guk uste dugu gastu hori egin beharrekoa dela, baina ezin dela Udalaren gain erori", esan zuen Agurne Barrusok. Irabazi abstenitu egin zen. Behin-behineko erabakia da eta 30 lanegunez jarriko da ikusgai jendaurrean.

**Debatea laikotasunaren inguruan**

San Martin jaietako egitarauan meza nagusia iragarri izanak eztabaida eragin zuen gobernuaren eta oposizioaren artean. EH Bilduk gogoratu zuen Udalaren izaera laikoa defendatzen duen mozio bat onartuta dagoela eta Pentekosteen ostean debate bera izan zela udalbatzan. Gobernuak dio meza iragarri izanak ez duela aldez aurretik onartutako mozioaren aurka egiten. Irabaziko Aiert Lizarralde harago joan zen eta, danborradarekin bat egin arren, San Martin Agirreren errepresentazioa "zaharkituta" geratu dela adierazi zuen.

**JAIETAKO EGITARAUAN MEZA IRAGARTZEAK DEBATEA ERAGIN ZUEN UDALAREN IZAERA LAIKOAREN GAINEAN**

## Gorka Artola, jardun osoan

Udalen Legean oinarrituta, EH Bilduko Gorka Artolak %100eko dedikazioa izango du Udalerako. Iazko irailetik %50ean egon da liberatuta, eta udalbatzak aho batez onartu zuen Artola jardun osora pasatzea. "Jardun erdiz zegoen liberatuta, baina jardun eta erdiz aritu da azken hilabeteotan, eta bazen ordua Gorkari egun osoko jarduna aitortzeko", esan zuen osoko bilkuraren ostean Agurne Barrusok. Urriaren 1ean hasiko da Artola %100ean lanean; bere urteko soldata gordina 31.375,63 euro izango da.

## Ze iritzi duzu Euskaraldiaren gainean?



**ELENA LETE**
ALKATEA

"Jende mordoa mugituko du eta hori da euskararen normalizazioa bermatuko duena. Udalbatza osoak egin du bat Euskaraldiarekin eta horren adierazle da atera dugun argazkia; herriari adostasun hori luzatzea oso inportantea da".



**AGURNE BARRUSO**
EH BILDU

"Uste dugu inportantea dela Udalak adierazpena onartu izana, erreferente bat izan daitekeelako. Baina are inportanteagoa izango da hamazazpi zinegotziok *ahobizi* edo *belarriprest* egingo bagina. Bultzada hori komeni zaio euskarari".



**AIERT LIZARRALDE**
IRABAZI

"Ez dakigu noraino helduko den ekimena, baina proba egitearen aldekoak gara. Oso apustu ausarta izango da eta jende asko mugituko duela espero dugu; ikusiko dugu ea zer ematen duen... Proposamenarekin ados gaude; gugatik, aurrera".




Txaber Ouro, Elena Lete, Arantxa Tapia, Alexander Arriola eta Mari Carmen Barrenetxea, atzo, Larramendiko inaugurazioan. GOIATZ ARANA

# "Lehen belaunaldiko" eraikina, enpresei begira

Larramendiko industrialdean 380 eta 510 metro koadro arteko azalera duten 17 pabiloiz osatutako eraikin industrial bat eta hiru solairuko eraikin komertzial bat inauguratu ziren atzo; Jaurlaritzako Sprilur erakundeak hiru milioi euro inbertitu ditu

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Pabiloiz eta bulegoz osatutako 8.415 metro koadroko eraikin berri bat inauguratu zuten atzo goizean Larramendiko industrialdean. "Erakunde publiko ezberdinek egindako lan onaren emaitza da", adierazi duen inaugurazio ekitaldian SPRI Taldeko zuzendari Alexander Arriolak. "Edozein herri aurreratuk azpiegitura modernoak eta lehiakorrak behar ditu eta Larramendiko hau da horren adibide. Eraikinak abantaila guztiak ditu enpresei balio erantsizko zerbitzu bat emateko", gaineratu zuen.

**Elena Lete: "Egun pozgarria da"**

Arriolaren ostean, Elena Lete alkateak hartu zuen hitza: "Oso egun pozgarria da Bergararentzat. 2015ean Larramendiren aldeko apustua egitea ez zen erraza izan, egoera ekonomikoa egungoa baino zailagoa zelako. Gaur egun frogatuta geratu da apustu ausarta bezain interesgarria egin zela eta lehen belaunaldiko eraikin bat dugula, ederto uztartzen dituena industriaren eta ingurumenaren beharrak. Ahalik eta lasterren betetzea eta martxan jartzea da orain espero duguna; Jaurlaritzari gonbita luzatzen diogu beste partzeletan ere berdin joka dezan".

**"Elkarlanean" gauzatutakoa**

Leteren ostean Ekonomi Garapen eta Azpiegitura sailburu Arantxa Tapiak nabarmendu zuen euskal industria mantentzea, handitzea eta ondo zaintzea dela herri honen etorkizunerako erronka nagusietako bat: "Ondo hornitutako eta ondo kokatutako halako azpiegiturak izatea gero eta inportanteagoa da. Hau da, Jaurlaritzari ez zaio axola bakarrik lantegi barruan gertatzen dena, baizik eta kanpoan gertatzen dena ere zaindu beharra dugu. Udalarekin elkarlanean, pentsatu genuen 2015ean aurre hartu behar geniola bazetorren errekuperazio ekonomikoari eta enpresak hazten direnerako leku bat izateko. Eta hori da, hain justu, egin duguna". Tapiak gaineratu zuen, besteak beste, enpresa txikien egunerokotasuneko beharrei ere kasu egin behar zaiela.

**ORAINGOZ, HAMABI ENPRESA IZAN DIRA LARRAMENDIN JARDUTEKO INTERESA AGERTU DUTENAK**

**Oraingoz hamabi enpresa**

380 eta 510 metro koadro bitarteko azalera duten 17 pabiloiz osatutako eraikin industrial bat eta hiru solairuko eraikin komertzial bat eraiki dira, eta 81 metro koadrotik gora bulegoetarako daude aurreikusita. Lanak 11 hilabetean gauzatu dira eta Sprilur-ek hiru milioi euroko inbertsioa egin du. Oraingoz, hamabi enpresak agertu dute interesa instalazio horietan euren jarduna abiarazteko.



Batukadak giro ederra jarri zuen Angiozarren iazko jaietan. IMANOL SORIANO

## Jaiak asteburuan Angiozarren, duela 40 urteko alkateak gogoan

Angiozar Bailarako Batzarrak Moises Arriarani eta Iñaki Marzani "omenaldi xumea" egingo die bihar, bazkarian

**J.B.** BERGARA

Angiozarko San Migel jaiak bereziak izango dira aurten, besteak beste, duela 40 urteko bi alkateri "omenaldi xume" bat egingo zaielako biharko bazkariaren ostean. Aurten 90 urte betetzen dira Angiozar Bergara izatera pasatu zenetik eta 40 urte dira Angiozar Bailarako Batzarra sortu zenetik, horretarako egin ziren lehen hauteskunde demokratikoen ostean. Duela 40 urte, Moises Arriaran eta Iñaki Marzan ziren alkate: "Garai hartan gure herriaren alde egindako lana eskertu nahi diegu".

**Tartekiaxxxx**

Gaur San Migelen jaisten denetik (19:30) eta domekan zeruratu arte (20:00), ez da aspertzeko astirik izango Angiozarren. Besteak beste, gaur, patata-tortilla lehiaketa (20:00) eta Wave eta Eleaners taldeen rock kontzertuak (23:00) izango dira; bihar, San Migel eguna, Bergarako erretiratuek alaitutako meza (11:00), gizon-emakume probak (13:15), herri bazkaria (14:30) eta puzgarriak (16:00) izango dituzte; domekan, besteak beste, azken urtean jaiotako umeei ongietorria egingo zaie (12:00).

## GORA ETA BEHERA



J.B.

### Ur fekalak bideratzeko lanekin, pozik

Urte luzez etxeetako ur zikinak ibaira zuzenean botatzen aritu ostean, urok Mekolaldeko araztegira bideratzeko lanak amaitu dira dagoeneko; bizilagun batek lan horiek txalotu gura izan ditu.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

# Plaza agertoki bihurtuta, eta herria protagonista

750. urteurreneko ekitaldiak borobiltzera datorren kontzertu "errepikaezina" gaur egingo da San Martin plazan (22:30); arlo musikaleko zein arlo eszenografikoko zuzendarien arabera, ikuskizun landua bezain ederra izango da, bergararrak protagonista dituena



San Martin plaza hasita dago agertoki itxura hartzen gaurko ikuskizunerako. V.M.

**Jokin Bereziartua** BERGARA
Euskalmetek ziurtatu duenez, eguraldi iragarpenak kontzertu "errepikaezina" San Martin plazan egitea ahalbidetuko du gaur. Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte betetzen direla gogora ekartzeko hamaika ekitaldi antolatu dira dagoeneko urte osoan, eta gaurko ikuskizun berezia horiek guztiak borobiltzera dator. Kontzertua 22:30ean hasiko da, baina 21:30erako plazara sartu ahal izango da Bidekurutzetatik (Sabadell-Munibe). 700 gonbidapen banatu dira dagoeneko eta gonbidapenik ez dutenak 22:00etatik aurrera sartu ahal izango dira plazara, eta hutsik dauden eserlekuak bete.

**Plaza agertoki egiteko "erronka"**
Atzo gauean, 21:00etan hasita, egin zuten azken entsegu orokorra eta gaur arratsalderako entsegu teknikoagoa bat egitea dute aurreikusita. San Martin plaza agertoki bihurtzea izango da erronka nagusietako bat, Valen Moñux zuzendari eszenikoaren arabera: "Esfortzu tekniko handia da plaza osoa agertoki bihurtzea. San Pedroko dorrea argiztatu beharra dago, udaletxeko fatxada bera proiekziorako 35x11 metroko pantaila erraldoi bihurtuko dugu... Azpiegitura aldetik nahiko konplikatua da, baina espero dugu jendearen gustukoa izatea. Guk, behintzat, gure eskuetan zegoena egin dugu dena ondo irten dadin. Ikuskizun sentikorra, oso herrikoa eta gure tradizioan oinarritutakoa izango da". Ikuskizuna "errepikaezina" izatea zalantzan jarri du Moñuxek, hein baten. "Eslogana polita da, baina, niri, gustatuko litzaidake errepikatu ahal izatea. Ea jendeari gustatzen zaion, baina formula polita da aurrerago ere egiteko", gaineratu du Moñuxek.

**Chirlaque: "Ederra izango da"**
Bestalde, zuzendaritza musikala Alfredo Gonzalez Chirlaqueren ardura izango da, eta, aurreratu duenez, kontzertuak hiru zati izango ditu: lehen zatian, bandaren errepertorioan oso maitatua den Jose Mari Usandizagaren piezak izango dira nagusi; bigarren zatian, orkestrak Benito Lertxundiren, Xabier Leteren eta Mikel Laboaren pieza bana interpretatuko ditu, publiko bergararrak betidanik oso ondo hartu dituen artistak; eta, hirugarren zatian, Miguel Gonzalez Bastidaren *Euskal estanpa* interpretatuko dute. Amaieran, borobiltzeko, James Horner-en moldaketa batzuk entzungo dira, betiere, proiekzioen erritmora, eta azken abestia Bergarako ereserkia izango da. "Irailean gaude, baina musikak eta proiekzioek San Pedro eta San Martzial egunera eramango gaitutze. Bergarako abaniko musikal eta kultural guztia edo ia guztia bertan egongo da, eta hori ederra da", adierazi du Gonzalez Chirlaquek.

**GONBIDAPENAREKIN 21:30EAN SARTU AHAL IZANGO DA PLAZARA; BESTELA, 22:00ETAN**

## 'Kultura kalera' ekimena etzi, plazan

Gaurko ikuskizun bereziaren ostean, San Martin plazak beste ekimen interesgarri bat hartuko du etzi. Izan ere, dagoeneko iraileko ekintza klasikoetako bat bihurtu da ikasturte hasierarekin batera herriko hainbat kultura elkartek antolatzen duten kaleko topaketa. Domekan, hilak 30, euren lana ezagutzera emateko asmoz bilduko dira, eta bederatzi elkartek bertan egongo direla adierazi diote Udaleko Kultura Zerbitzuari: taila elkartea, Buztinzale zeramika elkartea, Bolillos taldea, Bergarako Erraldoien Taldea, Arizondo argazki elkartea, Jardun euskara elkartea, Beart elkartea, Bergarako Musika Eskola eta ehungintza tailerra. Alai taldearen kalejirarekin emango zaio hasiera ekimenari eta topaketa eguerdian izango da, 12:00etatik 13:30era.

# Zubietako zubiko lanek haserrea eragin dute bizilagun batzuengan

Udalak lehentasuntzat du zubia balioan jartzea eta espaloia zabaltzea: "Zubia ez da botako, bere egoera hobetuko da"

**J.B.** BERGARA
Atzo, eguena, hasi ziren Zubietako zubia birgaitu eta balioan jartzeko lanak. Hala ere, bizilagun talde batengan haserrea eragin du obrak: "Udalarekin bildu ginenean bizilagun batzuk proiektuaren kontra geunden eta askok ez dute proiektua ezagutu ere egiten. Obra gelditzea eta benetako parte-hartzea egotea nahi dugu, adostasun batera heltzea. Horrez gain, zubia itxita dagoen bitartean bide alternatibo bat ere nahi dugu. Gainera, zortzi aparkaleku kenduko dizkigute".

**Udala: "Pazientzia eskatzen dugu"**
Kontratazioko gorabeheren ondorioz obraren hasiera sei hilabetez atzeratu bada ere, Udalak lehentasuntzat du zubia balioan jartzea eta alboko errepidean espaloia zabaltzea: "Ez da zubia botako, zentzu guztietan hobetuko da. Obrak iraun artean bost aparkaleku kenduko dira, ezinbestekoa delako, eta, edozein obrarekin gertatu ohi den moduan, egunerokoan hainbat afekzio izango dira. Auzotarrei pazientzia eskatzen diegu; udaltzainek jarraipena egingo dute".

## Aittor Arantzabalek irabazi du udako postal lehiaketa

**Goiena komunitatea**
Jardun euskara elkartea / BERGARA

Aittor Arantzabalek irabazi du zazpigarrenez antolatu dugun udako euskarazko postal lehiaketa. Oraingoan ere, Euskal Herritik zein Euskal Herri kanpotik jaso ditugu postalak. Aittorrek Nafarroako Urkulu mendi Euskaraldiarekin lotutako poesia eder bat bidali digu: *Atzetik aurrera, aurretik atzera/ Lurretik zerura, zerutik lurrera/ Gure hizkuntz zaharraren ortzimuga begi aurrean dugula/ Euskaraldiaren hamaikagarren enbajadorea izan nahian, hona hemen neure ekarpen xumea*. 100 euroko bonua jaso du, Elkarren gastatzeko. Zorionak!

## OHARRAK

### 1942an, 1944an eta 1955ean jaiotakoen jaia
1942an, 1944an eta 1955ean jaiotakoak urriaren 6an elkartuko dira. 1942koek Lasa jatetxean bazkalduko dute eta urriaren 1erako eman behar da izena. 1955ekoak Errioxara joango dira; izena emateko, 646 16 62 03 telefono zenbakira deitu behar da. Amaitzeko, 1944an jaiotakoek Tartufo jatetxean bazkalduko dute (14:30). Autobusa 14:00etan irtengo da, Oxirondotik. Izena eman behar da urriaren 2a baino lehen: 943 76 58 67 edo 943 76 50 22.

### BKEko futbol saila: gurasoendako bilerak
Denboraldi hasierako gurasoendako bilerak antolatu ditu BKEk. Urriaren 1ean emakumezkoen taldeak (18:30) eta gizonezkoen infantilak (19:30) elkartuko dira; urriaren 3an, gizonezko kadeteen (18:30) eta gazte mailakoen (19:30) gurasoak daude deituta.

### Urriak 1: Pertsona Helduen Nazioarteko Eguna
Erretiratuen eta pentsionisten biltzarrak eta San Joxepe elkarteak deituta, manifestazioa egingo dute urriaren 1ean, plazatik (12:00).

### Bergarako Biraren 5. etapa: Bergara-Elorregi
Udalak, Pol-Polek eta Gorla AT taldeak deituta, domekan frontoian elkartuko dira (08:00) Bergara eta Elorregi arteko etapa egiteko.



Lokatza atletismo eskola gazteak, 1980eko hamarkada amaieran. ARGAZKIAK: PILI ARIN



Jose Acedo korrikalaria, 1950ean.



Jose Luis Garmendia, disko-jaurtiketan.



Agustin Loidi, pisu-jaurtiketan.

# Urrezko aroa gogoratzeko topaketa, atleta ohiekin

Gaur egun Bergaran atletismorik ez badago ere, 1960eko eta 1970eko hamarkadetan urrezko garaia bizi izan zen hainbat atleta aipagarririkin; horietako batzuk, 40 bat lagun, bihar elkartuko dira Agorrosingo atletismo pistan eta ondoren Sagarpen bazkalduko dute



Bergarako atletismo taldeko hainbat partaide, 1964an.

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Agorrosin futbol zelaiko atletismo pistak azken urteetan izan duen erabilera faltak agerian uzten du gaur egun Bergaran atletarik ez dagoela apenas. Baina garai batean, bereziki 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, Bergarak loraldia bizi izan zuen atletismoan. "Urrezko garaia 1960ko hamarkadan hasi zen. Atleta internazionalak izan genituen eta baita estatu mailan marka ederrak lortu zituztenak ere. Agustin Loidi disko jaurtiketan, Jose Luis Garmendia pisu jaurtiketan eta Jose Acedo altuera jauzian, adibidez, internazionalak izan ziren", esan du herriko atletismoaren gaineko liburua egiten dihardun Pili Arinek.

Olinpiar Jokoetan ez, baina herrialde ezberdinen arteko hainbat topaketatan egon ziren hiru atleta horiek.

**Prozesuak deitu du topaketa**

Pili Arinen lana ere 750. urteurreneko ekintzen barruan kokatu beharra dago. Eta biharko, topaketa antolatu dute hainbat atleta ohiren artean; izan ere, liburua egiteko prozesuarekin estuki lotuta dago biharko topaketa antolatzearen ideia bera: "Liburua egiteko hainbat jenderekin egon naiz, eta horren ondorioz sortu da topaketa hau egitearena".

Jose Luis Garmendia iaz hil zen, minbiziak jota, baina Loidi eta Acedo, esaterako, bertan egongo dira bihar. "Agustin [Loidi] Madrildik etorriko da eta ilusioz gainezka dago aspaldiko lagunekin egoteko".

**Topaketa "berezia" izango da**

Bihar, zapatua, Agorrosingo atletismo pistetan elkartuko dira. "Elkar ezagutzeko bereizgarri bat eraman beharko dugu, askok urte batzuk daramatzateeta kanpoan bizi izaten", dio Arinek umoretsu.

Agorrosingo pistan bertan topaketa betikotzeko argazkiak atera ostean, Sagarpe elkartean 40 bat lagun elkartuko dira bazkaltzeko: "Topaketa berezia izango da, aspaldiko garaiak gogora ekartzeko balioko duena. Ilusio handia sumatu dut etorriko diren askorengan".

**PILI ARIN: "LIBURUA EGITEKO JENDE ASKOREKIN EGON NAIZ, ETA HORTIK SORTU DA TOPAKETA"**

**Wikipediarako lan baterako zen**

Sarean Bergarako atletismoaren gaineko informaziorik ez zegoela ikusita, aurtengo udaberrian hasi zen Arin Wikipediarako argazkiak eta informazioa batzen: "Jendearekin kontaktuan hasi nintzenean batzuk liburu bat egitera animatu ninduten; bada, liburua entregatu dut udaletxean baina ez dakit ze ibilbide izango duen aurrerantzean. Badakit testua euskaratzen ari direla, baina hortik aurrera ez dakit zein formatutan kaleratuko den".

300 bat argazki jaso zituen, guztira, eta 90 sartzea erabaki du: "Beraz, 90 argazki horiek paperean jartzea nahi bada, liburu bat izan beharko du. Hasiera batean, Wikipediarako zen, baina lan mardulagoa irten da, azkenean...". Dioenez, argazki zaharretako protagonistak identifikatzea izan da lanik zailena: "Argazkiak izen-abizenekin jasotzean, lan hori betiko geratuko da; garrantzitsua da".



# Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

## DENTISTAK

**ADUR HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# "Jendea kafe antzokira erakarri nahiko genuke"

**IBAN ARROIABE** KULTUR HIRU TALDEKO KIDEA

Karim magoarekin estreinatu dira Espaloian, eta 55 bat ikusle bertaratu ziren. Balorazio positiboa egin dute, eta azaroaren 3rako iragarri dute hurrengo ikuskizuna

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Antzokia lanerako espazio egokia dela uste dute, eta jendea erakartzeko ilusioarekin ari dira lanean.

**Zer moduz joan da lehenengoa?**

Antzokia itxita egon dela kontuan hartuta, ez genekien zer-nolako erantzuna izango genuen, eta hasieran salmentak nahiko poliki joan ziren. Azkenean, 55 bat lagun elkartu ginen eta nahiko polito joan zen. Ikusle batzuekin egon ginen eta denek esan ziguten gustura egon zirela. Balorazio positiboa egiten dugu.

**Zeintzuk izango dira hurrengo ikuskizunak?**

Lantalde askorekin ari gara elkarrizketetan. Aurreratu dezaket Sun magoa Espaloian izango dela azaroaren 3an. Sarrerak salgai daude online. Kontaktuan gaude *Goazen!*-ekoekin, Zinemira saria jaso berri duen Ramon Agirrerekin eta Aukeran dantza taldearekin. Eta umeendako zerbait egin nahiko genuke Gabonen bueltan.

**Zer akordio sinatu duzue Udalarekin?**

Abendura arteko epea dugu orain zabalik eta asmoa da hori luzatzen joatea hiruhileko tarteetan. Konpromisoa da urtean hamar bat ekitaldi antolatzea. Egingo ditugula pentsatzen dut, baina ez da erraza eta ez ditugu gauzak presaka egin nahi.

**Lanerako aukera handiak ikusten dizkiozue Espaloia kafe antzokiari?**

Bai, baina Elgetan dago eta herri txikia da. Orain dela hamar urte martxa handia izan zuen eta nahiko genuke hori berreskuratu, baina jendeak beste bizimolde batzuk ditu orain, beste ohitura batzuk, eta zaila da gauez autoa hartzea... Elgetako antzokia, hori bai, oso aproposa da lanerako eta nahiko genuke jendea erakarri.

**Barikuan ez zenuten taberna zabaldu? Zergatik? Aurrerantzean emango duzue zerbitzu hori?**



Arroiabe, Kultur Hiru taldeak Espaloira eroandako Karim magoa atzean duela. L.Z.

## "KONPROMISOA DA URTEAN HAMAR BAT EKITALDI ANTOLATZEA, ETA POLIKI-POLIKI JOANGO GARA"

Dudarik gabe, martxan jartzekoak gara. Lana da taberna prestatzea, eta Karim magoaren ikuskizuna baino bost egun lehenago sarrera oso gutxi genituen salduta. Hala, erabaki genuen zerbitzu hori kentzea. Baina asmoa da aurrerantzean ipintzea. Kontzertuetan, esaterako, tabernak ondo funtzionatuko duelakoan gaude eta kontaktuan gaude hainbat artistarekin; Garirekin, adibidez.

**Bestelako eragileek ere antola ditzakete ekintzak aretoan. Zelan konpontzen dituzue agenda kontuak, eta abar?**

Adostuta daukaguna alde biko elkarlana da. Hala, inork antzokia erabiltzeko eskaerarik egingo balu, Udala eta Kultur Hiru kontaktuan gaude horri bidea emateko. Ez dugu ahaztu behar antzokia Udalarena dela eta Udalak kudeatzen duela. Guk lagundu egiten dugu ekintza batzuk antolatzen.

**Kultur Hiru taldeak diru laguntzak jasotzen ditu Udalaren aldetik, ezta?**

Bai. Alokairu bat ordaintzen dugu antolatzen dugun ekintza bakoitzeko, eta, aldi berean, itzultzen zaizkigu 100 euro ekintza bakoitzeko, eta ekintza euskaraz bada, 150 euro.

**Aretoa bera zelan dago?**

Erabilitako areto bat da. Gauza asko zeuden izorratuta, baina konponketak egin dira —izotz makina, komunak...— eta garbitasun mailan ere neurriak hartu dira. Aretoa oso ondo dago.

**Zer beharko luke Kultur Hiru taldeak hiruhileko gehiago etortzeko?**

Lehenengo, Udala pozik egotea. Horrek esan nahiko luke Espaloia martxan dela eta horrek bizitasuna ematen diola herriari. Eta gero, guk etekin batzuk lortzea. Azken finean, alde biak konforme egotea.

**Ikusten duzue aretoa ordutegi zabalagoarekin irekitzea?**

Gure asmoa poliki-poliki joatea da. Lehenengo, ikusi behar dugu elkarlan honek nola funtzionatzen duen, eta hortik aurrera ikusiko dugu, baina nahiko genuke, bai.



MIKEL URKIA

## Bizkaiko txapela, Zabaletara

**Goiena komunitatea** / Hiru txirlo txapelketa / DEBAGOIENA

"Aulestiko Santa Eufemia bolatokian jokatu zen, domekan, Bizkaiko hiru txirlo txapelketako azken jardunaldia. Aurreikusten zen moduan, Sebastian Arantzabalek atera zuen txapela. Bere lana oso ondo eginda, sei txirlo bota zituen jardunaldian, eta txapelketan 46 txirlo botata jantzi du txapela".



ANER FERNANDEZ

## Nafarroara egun osoko txangoa

**Goiena komunitatea** / Xalbadorpe elkartea / ELGETA

Aurreko eguaztenean, herriko erretiratuek irteera egin zuten, Xalbadorpe elkarteak antolatuta. "Egun osoko irteera egin genuen eta, besteak beste, Etxeberrin dagoen Lacturaleren interpretazio zentroa bisitatzen izan ginen. Oso gustura ibili ginen".

## Mikel Larrea, Goiena telebistako 'Harira' saioan, martitzenean

Elgetako kontuak izango dituzte aztergai, martitzenean, Goiena telebistako *Harira* saioan. Eneko Azkaratek Gu Geu Elgeta plataformako bozeramaile Mikel Larrea elkarrizketatuko du. Oposizioko kideak Udalaren eta herriaren egoeraren gaineko balorazioa egingo du. 21:30ean eta 23:30ean emango dute saioa Goiena telebistan.

## OHARRAK

### 'Gure zirkua', kantxan

Gaur, bihar eta etzi artean sei emanaldi egingo dituzte.

### Haurreskola

Urriaren 1etik 9ra zabalik da matrikulazio epea.

### Gaztelekua

Zerbitzua zabaltzeko eta espazioa berritzeko, batzarra deitu dute erabiltzaileekin urriaren 5erako, 19:00etan.



Udaleko eta IISJko ordezkariak bekaren irabazleekin batera martitzen iluntzeko aurkezpen ekitaldian. O.E.

# Gazteen eta nagusien pentsaerak ikertu dituzte

Oñatiko gazteek gatazkaren historiarekin duten harremana aztertu du Samara Veltek eta 65 urtetik gorako emakume oñatiarrek gizarteari egiten dioten ekarpena, berriz, Leopoldo Cruzek. Udalak emandako Grant beka aprobetxatu dute ikerketak egiteko

**Oihana Elortza** OÑATI

Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen eskutik, eta Oñatiko Udala Grant izeneko bekari esker, Oñati ardatz hartutako bi ikerketa-lan aurkeztu dituzte astean. Gatazka armatua eta 65 urtetik gorako emakumeen ekarpena izan dira gaiak. Lehenengorako, Oñatiko sei gazteren iritziak, pentsaerak, jaso ditu Samara Velte zarauztarrak, eta batutako informazio hori aztertu du. Bigarren ikerketa egiteko, erretiroa hartzeko adina baino urte gehiago dituzten hainbat oñatiarren iritziak jaso ditu Lepoldo Cruz mexikarrak.

**Institutuan**

Lege Soziologia Institutuko areto batean egin zituzten ikerketen aurkezpenak martitzen iluntzean. Hango liburutegian noiz edo noiz topo egin zutelako ezagutzen zuten elkar Veltek eta Cruzek, eta bata bestearen lana ezagutu zuten martitzenean. Baita hainbat herritarrek ere. Saioa irekia zen eta soziologia juridikoko ikasle batzuk ez ezik, Cruzek egindako ikerketan parte hartu duten 65 urtetik gorako emakume asko ere joan ziren aurkezpenera. "Denek esan zidaten euren bizimodua ez zela apartekoa eta ez zutela ezer kontatzeko, baina ez da horrela. Gazte hasi ziren lanean, gurasoak, bikotea, seme-alabak eta ilobak zaindu edo zaintzen dituzte eta yogarako, mendirako eta antzerkirako tartea ere ateratzen dute. Ikaragarria da", adierazi zuen Cruzek. Eta gaineratu: "Egiten eta ematen duten dena, gainera, gogoz egiten dute. Egin dituzten eskaerak bi bakarrik izan dira: bata, bakardadearen aurkako borrokan laguntzea; eta bestea, gazteei zuzendutakoa; gehiago konprometitzeko eskaera".

**16 ETA 18 URTEKO GAZTE ETA 65ETIK GORAKO EMAKUME OÑATIARREK HARTU DUTE PARTE**

Veltek 16 eta 18 urte bitarteko sei oñatiarrekin egin du berba gatazka armatuaz. "Ahozko diskurtsoak aztertu ditut eta horien analisia egin errealitate sozial baten barruan. Gatazkan zein elementu identifikatzen dituzten galdetu diet, euren informazio iturriak zeintzuk diren jakin eta gatazkaren aurrean nola posizionatzen diren galdetu. Ateratako ondorio bat da, adibidez, liburu baten irakurritakoari sinesgarritasun handiagoa ematen diotela etxetik jasotako kontaerari baino". Euskal Herriko beste hainbat gazterekin ere egongo da Velte ikerketa osatzeko.

**Beka**

Oñatiko Udalak 4.000 euro ematen ditu ikerketa bat egiteko. Baldintza da Oñatiri ekarpena egin beharko diola lan horrek. Aurten ere bi ikerlariren artean banatu dute diru hori.

## Ekitaldien ordutegiari buruzko "hausnarketa" eskatu du EAJk

Tabernak eta txosnak 05:00etan itxi beharko dituzte eta 22:00etatik aurrera ezingo da edaririk hartu kanpoaldean

**O.E.** OÑATI

Jaiei begira, gaueko jardueren ordutegiak direla-eta "hausnarketa" egitea eskatu dio EAJk EH Bilduren Udal Gobernuari. Jeltzaleen esanetan, jaien egitarauan dauden gaueko hainbat ekitaldik ez dute bermatzen bizilagunen atsedenerako eskubidea herriko zenbait gunetan. Hori dela eta, EAJk proposatu dio EH Bilduren Udal Gobernuari hausnarketa egiteko "gaueko jarduerez gozatzearen eta pertsonen atsedenerako eskubidearen arteko oreka" bilatze aldera. Oñatiko EAJk esan du "oso kezkatuta" dagoela jaietako egitarauko hainbat ekitaldiren ordutegia dela eta: "Ez dugu partekatzen eta ez dugu ulertzen, eta halaxe adierazi dugu dagokion batzordean, nola baimendu dituen EH Bilduren Gobernuak gaueko hainbat ekitaldi jai-egitarauan bata bestearen jarraian eta gutxieneko atsedenaldia kontuan hartu gabe; are gutxiago, ondo ezagututa zer gorabehera bizi izan duten herritarrek hainbat gunetan gaueko zaraten erruz".

Ekitaldi horien ordutegiak oñatiarren atsedena "oztopatzen" duela adierazi du EAJk. Eta gaineratu: "Ulertzen dugu jaiak guztionak direla eta guztiontzat, eta, malgutasunez jokatu behar den arren, uste dugu ezinbestekoa dela oreka bilatzea". EAJk "kezkaz" ikusten du "zer-nolako jai-eredua ari den zabaltzen herrian ordu txikietan antolatutako ekitaldi horiekin". Uztailean tabernen ordutegiaren harira sortutako eztabaida ere gogorarazi du EAJk oharrean.

**Bostetan**

Gaur jaitsiko da Txantxikua kanpandorretik txosnagunera, 20:00etan, eta horrekin batera hasiko dira jaiak. Jaien lehen txanda; bigarrena datorren asteburuan izango da eta.

Tabernen eta txosnen ordutegiari dagokionez, "aurreko urteetan eta auzoko jaietan jartzen diren ohar berdinak egongo dira", Udal Gobernuko kideen esanetan. Ordutegia bera izango da taberna zein txosnetarako: 05:00etan itxi beharko dituzte eta 05:30erako hutsik egon beharko dute. Lokala berriz zabaltzen den arte, gutxienez, sei orduko tartea gorde beharko dute. 22:00etatik aurrera ezingo da edaririk hartu tabernen kanpoaldean.




OÑATIKO UDALA

## Jose Luis Lazkanoiturburu kalea

Jose Luis Lazkanoiturburu agustindar oñatiarrak 40 urtetik gora egin zituen Valentziako Manises herrian, eta, egindako lana eskertzeko, kalea eskaini diote. Oñatiko udal ordezkariak, Oñatz dantza taldeko kideak eta Aita Madina txistulari taldeko musikariak egon ziren ekitaldian, Oñatitik joandako senideekin batera. Horrez gain, paella jan zuten.

EUSKARALDIA




Ekainaren 22an aurkeztu zuten Oñatiko hamaikakoa, Foruen plazan. T.M.

# Euskaraldia ere aterako da kalera herriko jaietan

San Migel eta Errosario jaietan egingo diren hainbat ekitalditan egongo dira eskuorriak hartzeko eta sinatzeko. Beteta, udaletxean edo herriko hiru ikastetxeetako batean utz daitezke; Internet bidez ere eman daiteke izena

**Oihana Elortza** OÑATI

Irailaren 20an eman zioten hasiera Euskaraldiko arduradunek izen-emate prozesuari. Ordutik hona, Internetez eman daiteke izena eta *ahobizi* edo *belarriprest* izan gura den aukeratu. Harrezkero, herriz herri ere ari dira atxikimenduak batzen eta Euskaraldiarekin bat egiteko aukerak eskaintzen. Oñatin ere egingo dute. Herriko jai nagusietan hasiko dira horretan.

**Eskuorriak**

Asteburu honetan eta hurrengoan egingo diren jaietako ekitaldiak aprobetxatuko dituzte horretarako. Hala, antolatutako hainbat ekitalditan jarriko dituzte eskuorriak, norbanakoek hartu eta betetzeko. Esate baterako, Olaitturri kultur taldearen antzerki emanaldian, bertso jaialdian, herri bazkarian eta beste hainbat ekimenetan izango dira eskura triptikoak, eta *Ahobizi* eta *Belarriprest*, adibidez, gaur, egubakoitza, egingo den nagusien danborradan aterako dira herritarrak agurtzen.

Euskaraldiko Oñatiko batzordea lanean ari da, eta jaien ondoren egingo diren ikuskizunetan ere agertuko dira *Ahobizi* eta *Belarriprest*.

**Batzordea**

Euskaraldia azaroaren 23tik abenduren 3ra Euskal Herri osoak hizkuntza ohiturak aldatzeko egingo duen ariketa bat da. Bakoitzak norbanako gisara egiten dituen harremanen bitartez, jendearen hizkuntz erabakia baldintzatu gura du. Euskaraz dakienak euskaraz egitea da eskatzen den jarrera bat; euskaraz ulertzen duenak euskaraz entzuteko konpromisoa hartzea da bigarrena. Norbaitek gazteleraz erantzuten badu, inertziaz gaztelerara jotzeko ohitura dago egun. Bada, Euskaraldia *txip* hori aldatzera dator: euskaraz egin eta besteak ulertu badu, euskaraz hitz egiten jarraitzeko.

**'AHOBIZI' ETA 'BELARRIPREST' PANPINEK GAURKO DANBORRADAN HARTUKO DUTE PARTE**

Hamaika egun horietarako konpromisoa hartzeko eskatzen ari dira orain herriz herri. Izan *ahobizi*-rako, izan *belarriprest*-erako. Oñatin, jaietan hasiko dira herritarren babesa jasotzen, eta eskuorriak banatuko dituzte horretarako. Orriak, beteta, udaletxean edo hiru ikastetxeetako batean entregatu beharko dituzte gero. Jaien ostean, udaletxean hartu ahal izango dira eskuorriak.

Oñatik otsailaren amaieran erabaki zuen bat egitea Euskaraldiarekin eta batzordea sortu zuten egitasmoa lantzeko eta horren berri herrian zabaltzeko. Udalbatza osatzen duten bi alderdiek ere bat egin zuten egitasmoarekin.

## Kirol hitzordu asko egunez eta orduz aldatu dituzte jaiengatik

Saskibaloiko lehen taldeak gaur, egubakoitza, du partidua etxean eta eskubaloikoena azarora atzeratu da

**O.E.** OÑATI

San Migel eta Errosario jaiak direla-eta aldaketak egon dira hainbat kirol taldetako partiduetan. Batzuk egunez aldatu dituzte eta beste batzuk ezohiko orduetan jokatuko dituzte.

Futbolean, esaterako, eguenean, irailak 27, jokatu zuen Aloña Mendik, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian, UDAren kontra.

Eskubaloian, Euskadiko txapelketan jokatzen ari den taldeak atzeratu egin du aste honetako partidua; azaroaren 1ean jokatuko dute, Zubikoan, Zarautzen kontra. Datorren astekoa Herri Egunean dute, urriak 6, 18:30ean, Muskizen. Gipuzkoa mailan jokatzen duen taldeak ez du denboraldia hasi oraindik. Neskek urriko lehen egubakoitzean izango dute denboraldiko lehen partidua, Elgoibarren.

Saskibaloiko lehen taldeak, berriz, egubakoitzetan jokatuko ditu hurrengo bi partiduak, zapatuetan jokatu beharrean. Biak izango dira Zubikoan eta biak iluntzean. Aste honetakoa irailaren 28an izango da, 20:00etan, Alde Zaharra taldearen kontra.

### Euskarari buruz jardungo dute zapatuan Sandailin

Euskararen Jatorriak taldeak bilkura egingo du zapatuan Oñatin. Lehen bilera izango da eta Araotzeko Sandaili koban egingo du, 09:00etatik 19:00etara. Euskararen baitan dauden mundu ikuskera, berdintasuna, komunitate zentzua, ekologia, gizatasuna, zientzia, inklusioa eta askatasuna izango da landuko duten gaia.

### Bertso saiorako sarrerak salgai daude Txokolateixian

Urriaren 5ean izango da jaietako bertso saioa, Zubikoan, 22:30ean. Hauek dira etorriko diren bertsolariak: Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Aitor Mendiluze, Miren Artetxe, Sustrai Colina eta Unai Iturriaga. Txinparta bertso eskolak jarriko ditu gaiak. Sarrera arruntak hamar euro balio du; 14tik beherakoendako eta langabeendako, zortzi.



NIRE USTEZ

**LUKENE IGARTUA**

### Plastiko beltzak eta bideko harriak

Bertakoak ez garenok ez omen dugu ezer ulertzen! Baina gure herrietan egoera berdintsuak bizi izan ditugunean ulertu beharrekoa ulertu dugu. Horregatik ez gaude batere ados irailaren 8an Hondarribian tradizioaren izenean plastiko beltzez jaia belztu zutenekin. Gaur gauean Oñatiko danborradan emakumeak eta gizonezkoak irtengo dira danborra jotzen, baina hori ez da beti horrela izan. Garai batean, gizonezkoek bakarrik zuten zeregin hori eta emakume talde batek tradizio hori moldatzea erabaki zuen, zorionez. Aurten ere aldatu da aspaldiko beste tradizio bat gurean, Corpus egunean neskak aritu baitziren dantzan. Imajinatzen dut egongo direla aldaketa hauek gustuko ez dituztenak, baina orokorrean herrian Oñatz taldearen erabaki honek ilusioa eta harrotasuna ere piztu zuela esango nuke.

Berdintasunaren bidea harriz josita dago. Ari gara, hala ere, harri horiek jaso, aldamenera bota eta bidea berdintzen; hori bai, poliki samar, nire gusturako. Hondarribian, orain dela 20 urte jaso zen harri horri begira daude oraindik, perspektiba guztiz galduta.

# "Kirolari esker bizkarrak ez du okerrera egin"

**SASKIBALOIA** Martin Perez eskoriatzarrak Europako Txapelketan brontzezko domina jantzi berri du Espainiako Selekzioarekin. Ligan, berriz, maila gorenean jarduten du Gasteizko Zuzenak taldearekin; kategoria horretan profesionalak dira gehienak

**Xabier Urzelai** ESKORIATZA

Espainiako Gurpil Aulkiko Saskibaloiko (BSR) Ohorezko Mailan jokatzen du Martin Perezek (Eskoriatza, 1997), eta, hain zuzen, Fundacion Vital Zuzenaks taldearekin egindako lan onak ireki dizkio Espainiako Selekzioko ateak: "Orain arte, deialdietatik kanpo geratu izan naiz, nahiz eta gutxigatik izan, baina aurten zortea izan dut, eta, gainera, Europako Txapelketan jokatzeko izan da".

Hain justu, Espainiaren multzoan Italia, Israel eta Britainia Handia zeuden: "Italiaren eta Israelen kontra irabazi egin genuen, baina britainiarren kontra galdu; hala, multzoko bigarren geratu ginenez, Alemaniaren kontra jokatu genuen finalerdia, eurak izan ziren-eta euren multzoko lehenak. Bada, Alemaniaren kontra galduta finaletik kanpo geratu ginen, baina azken partidua geratzen zitzaigun, hirugarren postuagatik borrokatzeko aukera ematen ziguna. Hor ostera ere britainiarrekin egin genuen topo, hain zuzen, ligaxkan galdu egin genuen taldearen kontra, eta ezusteko polita eman genuen, norgehiagoka hori irabazi egin genuelako eta, horrela, brontzezko domina irabazi".




Martin Perez, Espainiako Selekzioaren elastikoarekin. RFEB

## Lehena, eta azkena?

Selekzioarekin izandako lehen parte-hartzeari zukua atera dio eskoriatzarrak: "Eta, seguruenik, azken parte-hartzea izango da Espainiarekin, adinez ezingo dudalako 22 urtez azpikoekin gehiago jokatu eta maila absolutuko taldean oso maila handia dagoelako. Baina oso pozik geratu naiz lortutakoarekin; izan ere, azkeneko hamar urteotan selekzioak ez du horrelako kirol lorpenik egin, ez dute dominarik irabazi, eta gu hirugarren sailkatu gara".

## Taldekideez inguratuta

Selekzioko ordezkariekin batera Perezek ondo prestatu ahal izan du Europako Txapelketa: "Normalean, selekzioak oso kontzentrazio gutxi egiten ditu, baina txapelketa hau prestatzeko hainbat egin ditugu, eta horrek lagundu du gure artean hobeto ezagutzeko eta taldean oso giro ona izateko. Dena dela, selekzioko bost jokalari Fundacion Vital Zuzenak taldeko ordezkariak ginen, eta seigarren jokalari euskaldun bat ere taldean izan dugu; horrenbestez, selekzio erdi jokalari euskaldunek osatu dugu".

## Ligan pentsatzen hasita

Selekzioarekin egindako lorpena alde batera utzita, orain, Ohorezko Mailan –Estatuko lehena– buru-belarri jartzea dagokie: "Hamar taldek osatzen dugu Ohorezko Maila, eta Zuzenak taldearen helburua kategoriari eustea da. Horretarako, nahiz eta gure filosofia harrobiko jokalariekin jokatzea den, aurten pare bat fitxaketa egingo ditugu taldeak kalitatearen ikuspuntutik aurrerapauso bat eman dezan". Horren harira, Madrilgo, Albaceteko, Vigoko eta Bilboko taldeak dira kategoriako indartsuenak: "Eta Badajozko taldea ere aurrean ibiliko da aurten. Hainbat jokalari fitxatu dituzte, eta maila onekoak, gainera".

Horrela, fitxaketa horien baldintzen gainean galdetuta, Perezek garbi dio Espainiako Ohorezko Mailan jokalari gehienak profesionalak direla: "Nahiz eta, zoritxarrez, ez den gure kasua", dio barrez. "Baina baliteke zentzu horretan aurten aurrerapauso bat ematea, txikia ez bada ere".

## Kirola, oso lagungarri

Saskibaloiak Martin Perezen egunerokoan duen garrantziaz galdetuta, eskoriatzarrak garbi dauka erantzuna: "Oso garrantzitsua da. Duela zazpi urte hasi nintzen gurpil aulkiko saskibaloian. Orduko heziketa fisikoko irakasleak ondoren izan nuen entrenatzailea ezagutzen zuen, eta eurek animatuta hasi nintzen saskibaloian. Bizkarrezur bifidoaz jaio nintzelako nago gurpil aulkian, eta bizkarrezurra nahiko desbideratuta daukat. Bada, medikuek ebakuntza beharko nuela esaten zidaten, baina saskibaloiari esker ebakuntza hori atzeratu egin ahal izan dut. Astero joaten naiz fisioterapeutarengana, eta, hark esanda, bizkarrezurra ez daukat lehen baino zuzenago, baina ez dut okerrera egin. Hala, saskibaloiak bizkarreko arazoak moteldu egin dizkit. Gainera, saskibaloian hasi nintzenean heziketa fisikoko irakasleak esaten zidan geroago eta hobeto ikusten ninduela, eta ez arlo fisikoan bakarrik. Uste dut arlo akademikoan ere lagungarria izan zela saskibaloian jokatzen hastea".

## Kirol ezezaguna

Perezek aitortzen du gurpil aulkiko saskibaloiak zerikusi gutxi duela ezagutzen dugun saskibaloiarekin: "Jokalari bakoitzak duen desgaitasunaren arabera puntuazio bat izaten du –1etik 4,5era; mugikortasun arazo gutxien dutenek 4,5eko puntuazioa dute–, eta, kantxan dauden bost taldekideen arteko puntuazioa batuta, taldearen gehienezko puntuazioak 14,5ekoa izan behar du. Horrenbestez, kantxan jokalariak aldatzeko orduan oso kontuan izan behar du hori entrenatzaileak. Gero, taktikoki ere alde handia dago, gure saskibaloian joko antolatzailea badagoelako, baina hegalekorik ez... Eta, noski, araudiari dagokionez beste gauza askotan bat egiten dute bi kirol modalitateek; esaterako, guk ere pausoak egin ditzakegu".

**"ZAILA IZANGO DA MAILA ABSOLUTUKO SELEKZIOAREKIN JOKATU AHAL IZATEA, BAINA NORK DAKI"**

---

## ESKALADA Espainiako Txapelketatik dominarekin

Gazte mailako Espainiako Txapelketan esku hartu duen Euskal Selekzioan Debagoieneko Eskalatzaileak Taldeko sei ordezkari egon ziren, eta emaitza onak batu zituzten. 16 urtez azpiko kategorian, bi arrasatear lehiatu ziren: Martzel Vicario 7.a izan zen eta Haizea Osesek zilarrezko domina jantzi zuen. Oñatiko Ilia Uriarte 17.a izan zen.



Vicario eta Oses. JAVIER OSES

## ARETO FUTBOLA Derbia jokatuko dute UDAk eta Eskoriatzak

Euskadiko Txapelketako derbia jokatuko dute Aretxabaletak eta Eskoriatzak zapatuan (10:00), hain zuzen ere, ligako lehenengo jardunaldian, eta berezitasuna da partidua Arrasateko Iturripeko kantxan jokatuko dutela, ez Ibarra kiroldegian. Maila berean, Mondratek Tolosan jokatuko du zapatu arratsaldean (16:30).




Aretxabaletarra jaurtiketa egiten. GOIENA

## ERRUGBIA ARTk Atletico/Hernani izango du kontrario

Asteburuan hasiko dute Igor Isasiren mutilek 2018/2019 denboraldia, eta Atletico San Sebastian/Hernani taldearen berdegunean jokatuko dute lehenengo partidua. Hain zuzen, atzo, eguena, iluntzean egin zuten taldearen aurkezpen ekitaldia, Seber Altuben –*Goiena.eus* webgunean dago horren guztiorren berri–.



Ikusleak, iazko lasterketan, parte-hartzaileetako bat animatzen. GOIENA

# "Jaitsieretako tramuekin oso pozik geratu gara"

MENDIKO BIZIKLETA Domekan egingo dute Euskadiko Enduro Txapelketa, Arrasaten. Martitzenean, izen-ematea amaitzeko ordu batzuen faltan, 120 lagunek emana zuten izena: "Zona berrietan zabaldu ditugu tramuak eta nobedadeak izango dira"

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Domekan 08:00etan hasiko dute Euskadiko Enduro Txapelketa, Arrasateko Arruena parkean –Eroski ondoan–. Eta, aurreko edizioetan moduan, lasterketarako tramu berriak zabaldu dituzte aurten ere, eta sekretupean mantenduko dituzte domekara arte: "Aurreratu genezakeena da publiko egin dugun tramuetako batean pilotuak Udalatik Malvinetara [Arrasate] jaitsiko direla –lehenak 09:30ak aldera pasako dira– eta beste tramuetako bat Anporretan egongo dela. Izan ere, Arbe baserri inguruan amaituko da lasterketa, eta ikusleei begira, horra joateko gomendatuko nieke. Hala, 11:30ean hasita Anporretan giro polita egongo da".

Izan ere, aurtengo nobedadeen artean dago ibilbideko tramuak nahiko banatuta daudela: "Tramu bakoitza jarraitu gura duenak asko ibili behar du oinez, tramuak Arrasateko zona ezberdinetan daude eta. Horregatik, Udalakoa eta Anporretakoa gomendatuko ditut, besteak ezin ditugu aurreratu". Hala, sekretupean gordetako tramu horiei esker etxeko pilotuek ez dute kanpokoekin alderatuta abantailarik izango.

Eta beste nobedadeetako bat da pilotuek banan-banan irten beharrean taldeka hasiko dutela lasterketa. 08:00etan hasita, lauko taldeetan abiatuko dira pilotuak, eta laukote bakoitzean kategoria ezberdinetako *rider*-ak batuko dituzte –21 urtez azpikoak, emakumezkoak eta master 40 eta master 50 kategorietakoak–. Ondoren, 08:30ean, master 30 mailakoek hasiko dute proba, eta 09:00etan elite mailakoek: "Aurreikusten dugu 14:00 aldera amaituko dugula proba. Eta aurtengo edizioko azken nobedadea kronometrajean egongo da, sistema berri bat erabiliko dugu-eta, eskumuturreko moduko batzuekin".

**DOMEKAKO ENDURO LASTERKETAK LAU TRAMU IZANGO DITU, ETA BI SEKRETUPEAN DITUZTE**

**Lehia estua egongo da**

Domekako lasterketa irabazteko faborito direnen artean, iaz onena izan zen Beñat Seminario irteera puntuan izango da: "Pena joan den astean Ainsan Munduko Kopako proban egon ziren Adiran Juradok eta Markel Uriartek erorikoak izan zituztela. Adiran ez da Arrasaten egongo, lesionatuta dagoelako, baina Markel, nahiz eta sorbaldan kolpea hartu zuen, ondo errekuperatuko dela espero dugu", dio Rosadok. Eurekin batera, Jose Antonio Arriola kantabriarra eta Borka Marron asturiarra ere lasterketan izango da, eta baita Frantziatik etorriko diren beste bi *rider* ere: "Baina oraindik ez dakigu zein maila emango duten".



Mondrako Uribesalgo eta *Santxo,* UDAko Urkori presioa egiten. GOIENA

# Mondrak eta Aretxabaletak derbia jokatuko dute domekan

FUTBOLA Erregional Preferentean ere derbia izango da Antzuolaren eta Mondraren artean, Eztalan

**X.U.** ARRASATE

Ezohiko ordutegian jokatuko dute Mondrak eta Aretxabaletak ligako laugarren jardunaldia, eta, seguruenik, San Migel jaiek zerikusia izango dute horretan. Hain zuzen, domekan 16:30ean hartuko dute Jorge Davilaren mutilek Sergio Santanoren Aretxabaleta, Mojategin.

Arrasate Hiria torneoan izan ziren bi talde horiek aurrez aurre, abuztu amaieran, eta, berdegunean indarrak parean egon baziren ere, hiruko torneoko emaitza guztiak batuta aretxabaletarrendako izan zen garaikurra. Askorako balio ez duen erreferentzia hori alde batera utzita, liga hasiera txukunagoa izan dute arrasatearrek –garaipen bat eta bi berdinketa– aretxabaletarrek baino –berdinketa bat eta bi porrot–. Bi talde horiek, baina, egoera ezberdinetatik datoz. Mondrako taldean iaztik hona aldaketa handirik egon ez den neurrian, Aretxabaletan hutsune handiak izan dituzte, eta horiek betetzeko egindako fitxaketak taldera egokitzen dabiltza.

Bergarak, berriz, bultzada ederra jaso zuen joan den astean, etxean, Mutrikuri 3-1 irabazita. Bihar, 15:30ean, liga ondo hasi duen Real Unionen zelaira egingo dute bisita, Gal-era.

**Antzuolan ere derbia**

Erregional Preferentean ere pare bat derbi daude hirugarren jardunaldian. Aretxabaleta eta Aloña Mendi eguen ilunkeran ziren jokatzekoak, aurreratutako partiduan, eta bihar, zapatua (16:30), Eztalan, hirugarren postuan dagoen Zubikarairen Antzuolak Mondra hartuko du. Arrasatearrek bikain hasi dute liga, jokatutako bi partiduak irabazi egin dituzte eta.

## SASKIBALOIA MU dagoeneko Euskal Kopako finalean dago

Nahiz eta Santurtziren kontra Euskal Kopako partiduan 105-101 galdu –bi luzapen behar izan zituzten partidua erabakitzeko–, Mondragon Unibertsitateko mutilak dagoeneko Kopako finalean daude. Eta, hain zuzen ere, Santurtzi da beste finalista; horrenbestez, azken jardunaldian bizi izandako emozioa errepikatu ahal izango da finalean ere.

## PILOTA Pilotari federatuak lehian, gaurtik hasita

Gaur, egubakoitza, Oñatin (18:30ean) eta Elgetan (19:30) jokatuko dituzte pilota partiduak. Oñatiarrek Arrasateko, Tolosako eta Intxurreko pilotariak izango dituzte aurrean. Elgetan, berriz, Bergarako eta Oñatiko pilotariak izango dira aurrez aurre. Domekan, berriz, Aretxabaletak eta Pagazpek Uarkapen jokatuko dute (12:00).



Judit Uriach eta Nando Alonso, *Silencio Toxico* fanzineko kideak eta *RIP* liburu-fanzinearen egileak. SILENCIO TOXICO

# RIP taldearen ibilbidea, fanzinearen esentziarekin

Bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean 19:00etan aurkeztuko dute Katalunian sortu duten 'Larga vida a RIP' fanzine-liburua eta diskoa. Testigantzekin osatutako liburua da, eta taldearen 24 bertsio eta berreskuratutako hiru abesti biltzen ditu diskoak

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Urtean *Silencio Toxico* fanzinearen zenbaki bat argitaratzen dute, orain dela hamar urtetik hona, Judit Uriachek eta Nando Alonsok. RIP "euren talde gustukoenetako bat" delako, Arrasatekoei buruzko monografiko bat egitea pentsatu zuten orain dela bi urte. "Gertatu zirenek [Julen heriotza, haren omenezko kontzertu itzela...] eragin ziguten, eta aurretik Txerra ezagutzeak ere asko laguntzen zuen", dio Judit Uriachek, eta zera gaineratu du Nando Alonsok: "Taldeari buruzko ikus-entzunezkoak badaude, baina gutxi dago idatzizko formatuan. Txerrak ere hasieratik argi zuen fanzinea izan behar zela, garaiko esentzia mantendu behar zela. Hori zen asmoa, baina eskuetatik joan zaigu pixka bat eta 376 orri bete ditugu [Barre]".

### 50 testigantza inguru

Ez da musika liburu soil bat, taldearen ibilbidea narratzen badu ere, "garaian bizi zen egoera zuri-beltzarekin kontestualizatu" nahi izan dutela diote. Hasieran zailena lana antolatzea izan zela gaineratu dute: "Gazteagoak gara eta ez gara hor bizi... Bertigo itzela sentitzen genuen. Segituan, baina, jende asko batu zitzaigun, eta Txerra hasieratik izan da gurekin. Gehien gustatu zaigun gauzetako bat da lan kolektiboa izan dela. Guk hari bat josi dugu, baina eskura jasotako piezekin. Edozertarako ateak zabalik, interes itzela eta sekulako umiltasuna jaso dugu bidean aurkitu ditugun guztien partetik".

Txerrak proposatu zizkien izen batzuetatik hasi ziren elkarrizketak egiten, eta geroago, horien bitartez beste batzuk ezagututa, 50 testigantza inguru batu dituzte: *Jabi Destruye* –hitzaurrea ere egin duena– *Niko* (MCD), *Jou*, Nekane, Kepa Altube *Kopi*, *Mamen* (Vulpes), *Poti* (Cicatriz en la Matriz), *Claus* (Vomito), *Txus*, Iker Barandiaran, Evaristo (La Polla), *Okene* (BAP), Dieguillo (Quemando Ruedas), Mikel (BAP), Txabi Abrego, Kaki Arkarazo, *Sala Strummer*, Igor (The Potes)....

Testigantzez gainera, agerkarietako albisteak, elkarrizketak, diskografia eta Julen omenezko kontzertuaren kronika daude.

### Berreskuratuta, kantuak ere bai

Fanzine-liburua, hasieratik, diskoarekin batera ikusi zutela diote: "RIPen bertsioak egiten dituzten horrenbeste talde daudenez, aproposa iruditu zitzaigun bilduma osatzea, eta 24 batu ditugu; horien artean daude: Arkada Social, Piztupunk, Never Surrender, Rat-Zinger, The Potes, Des-kontrol, Habeas Corpus, Dirty Brothers, Emboskada... *Kopi*-k azal polita egin dio".

Bertsioez gainera, hiru kantu "bitxi" ere badaude: "Kasete batean grabatutako bi kantu dira, Txerrak Never Surrender & Lagunak taldearekin berreskuratu dituenak orain, batetik, eta Gasteizko gaztetxearendako grabatu zuten beste bat, bestetik".

### Debagoienean ere, eskuragarri

2.000 ale atera dituzte, eta honako toki hauetan eros daiteke 12 eurotan fanzine-liburua eta diskoa: Arrasaten, Dat, Iluntz eta Osorik tabernetan; Aretxabaletan, Kixkorren; Eskoriatzan, Inkernun; Oñatin, Bogan; eta Bergaran, Pol-Pol tabernan.

## Maitasunez egindako lana



**TXERRA BOLINAGA**
RIP TALDEKOA

Orain dela urte batzuetatik ezagutzen genuen elkar; hortaz, RIP taldeari buruz fanzinea egitea proposatu zidatenean, gustura hartu nuen euren asmoa, banekielako egiten zutena maitasunez egiten zutela, eta ez zutela inondik ere etekin ekonomikorik ateratzeko helbururik.

Sekulako lana egin dute, une oro joan dira kontatzen zer egiten ari ziren; gure artean harreman oso ona izan dugu, jatorrak dira oso. Asko gustatu zait emaitza, fanzinearen zirriborroa gustura irakurri nuen, eta deseatzen nago fanzinea eskuetan hartzeko eta, nola ez, harekin batera datorren diskoa entzuteko.

ELKARRIZKETTAP
GOIENA TELEBISTA
ENEKO ATXA, SUKALDARIA
JONE GUENETXEAK ELKARRIZKETATUTA
IRAILAK 28AN, EGUBAKOITZA, 21:30EAN ETA 23:30EAN
IKER GALARTZA, PAILAZOA ETA AKTOREA
MIREN ARREGIK ELKARRIZKETATUTA
URRIAK 3AN, EGUAZTENA, 21:30EAN ETA 23:30EAN
goiena"
Zu hemen zaude.





# Sari banaketaren galaren bezperan, kinielak zabalik

Sari asko banatu dituzte Zinemaldian; besteak beste, hiru Donostia sari eta Zinemira saria; azken hori Ramon Agirrek jaso du, Moriarti Ekoiztetxekoen eskutik, eta Euskadiko Zinema Aretoen Elkartearen saria, berriz, Moriartikoek, 'Handia' filmagatik

**A. Aranburuzabala** ARRASATE

Bihar, zapatua, Kursaalen egingo dute, 21:00etan hasita, 66. Zinemaldiaren amaiera gala, eta han banatuko dituzte aurtengo edizioko sari nagusiak. Goienako berriemaile Imanol Gallegoren esanetan, zaila da irabazleen izenak aurreikustea: "Sari nagusia nork eskuratuko duen zaila da esatea, oraindik ez ditugulako film guztiak ikusi. Sail Ofizialeko epaimahaiburu Alexander Payne zuzendari estatubatuarrak astean esan du film guztiek asko jota 90 minutu izan beharko luketela, eta horrek pistaren bat eman diezaguke... Oso proposamen ezberdinak eta ausartak izan ditugu; *High Life* (Claire Denis), *In fabric* (Peter Stricland) eta *Vision* (Naomi Kawase) aipatuko nituzke, bereziki. Esango nuke Sail Ofizialeko aurtengo eskaintzak publikoa eta kritika bi taldetan banatu dituela".

Goienako berriemaileak berretsi egin du jaialdia hasi aurretik zioena, hau da, azken urteetako Zinemaldirik indartsuena izan dela: "Industriak momentu honetan erakusteko dituen lan esanguratsuenak Donostian daude. Gero, beste eztabaida bat da film horiek gustukoak diren edo ez".



Imanol Gallego, Goienako berriemailea Zinemaldian, Judi Denchekin. IBAI ZABALA

### Remirez eta Almandoz

Perlak eta Zuzendari Gazteak sailetako sariak ere aipagarriak dira, eta bietan daude euskal ordezkariak: "Beste zinemaldi batzuetatik ekarritako filmak eskaintzen dira lehenengoan, eta han erakutsi da Cannesen aurkeztu zuten eta Amaia Remirez ekoizle duen *Another day of life*. Animaziozko film horrek puntu asko ditu Donostia saria, publikoaren saria, lortzeko".

Koldo Almandozen *Oreina* filmak ere harrera oso izan duela dio: "Almandozek film oso pertsonalak egiten ditu, hitz gutxirekin eta irudi indartsuekin aurkezten ditu pertsonaiak, ez dizu informazio handirik ematen. Orokorrean, zapore ona utzi du". Zinemaldian estreinatuta, areto komertzialetan izango da gaurtik aurrera; Arrasateko Amaia antzokian eskainiko dute asteburuan.

### Zinemaldiaren azken kapituluak

*Goiena.eus*-en jasoko da bihar irabazleen berri; astelehenean Arrasate Irratian eta biharamunean Goiena telebistan.

# Eguenean abiatuko dira Kooltur Ostegunak, bederatzigarrenez

Broken Brothers Brass Band, Cigüeña, Lukiek eta La Inquisicion taldeak gonbidatu dituzte urriko eguenetara

**A. A.** ARRASATE

2006an Iruñean sortu zuten Broken Brothers Brass Band taldeak zabalduko du Arrasateko gaztetxean eguenetan egiten duten musika zikloaren aurtengo eskaintza. New Orleanseko gaur egungo taldeen doinu kaletar eta jai girokoak ditu Nafarroako taldeak oinarri. Euren emanaldiak funk, gospel eta jazz modernoekin betetzen dituzte, eta talde-inprobisazioa dute oinarrizko ezaugarri.

Orain arteko ezaugarriekin abiatuko dute bederatzigarrena: eguenetan, 22:00etan, puntual hasita, askotariko musika estiloei eta bestelako kultura ekitaldiei ere tokia eginda, eta bost euroren truke sarrera.

Hastapenetatik moduan, Arrasate Irratiak eta Kooltur Ekintza taldeak elkarlanean, asteko protagonistei lekua egingo diete eguenetako FMko 107.7ko *Igo autobusera*! saioan. Horrez gainera, kontzerturako sarrerak zozkatuko dituzte irratian.

Goiena Klubaren txokoa

**Hauek dira iraileko irabazleak!**

PUNTU EUS FUNDAZIOAREN ESKUTIK POLTSA
Aritz Elorza Iñarra (Arrasate)
Isabel Guerra Cordero (Arrasate)
Pilar Calvo Sudupe (Arrasate)
Jesus M. Agiriano Bengoa (Oñati)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Asier Bergaretxe Leibar (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO SARRERAK
Itsaso Villar Velazquez (Eskoriatza)
Floren Arana Barandiaran (Arrasate)
Xabier Mugartza Aiastui (Oñati)

UNZUETA SAGARDOTEGIRAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Gurutze Arizabaleta Okina (Arrasate)

ITURRITXO JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Gotzon Agirre Arregi (Arrasate)

ETXAGI JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Izaskun Gutierrez Zillaurren (Aretxabaleta)

HILARION JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Lidia Agirrezabal Franko (Bergara)

¡SHOTIU JAIALDIRAKO SARRERAK
Irati Lekue
Nerea Madariaga
Iñaki Kortazar

**Irabazi bi lagunendako otordua**

MAIALDE JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
943 25 05 05 kluba@goiena.eus
*KLUBA Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**Lortu bi lagunendako gonbidapenak**

Bilboko Koral elkartearen eskutik
*Mende Berria Kantuz* ikuskizunerako 200 gonbidapen ditugu
Oñati | Arantzazu | Urriaren 5ean | 19:30ean

PARTE HARTZEKO: URRIAREN 3RA ARTE
**Posta elektronikoz:** kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "Mende Berria Kantuz" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

Bazkidetu zaitez: 2018 (irailetik aurrera): 31€
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ESKER ONA

## Maritxu Arenaza Uribarri



2018ko irailaren 16an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2018ko irailaren 28an.

ESKER ONA

## Pilar Agirre Gonzalez de Mendibil



Florencio Elorzaren alarguna

2018ko irailaren 22an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2018ko irailaren 28an.

OROIGARRIA

## Pilar Agirre Gonzalez de Mendibil



2018ko irailaren 22an hil zen, 93 urte zituela.

*Zure indarra gure eredu.*
*Gure ondotik joan zara,*
*baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Agirre familia.
Aretxabaletan, 2018ko irailaren 28an.

ESKER ONA

## Maria Luisa Errarte Madinabeitia



2018ko irailaren 16an hil zen, 73 urte zituela.

Lerro hauen bidez Maria Luisaren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2018ko irailaren 28an.

ESKER ONA

## Patxi Etxaniz Mazorriaga



Carmen Lizaur Larrañagaren alarguna

2018ko irailaren 12an hil zen, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2018ko irailaren 28an.

OROIGARRIA

## Jesus Maria Andres Diez



2018ko irailaren 20an hil zen, 72 urte zituela.

*Beti gure artean.*

Tximista taldea.
Aretxabaletan, 2018ko irailaren 28an.

URTEURRENA

## Roberto Arana Azkarate



2017ko irailaren 29an hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 30ean, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

—

*Beti izango zara gure bihotzetan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2018ko irailaren 28an.

URTEURRENA

## Aitor Olalde Zelaia



2017ko irailaren 30ean hil zen, 38 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 29an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

—

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen,*
*eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2018ko irailaren 28an.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

**Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA**

# GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE *EGUNEZ* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 28 | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99 |
| Zapatua, 29 | FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26 |
| Domeka, 30 | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| Astelehena, 1 | SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74 |
| Martitzena, 2 | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 3 | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09 |
| Eguena, 4 | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |

| BERGARA *EGUNEZ* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 28 | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| Zapatua, 29 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| Domeka, 30 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| Astelehena, 1 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| Martitzena, 2 | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 3 | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| Eguena, 4 | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |

| OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 28 | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |
| Zapatua, 29 | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |
| Domeka, 30 | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |
| Astelehena, 1 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Martitzena, 2 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 3 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| Eguena, 4 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |

**ARRASATE** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
2018ko abuztuaren 15era arte:
IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

**BERGARA** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
2018 osoan:
MOZOS: Iparragirre 2
943 76 12 15

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo *eskelak@goiena.eus*

▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## TXUTXU-MUTXUAK















**1. 60 urte ezkonduta**
Maribel Lazkano eta Luis Mari Maidagan 1958ko irailaren 24an ezkondu ziren. 60 urtez ezkonduta, bost seme-alaba eta 11 biloba! Hori guztia ospatzeko, bidaian izan dira asteburuan 23 senitarteko. Salamanca, Toro eta Medina de Rioseco bisitatu dituzte, denok elkarrekin bazkari ederra egiteaz batera. "Zorionak, bikote!".

**2. Bihar ezkonduko dira**
Nagore Barquero eta Javi Horrillo arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira. Ospakizun festa Belaustegi jatetxean egingo dute lagunekin eta etxekoekin. "Familiaren eta lagunen partetik, zorionak, bikote! Egun polita izan ezazue, eta ondo ibili eztei-bidaian!".

**3. Urrezko ezteiak ospatzeko puntuan**
Antonio Quintana eta Itziar Unamuno bergarararrak 1968ko urriaren 5ean ezkondu ziren, Bergaran. Datorren urriaren 5ean, egubakoitza, ospatuko dituzte ezkondu zireneko 50 urteak, etxekoekin eta lagunekin. "Zorionak eta musu handi bat, familiaren partetik! Jarraitu zoriontsu izaten. Maite zaituztegu".

**4. 50 urte ezkonduta**
Miguel eta Marisol antzuolarrak 1968ko irailaren 28an ezkondu ziren, Arantzazun. Eta dagoeneko ospatu dituzte urrezko ezteiak etxekoekin eta lagunekin. "Zorionak, bikote! Asteburu ederra pasatu dugu Oliten zuen ezkontzaren 50. urteurrena ospatzen. Jarraitu horrela eta musu handi bana, etxekoen partetik".

**5. Gaizka eta Loizate**
Gaizka Murgoitio eta Loizate Abril arrasatearrak bihar, irailak 29, San Migel egunez, ezkonduko dira. Ospakizun ederra egingo dute Galdakaon senitartekoekin eta lagunekin. "Ederto pasatu eztei-bidaian, eta zorionak, familia osoaren partetik! Izan zoriontsu, bikote!"

**6. Bergarako musika eskolari eskerrak**
Bergarako Mizpirualde egoitzan Senideen Eguna ospatu zuten aurreko zapatuan. Hango egoiliarrek arratsalde-pasa ederra egin zuten, familiakoekin. Bide batez, Bergarako Musika Eskolari eskerrak eman gura izan zizkioten, sarri egiten dietelako bisita. Lore-sorta eta plaka jaso zuten opari musika eskolako ordezkariek.

**7. Udako postal lehiaketako irabazlea**
Jardun euskara elkarteak zazpigarren aldiz antolatu du udako postal lehiaketa. Oraingoan ere Euskal Herritik zein kanpotik jaso dira postalak. Nafarroa aldetik bidalitako Aittor Arantzabalen postala izan da saritua. "Urkulu mendi inguruan ibili da eta Euskaraldiarekin lotutako poesia ederra bidali digu bertatik. Zorionak!".

# ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Ekhi Arriaran Zubillaga**
Urriaren 4an, 8 urte. Zorionak!

ARETXABALETA
**Ariane Uribe Coves**
Urriaren 4an, 5 urte. Zorionak eta egun ederra pasatu, familixako danon partetik!

OÑATI
**Anartz Arregi Camino**
Urriaren 1ean, 7 urte. Zorionak, *guapo*! Disfrutatu zure urtebetetze festan. Muxu handi bat Oxelen, Maialenen, Goiatzen, Agerren eta Amaneren partetik.

ARRASATE
**Alize Bakero Morras**
Irailaren 30ean, 10 urte. Mila zorion, Alize! Ederto pasatu zure eguna. Patxo handi bat amama Anaren, amama Lorearen eta aitaita Gerardoren partetik!

OÑATI
**Irai Biain Ezkibel**
Irailaren 30ean, 2 urte. Zorionak, maittia! Jaixen bueltan ospatuko dogu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat, etxeko danon partetik!

OÑATI
**Valeria Garcia Daza**
Irailaren 30ean, 6 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure eguna, Valeria, zure familiaren partetik!

ARRASATE
**Beñat Hernandez Iturbe**
Irailaren 29an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, mutikote. Belarritik tirakada bat eta muxu potolo handi bat, etxeko guztien partetik.

BERGARA
**Naia Gabilondo Kapelastegi**
Irailaren 29an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Topera disfrutatu zure eguna eta muxu bat aitatxoren, amatxoren eta Juneren partetik!

ARAMAIO
**Nahia Reguero Osinaga**
Irailaren 29an, 8 urte. Zorionak etxeko danon partetik! Disfrutatu topera zure eguna, pila bat merezi duzu-eta. Asko maite zaitugu. Muxu potolo bat!



ANTZUOLA
**Amets eta Oinatz Larrea**
Irailaren 29an, Ametsek 9 urte eta urriaren 1ean, Oinatzek 7 urte. Ondo pasatu zuen egunak. Asko maite zaituztegu. Patxo handi bat, danon partetik.

OÑATI
**Beñat Rios Valderas**
Irailaren 29an, 3 urte. Zorionak gure bihurritxoari. Asko maite zaitugu, bihotza. Patxo erraldoia, etxekoen partetik.

BERGARA
**Maddi Lopez Usaola**
Irailaren 28an, 3 urte. Zorionak, maittia! Zure gurasoen eta anaia Anerren partetik.

ARETXABALETA
**Izaro Hernandez Urzelai**
Irailaren 28an, 12 urte. Zorionak, Izaro! Ondo ospatu eguna familia eta lagun artean! Patxo handi bat etxekoon, eta bereziki, Gariren eta Oihanen partetik.

ARETXABALETA
**Joanes eta Maier Agirre Aldalur**
Irailaren 27an, 10 urte. Zorionak bixoi, danon partetik; bereziki aita, Alaitz eta amatxo. 10 urte jada, ze handi in zarien! Ondo-ondo pasatu zuen eguna!

ARRASATE
**Maddi Aldekoa Unzueta**
Irailaren 27an, 8 urte. Zorionak Maddi! Orain arte bezelako jator jarraitu izaten luzaroan. Muxu handi bat, etxeko danon partetik!

OÑATI
**Oihane Idigoras Ugarte**
Irailaren 27an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, Oihane! Daueneko 6 urte. Bai pila! Lagunekin eta familixakuekin topera ospatu!

ARETXABALETA
**Inar Isasmendi Zabala**
Irailaren 27an, 3 urte. Zorionak, gure txikitxo maitia! Hiru urtetxo bete dituzu, mimirritxo! Zelako handia jada! Besarkada eta muxu handi bat.

OÑATI
**Enaitz Zubia Gerrikabeitia**
Irailaren 26an, 5 urte. Muxu potolo-potolo bat etxeko txikitxoarentzat, familiaren partetik!



OÑATI
**Iker Rodriguez**
Irailaren 26an, 9 urte. Zorionak iker! 9 urte. Ondo pasatu zure urtebetetzean. Etxekoen partetik. Muxu handi bat txapeldun!

ARRASATE
**Carlos Oianguren Uranga**
Irailaren 26an, urtebetetzea. Zorionak, Carlos! Ederto pasatu zure urtebetetze egunean eta mila muxu, familiaren partetik!

ARRASATE
**Kety Moreno**
Irailaren 26an, urtebetetzea. Zorionak eta ondo pasatu zure eguna, iloben eta ahizparen partetik! Muxu handi bat!

ARRASATE
**Eider Dominguez Garai**
Irailaren 25ean, 4 urte. Zorionak, Eider, sorgintxo! Ederto ospatuko dogu zure laugarren urtebetetzea. Patxo pila bat, etxeko guztion partetik.

ARETXABALETA
**Axel Urzelai Hernandez**
Irailaren 25ean, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, Axel. Besarkadak eta muxuak, denon partetik!

ARRASATE
**Lier Lizaur Sagasta**
Irailaren 25ean, 3 urte. Zorionak, Lier! Egun ederra euki deizula, politt hori! Muxu handi bat, familixakuen, baina bereziki, Pauleren, Aimarren eta Izarren partetik.

OÑATI
**Ekhi Arregi Baseta**
Irailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, politt hori! Mutikotu egin zara! Bost urte, txapeldun! Jarraitu beti bezain xalamero! Muxu erraldoi bat eta belarritatik tirakadak!

ARAMAIO
**Irune Arrizabalaga Gonzalez**
Irailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Patxo potolo eta handi bat, familixako danen eta, batez be, zure anaia Markelen partetik.

ARRASATE
**Izadi Uribarren-iturrieta Elices**
Irailaren 24an, 5 urte. Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zure egunean. Jarraitu gure bizitza alaitzen. Muxu handi-handi bat. Asko maite zaitugu.



BERGARA
**Aitana Mendiaraz Paya**
Irailaren 24an, 8 urte. Zorionak, Aitana eta Alex! Ondo ospatu zuen urtebetetzeak! Muxu handi bana familiakoen partetik.

ARAMAIO
**Oier Kortabarria Errasti**
Irailaren 24an, urtebetetzea. Zorionak, etxeko nesken partetik! Muxu handia eta segi gure ondoan urteak betetzen.

BERGARA
**Ibai Zaitegi Fernandez**
Irailaren 24an, 5 urte. Zorionak, Ibai! Patxo handi-handi bat, maitte zaittugun danon partetik!

ARRASATE
**Oihan Castillo Romero**
Irailaren 24an, 5 urte. Zorionak, pittintxo! Eskua bete dozu! Esku bete bizipen, eta etorriko direnak! Asko maite zaitugu, txikitxo! Patxo erraldoi pila!

ARETXABALETA
**Manex eta Amaiur Arana**
Manexek irailaren 24an, 10 urte eta Amaiurrek irailaren 29an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bana, etxeko guzti-guztion partetik.

OÑATI
**Eider Arrizabalaga Madinagoitia**
Irailaren 23an, 5 urte. Zorionak, maittia. Muxutxuak Izaroren eta familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu.

ARRASATE
**Ibai Ezkurra Iturbe**
Irailaren 22an, 4 urte. Zorionak Ibaitxo! Aurten ospakizun erraldoia eingo dogu, merezitako moduan. Ederto ospatuko dogu. Maite zaittugu!

OÑATI
**Enara Garcia Calzada**
Irailaren 21ean, 6 urte. Zorionak, maittia! Mila patxo Aneren, Hegoiren, aitatxoren, amatxoren eta familia osoaren partetik. Ondo pasatu!



ARRASATE
**Aitzol Rodriguez Saldaña**
Irailaren 21ean, 11 urte. Zorionak, futbolari! Ondo pasatu eguna eta muxu pila bat, familiaren partetik.

OÑATI
**Iker eta Aimar Zabaleta**
Irailaren 16an, Ikerrek 42 urte eta 20an, Aimarrek 6 urte. Zorionak, bikote! Patxo handi bana, familia osoaren partetik.

ARETXABALETA
**Aner De la Torre Muñoz**
Irailaren 20an, 4 urte. Zorionak, Aner, gurasoen eta arrebatxo Nahiaren partetik! Asko maite zaitugu!

ARETXABALETA
**Jon Larrañaga Ormaetxea**
Irailaren 19an, 12 urte. Zorionak, Jon! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxeko guztion eta, bereziki, Iraideren partetik.

ARRASATE
**Danel Castillo Romero**
Irailaren 19an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Segi irribarre zoragarri horreaz. Patxo erraldoi pila, etxeko guztion eta, batez ere, Oihanen eta Laiaren partetik.

ARRASATE
**Unax Rodriguez Saldaña**
Irailaren 19an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna eta patxo pilo bat guztion partetik!

ESKORIATZA
**Hugo Cabañas Saldaña**
Irailaren 14an, 6 urte. Zorionak, potxolo! Muxu handi bat, familixa osoaren partetik.

ESKORIATZA
**Gorka Cabañas Saldaña**
Irailaren 14an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Besarkada potolo bat danon partetik!

OÑATI
**Izaro Arrizabalaga Madinagoitia**
Irailaren 11n, urtebete. Zorionak, politt hori. Urtetxo bat dagoeneko. Muxu pila familia denaren partetik. Bereziki, Eiderren partetik.

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 28

**BERGARA Euskaraldiaren jolaslekua**
Jardunen eskutik.
*Irala kalean, 17:00etan.*

**ELGETA 'Gure zirkua'**
Egubakoitzetik domekara. Sarrerak, agortuta.
*Bolatokiko kantxan.*

**OÑATI San Migel jaiak**
Askotariko ekintzak, Mikel Aozaratza Eguna ospatzeko. Egitarau osoa 22. eta 23. orrietan.
*Oñatin.*

**ARETXABALETA San Migel jaiak**
Askotariko ekintzak. Egitarau osoa 36. orrian.
*Aretxabaletan.*

**ARETXABALETA Txistor eskaintza**
Borondatearen truke pintxoak banatzen ibiliko dira gaztetxoak.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ARRASATE Garagartzako Sanmigelak**
19:00etan, jaien hasiera; 19:30ean, trikitilarien kalejira; 20:00etan, buzkantz-jana; 22:30ean, Tokan 2 Lapolla, Delirium Band eta Libertad Condicional taldeen kontzertua; eta 03:00etan, berakatz-zopak.
*Garagartza auzoan.*

**ARAMAIO Etxaguengo Sanmigelak**
19:00etan, jaien hasiera; 21:30ean, bertso afaria; eta, afalostean, opari ezkutuaren zozketa.
*Etxaguenen.*

**ELGETA Pilota partiduak**
Gipuzkoako txapelketako bi lehia.
*Pilotalekuan, 19:00etan.*

**BERGARA Sanmigelak Angiozarren**
19:00etan, sorgin dantza; 19:30ean, jaitsiera eta erakusketa; 20:00etan patata-tortilla lehiaketa; 23:00etan, Wave eta Eleaners taldeen kontzertua; 01:00etan, zurrakapotea eta galtzontzillo eta kulero lasterketa.
*Angiozarren.*

**ELGETA Eirband taldea**
El Ricon de Lola tabernako arkupeetan, 1980ko eta 1990eko hamarkadetako kantuak.
*Tabernan, 20:00etan.*

**ARAMAIO Red Crabs taldea**
Ahots, gitarra, baxu elektriko eta bateriaz osatutako taldeak soul eta funk estiloetako bertsioak egingo ditu, Santiñako Musika Festibala.
*Sastiñan, 20:00etan.*

**BERGARA 750. urteurreneko kontzertua**
Herriko musikariekin.
*San Martin plazan, 22:30ean.*

**ARRASATE Shöck, EH Mertxe eta Txakurra taldeak**
Rock-and-roll doinuak. Sarrerak, hiru euro.
*Gaztetxean, 22:30ean.*

## ZAPATUA 29

**OÑATI San Migel jaiak**
Askotariko ekintzak San Migel Eguna ospatzeko. Egitarau osoa 22. eta 23. orrietan.
*Oñatin.*

**OÑATI 'Euskararen xarma', lehenengo bilkura**
09:00etan, auzolana; 10:00etan, hainbat hizlariren berbaldiak; 14:00etan, bazkaria; 18:00etan, laburpenak eta ondorioak; eta, 19:00etan, amaiera.
*Araotzeko Sandaili koban.*

**ARRASATE Garagartzako Sanmigelak**
09:30ean, ibilkera nordiko irteera; 11:00etan, meza; 11:30ean, umeendako jolasak; 17:00etan, Gorritiren animaliak; 18:00etan, aizkora erakustaldia; 19:30ean, poteoa; 20:00etan, buzkantz-jana; eta 23:00etan, AZ Gaubelak taldea.
*Garagartza auzoan.*

**ARAMAIO Etxaguengo Sanmigelak**
09:30ean, kanpai errepikak; 12:00etan, meza; 13:00etan, txikiteoa; 17:00etan, mus txapelketa; 17:30ean, umeendako puzgarriak; 19:00etan, sokamuturra; 22:30ean, erromeria eta 00:30ean, bolo txapelketa mundiala.
*Etxaguenen.*

**ARETXABALETA San Migel jaiak**
Askotariko ekintzak. Egitarau osoa 36. orrian.
*Aretxabaletan.*

**BERGARA Sanmigelak Angiozarren**
11:00etan, meza; 11:45ean, erretiratuen abesbatza; 13:15ean, gizon-emakume probak; 14:30ean, herri bazkaria; 16:00etan, puzgarriak; 18:00etan, mus txapelketa; 19:00etan, txaranga; eta 22:00etan, Jo Panderua taldea.
*Angiozarren.*

**OÑATI 'Resurreccion Maria Azkue eta Euskaltzaindia' antzezlana**
Olaitturri antzerki taldearen eskutik.
*San Migel parrokian, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**ARRASATE Batzarra, gazteendako**
*Erguingo gazte txokoko ametsa: gazte gimnasioa* delako gaia landuko dute.
*Gaztetxokoan, 18:00etan.*

**ARRASATE Parrilada**
Lore Gazteak dantza taldekoek saiheskia erreko dute, pintxoak egin eta horiek saltzeko.
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Larga vida a RIP' fanzine-liburuaren aurkezpena**
Liburuaren egileak, RIPeko kide Txerra, garaiko protagonistak, eta proiektua gauzatzen lagundu dutenak egongo dira.
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**OÑATI Saguzarrak ezagutzeko irteera**
Arantzazuko Parketxearen eskutik, Ane Carorekin eta Unai Barojarekin.
*Parketxean, 20:00etan.*

**OÑATI Gatibu**
San Migel jaietako kontzertua.
*Foruen plazan, 23:00etan.*



PERLATA

**OÑATI Perlata, Arkada Social eta Brigade Loco taldeak**
Lehenengo biak arrasatearrak dira eta azkena, nafarra. Kontzertua egingo dute San Migel Egunez. Txosna ingurua askotariko doinuz beteko dute hiru taldeek. Euren azken lanak aurkeztuko dituzte.
*Bihar, zapatua, txosnagunean, 22:00etan.*

## DOMEKA 30

**BERGARA Bergarako Bira**
Bosgarren etapa egingo dute: Bergara-Elorregi.
*San Martin plazan, 08:00etan.*

**ARRASATE Garagartzako Samigelak**
09:30etan, ibilkera nordikoa ezagutzeko irteera; 10:45ean, meza; 13:00etan, euskal dantzak eta buruhandiak; 13:00etan, bermuta; eta 15:00etan, bazkaria.
*Garagaltzan.*

**ARETXABALETA San Migel jaiak**
Egitarau osoa 36. orrian.
*Aretxabaletan.*

**OÑATI San Migel jaiak**
Askotariko ekintzak. Egitarau osoa 22. eta 23. orrietan.
*Oñatin.*

**ARAMAIO Etxaguengo Sanmigelak**
10:00etan, kanpai errepikak; 12:00etan, meza; 12:30ean, erretiratuendako luntxa; 13:00etan, bolo txapelketa; 16:30ean, briska txapelketa; 17:00etan, umeendako jolasak eta txokolate-jana; eta 19:00etan, jaiak bukatzeko, sokamuturra.
*Etxaguenen.*

**ESKORIATZA Erretiratuei omenaldia**
11:00etan, salda erretiratuen elkartean; 12:30ean, meza San Pedro parrokian; eta 14:00etan, bazkaria pilotalekuan.
*Eskoriatzan.*

**BERGARA 'Kultura kalera'**
Musika eskolako instrumentuak herritarren eskura ipiniko dituzte, proba ditzaten. *Musioka* jokoa eta musika tailerra izango dira.
*San Martin plazan, 12:00etan.*

*BERGARA Alai taldearen kalejira*
*Kultura kalera* egitasmoaren baitan.
*Kalerik kale, 12:00etan.*

**BERGARA Sanmigelak Angiozarren**
12:00etan, azken urtean jaiotako umeen ongietorria; 12:30ean, Angiozarko trikiti eskolakoen kalejira; 12:30ean, pilota partiduak; 18:00etan, kale antzerkia; 18:30ean, briska txapelketa; 19:00etan, umeendako txokolate-jana; eta 20:00etan, San Migelen zeruratzea.
*Angiozarren.*

**ARETXABALETA Pelikula emanaldia**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Speed cups' erraldoia**
Gaztetxoendako.
*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Margoketa**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**BERGARA Tatiana Davidova eta Viktoria Gavrilchenko**
Davidova Sopranoaren eta Gavrilchenko pianistaren emanaldia. Debalde.
*Mariaren Lagundian, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Txarriboda' antzezlana**
Hika taldearen lana. Mireiak eta Imanolek bikote perfektua osatzen dute. Ezkondu egingo dira, eta egun horretan, ezkutuko istorio asko azaleratuko dira. Sarrerak, hamar euro.
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 1

**ARETXABALETA Zirku tailerra: izen-ematea zabalik**
Urritik ekainera arte egingo dute, hilero bi zapatutan. Adinaren arabera bi talde sortuko dira. Izenak Arkupen eman behar dira.
*Arkupen.*

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ESKORIATZA Ludotekako ongietorri jaia**
Tortolis barrutik ezagutzeko aukera izango dute.
*Ludotekan, 17:00etan eta 18:15ean.*

**OÑATI Margo lehiaketako erakusketa**
Aire libreko XVI. lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa zabalduko dute gaur, hilaren 21era arte.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

## MARTITZENA 2

**OÑATI 'Begi bistan' erakusketa**
Ilunpetan argazki taldeak hainbat erakusketa ipini ditu ikusgai Foruen plazako arkupeetan, hilaren 8ra arte.
*Foruen plazan.*

**ARRASATE Odol ateratzea**
Hileko lehen martitzeneko deialdia egin dute.
*Anbulatorioan, 16:30ean.*

**BERGARA 'Galeries Des Corsaires Baiona' erakusketa**
Kolore biziekin egindako margolanak ikusgai egongo dira, hilaren 7ra arte.
*Aroztegin, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Epistemologías mayas como horizontes políticos para desafiar el patriarcado colonial' berbaldia**
Guatemalako indigenen eskubideen aldeko aktibista Aura Cumesek egingo du berba, Emakume Txokoak gonbidatuta.
*Kulturaten, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 3

**ANTZUOLA Euskal Herriko Meatzarien Museora irteera**
Erretiratuendako irteera.
*Antzuolako autobus geltokian, 08:45ean.*

**OÑATI 'Hurretik' egitasmoa: aurkezpena**
LH1 eta LH2 mailetarako sortutako material didaktikoa aurkeztuko dute.
*Santa Ana antzokiko lorategian, 17:00etan.*

**BERGARA Zinema emanaldia: euskal ekoizpenak**
Eñaut Castagnetek eta Ximun Fuchsek zuzendutako *Non* pelikula emango dute. Sarrerak, hiru euro.
*Zabalotegin, 20:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Bertako produktuak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:00etan.*

## EGUENA 4

**ESKORIATZA Literatura solasaldia**
*Demasiada felicidad* liburuaren gaineko saioa egingo dute.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE Broken Brothers Band**
Kooltur Ostegunetako ikasturte berriko lehen emanaldia. Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**Yucatan**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Los increibles 2**
Zapatua: 17:00.

**EIBAR**

COLISEO

**Oreina (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Johnny English**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Enamorado de mi mujer**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

**Johnny English**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Oreina (euskaraz)**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ**

GORBEIA

**Hotel Transilvania**
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

**Todos lo saben**
Egubakoitza eta zapatua: 19:35, 22:30.
Domeka: 19:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**La aparicion**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30.

**Matar a Dios**
Egunero: 20:15.

**Los invreibles 2**
Egunero: 17:30.

**Predator**
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30.
Domeka: 12:00, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Johnny English**
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.
Domeka: 12:00, 16:15, 18:15, 20:15.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:00.

**Hell fest**
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 20:10, 22:30.
Domeka: 16:15, 20:10.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Enamorado de mi mujer**
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Ana y Bruno**
Egubakoitzetik domekara: 16:15.

**Oreina (euskaraz)**
Egubakoitza eta domeka: 18:15, 20:15, 22.15.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:00.

**La monja**
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 20:40, 22:30.
Domeka: 16:15, 20:40.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Yucatan**
Egubakoitzetik domekara: 18:10.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Un pequeño favor**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

**Teen titan go**
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

**Megalodon**
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:10.
Domeka: 19:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**La milla 22**
Egubakoitza eta zapatua: 18:15, 20:10, 22.30.
Domeka: 18:15, 20:10.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Los futbolisimos**
Egubakoitzetik domekara: 16:00.

FLORIDA

**El reino**
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 22:30.

**El papa Francisco**
Egubakoitzetik domekara:16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

**El escandalo Ted Kennedy**
Egubakoitzetik domekara: 18:20.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Oreina (euskaraz)**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:40, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

**Yucatan**
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Johnny English**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 22:30.

**The rider**
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Girl**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

**Carmen y Lola**
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 22:30.

**El reverendo**
Egubakoitzetik domekara: 16:20, 18:25, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

**La monja**
Egubakoitzetik domekara: 22:35.
Astelehenetik eguenera: 22:30.

**Predator**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**La milla 22**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

**El capitan**
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

BOULEVARD

**Searching**
Egunero, martitzena izan ezik: 13:10, 15:45, 17:50, 20:00, 22:10, 00:20.
Martitzena: 17:50, 20:00, 22:10.

**El reino**
Zapatua eta domeka: 12:20.
Egunero: 16:05, 18:50, 21:30, 00:15.
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.

**La milla 22**
Egunero, martitzena izan ezik: 13:25, 16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:30.
Martitzena: 18:20, 20:25, 22:30, 00:30.

**Predator**
Egunero, martitzena izan ezik: 12:40, 15:45, 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.
Martitzena: 18:00, 20:10, 22:20.

**La monja**
Egunero, martitzena izan ezik: 13:00, 16:10, 18;15, 20:20, 22:25, 00:30.
Martitzena: 18;15, 20:20, 22:25, 00:30.

**Yucatan**
Egunero, zapatua izan ezik: 13:00, 16:40, 19:20, 22:00.
Zapatua: 13:00, 16:40, 19:20.

**Hotel Transilvania**
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta martitzena: 12:30, 15:45.

**Al aire patos**
Domeka, eguaztena eta eguena: 12.30, 15:45.

**El mejor verano de mi vida**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 19:50.

KRITIKA

**El reino** ★★★★★
**Zuz.:** Rodrigo Sorogoyen. **Aktoreak:** Antonio de la Torre, Jose Maria Pou, Barbara Lennie.

# Oihanaren legea

**ANTONIO ZABALA**

*El reino* pelikularen hasieran, jatetxe batean, hainbat pertsona zaratatsu bazkaltzen ari dira. Negozio munduko pertsonak dira, eta barre eta garrasi asko egiten dute, bizitzan daukaten posizioa ospatzen. Duten portaera nahiko zakartsua da. Momentu horretan dena ondo doala, denak lagunak direla ematen du. Baina ez da horrela. Bizi diren munduan oihanaren legeak agintzen du. Hau da, biziraupen espiritua nagusi da, eta, duten bizitza arriskuan ikusten dutenean, edozer gauza egiteko kapaz dira. Une horretan, lagunak zirenak etsai bihurtzen dira. Mesfidantza ezartzen da beraien artean. Hori horrela, gerra giroa nagusitzen da. Antonio de la Torrek egiten duen pertsonaia zurrunbilo horretan harrapatuta sentitzen da. Sorogoyenek pertsonaiak sentitzen duena islatu nahi du, eta horretarako oso modu malkartsuak erabiltzen ditu: musika elektroniko nazkagarria behin eta berriz, oso bolumen altuan; kamera mugimendu handiak; une askotan oso gertuko irudiak; enkoadraketa bitxiak...

Zuzendariaren estiloa gehiegizkoa da, eta, oraingoan, azalean geratzen da. Dena den, *El reino* interesgarria da eta kontuan hartu eta landu beharreko gaia garatzen du. Antonio de la Torrek lan ona egiten du Sorogoyenen pelikulan. *Caníbal* edo *Que dios nos perdone* pelikuletan erabilitako interpretazio barnekoia aldatzen du, interpretazio histrionikoagoa egiteko.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AZKEN BERBA



AINTZANE OIARBIDE

## Pentsioak

Badira gai batzuk politikan gutxieneko adostasunak beharko lituzketenak. Beti esan izan dut legealdi batek lau urte irauten badu ere, politikariok ez genukeela lau urteko epe mugarekin bakarrik pentsatu beharko, baina egia da zaila izaten dela planteamenduak luzera egitea alderdi politiko guztien adostasunik gabe. Beharrezkoa da, ordea, zenbait gai gutxienezko adostasun horiekin kudeatzea, gizartearen onuraren mesedetan. Hezkuntza, osasuna, euskararen bizi irautea eta, nola ez, pentsioak dira, adibidez, denon arteko adostasunetik eta ez liskar politikotik bideratu beharreko gaiak.

Pentsioen kudeaketa, Gizarte Segurantzarena, aspaldian behar genuen Euskadiko erakundeen esku, baina badakigu Espainiako aginte desberdinek transferentzia hori behin eta berriz ukatu digutela. Gauzak bestelakoak lirateke pentsioen kudeaketa gure esku egongo balitz, baina hori iristen ez den bitartean Toledoko Paktuan erabakitakoa ezarriko digute. KPIaren araberako urteroko igoera adostu da oraingoan eta ongi etorria bedi, baina lan asko dago egiteko oraindik pentsioak bermatu eta jende askori duintasuna bueltatzeko.

BUKATZEKO




Josune Gamazo, martitzenean irabazitako saria erakusten. 'ATRÁPAME SI PUEDES'

# Egunkaria irakurtzeak lagundu dio saria lortzen

Euskal Telebistak gaurdaino eman duen diru saririk potoloena irabazi zuen martitzenean Gasteizen bizi den Josune Gamazo arrasatearrak: 164.000 euro. Egunero irakurtzeko duen ohitura oso lagungarria izan zaio saria irabazteko

**Oihana Elortza** ARRASATE

Kubara egingo du bidaia bat Josune Gamazo Alonso arrasatearrak Euskal Telebistako *Atrápame si puedes* saioan irabazi dituen 164.000 euroekin: "Gogo horixe dut aspalditik eta orain egingo dut. Diru gehiena, baina, erosoago bizitzeko erabiliko dut. Urte asko daramatzat jatetxe batean baino gehiagotan lanean, asteburuetan toki batean eta aste barruan beste batean, opor eta jaiegunetako ordezkapenak egiten... eta diru honek lasaiago bizitzen lagunduko dit. Horretarako erabiliko dut".

### Isilik

Dirua zertan erabili erabakitzea baino zailagoa egin zaio isilik egotea programa grabatu zuten egunetik –irailak 17– diru saria irabazten agertzen zen saioa emititu zuten arte –irailak 25–. "Astebete izan da, baina luzea. Jende askok ezagutzen nau eta lagun askok zekiten programan parte hartu nuela. Eta ni isilik egon behar...; ezin esan saria irabazi nuenik. Aste hartan, normalean baino gutxiagotan atera nintzen kalera, ahalik eta galdera gutxien erantzuteagatik. Oso ondo disimulatu nuela esan zidaten gero gertukoek", dio, barrez, Gamazok.

Berak bazekien zein egunetan emititu behar zuten saria irabazi zuen atala. Eta martitzenean ere isilik egon zen. "Lanera joan nintzen, beti bezala. Jatetxean ez dugu telebistarik eta ni lasai nengoen, baina tabernan bai, eta han saio hori egoten da jarrita ordu horretan. Lankideak programa ikusten ari ziren jakitun nintzen eta 15:00etan, saioa amaitu zenean, sekulako iskanbila sortu zen", dio arrasatearrak. Ikaragarria izan zela gogoratzen du: "17:00etan atera nintzen lantokitik eta etxera joateko herri barruko autobusa hartu nuen, beti bezala. Autobusean eseri nintzenean, telefono mugikorra atera nuen poltsatik eta 89 dei galdu eta 112 mezu nituela ikusi nuen. Ordutik hona, egunero zoriondu nau batek edo besteak. Bizilagun batek *post it* bat itsatsi zuen etxeko atean zorionak emateko".

### Irakurri

Gamazok onartu du zorteak ere izan zezakeela zerikusia galderak asmatzeko orduan. Baina ziur dago irakurtzeko duen ohiturari esker lortu dituela 164.000 euroak. "Asko irakurtzen dut; egunkaria, adibidez, egunero. Jakin-mina edo interesa pizten didaten gaien inguruko informazio bila aritzen naiz gero Interneten. Rohingya komunitateari buruzko artikulua arretaz irakurri nuen prentsan duela bizpahiru hilabete, bere larritasunagatik. Horregatik erantzun nion ondo saioko azken galderari", zehaztu du.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26 / andrama@arrakis.es

GARRAILAN
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33 / www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.